

**Jatorrizko izenburua:** Hipo-Krisia  
**Egilea:** Unai Oñederra Egaña

**Diseinua eta maketazioa:** Sandra Soler  
**Ilustrazioak:** Der Corönel

**ISBN:** 978 84 613 9489 0  
**Lege Gordailua:** BI- 2993-2010

**Inprimaketa:**



**Eztabaida Argitalpenak**

Amezti kalea 3 Algorta (Bizkaia)

Tlf. 94 656 29 85

[www.eztabaida.org](http://www.eztabaida.org)

[eztabaida@hotmail.es](mailto:eztabaida@hotmail.es)

2010.eko Azaroa

Liburu hau osorik zein zatika erreproduzitzea baimentzen da,  
beti ere merkataritzaren aurkako hedapenerako edota  
eztabaidarako bada.



*No hay que luchar contra la pobreza  
Hay que luchar contra la acumulación.*

Adolfo Chércoles



Zuri, maitia.



---

# 1

Zortzi terdiak eta kalean. Hotz handia. Euririk ez behintzat. Eskua eskuineko poltsikoan sartu duzu. Ezer ez. Ezkerrekoan. Metxeroa eta sakelakoa. Jakako eskuin patrikan. Bai. Eskua zabaldu eta kontatzen hasi zara. Hamar, hogeï, hirurogeita hamar, laurogeita hamar, euro eta hamar, euro eta hamabost. Euro eta hamazazpi. Bada zerbait. Aterako al didate inon ardotxorik honekin? Ingurura begiratu duzu. Dena itxita. Argitzen ari du, baina gabonetako apaingarriek oraindik piztuta darraite. Eguberri eguna madarikatu duzu, igande eta jai egunak madarikatu ohi dituzunez. Gaueko bederatzi terdiak arte ezingo duzu lo egitera sartu. Hamahiru ordu luze zer eginik gabe, inon sartu ezinik, hotza gainetik ezin uxatu, eta zure barnea jaten eta jaten. Buruari bueltak eman eta eman. Zaborra naiz, zaborra besterik ez. Denbora amaigabea Aterpeko atea zabalduko duten arte. Erlojua begiratu duzu. Zortziak eta hogeita hamaika. Easo plazarantz abiatu zara buru makur, lurrian zer aurkituko. Zigarro bat behar duzu. Pakete bat ikusi duzu edukiontzi ondoan. Makurtu. Jaso. Ireki. Ezer ez. Hutsik. Lurrera bota duzu etsituta. Kolore guztietako edukiontziak miatu dituzu zerbaiten bila. Erdi hutsik daude. Gaur gauean, bai, bete beteta egongo dira. Gaur gauean edo bihar goizean. Ospakizunen hondakinak.

Egunkari zahar baten goiburua irakurri duzu zakarrontzi batean: *Navidades austeras en época de crisis*. Txanponak eskuan gogor estutu dituzu. Jakingo ote du zer den *austeridad* esaldi hori idatzi duenak? Nik ere, irakurri ohi nituen egunkarietako esaldi deigarri horiek kafesne eta kruasana ahoratzen nituen bitartean. Goxo-goxo etxean. Gero dena pikutara joan zitzaidan. Edo bota nuen. Goizetik gauera kale gorrian. Hasieran sinistu ezinik. Azkenean atsekabez onartuta. Zaborraren lekua da kalea. lazko eguberria etorri zaizu gogora. Xoxik gabe pasa behar izan zenuen. Aurten iaz baino hobe zaude. Krisiak mesede egin diotenetako bat izango ote?

Kontxa alderantz zoaz Easo kalean gora. Zigarrokin bat topatu duzu lurrean. Jaso, ahoratu eta pizgailua erabiliz filtroa erre arte sakon zurrupatu duzu tabako apurra. Bidean topatzen dituzun tabernetara doazkizu begiak. Dena itxita. Zaila izango duzu ordu batzuetan tabernaren bat zabalik topatzea. Ibiltzea baino ez zaizu gelditzen, izoztuta baitzaude. Horrek behintzat zerbait berotzen zaitu.

Zaborra naiz. Zergatik deitu behar zidan atzo hain justu nire alabak? Hiru urte bere deirik jaso gabe. Hiru urte beretaz ezertxo ere jakin gabe. Eta atzo, gabon gaua, ardoak gainezka egiten zidanean, bere deia. Ez nuen hartu beharrik. Zergatik hartu nuen ba? Zer moduz zaude aita? Hiru urte amaigabez nitaz arduratu ez dena, juxtu atzo deitu eta zer moduz zaude galdetu. Ni mozkor-mozkor egina. Zer esan niezaioken nik? Kaguen sos! Dena izorratu nuen. Zergatik deitu zenidan atzo

maitea?

Itsasaldetik datorren haize finak begiak hezetzen dizki-  
zu. Edo ez. Agian ez da haizea. Agian barrutik ateratzen  
zaizu. Baina aurrera darraizu. Ibili egin behar duzu. Ez-  
tulka hasten zara. Hiru eztul zikin. Birikak gaizki ditu-  
zu. Pneumonia izango ote? Axola al zaio inori?

Don Simon tetrabrik bat topatu duzu zakarrontzi ba-  
tean. Eskua sartu eta pixka bat astindu duzu. Tanta-  
txo batzuk badaude. Ahora. Mihiarekin gogoz dastatu  
dituzu tanta apurrak. Lurrera bota duzu amaitutakoan  
eta ostikada bat eman. Ez dabil inor inguruan. Autorik  
ere ez. Den denak goxo-goxo etxean daude lo. Familia-  
rekin. Anaiak ez zizun deitu. Nolatan ez zizun anaiak  
deitu? Badaki nola nabilen, nola ez dit deitu beraiekin  
afaltzera joateko? Nola egin diezadake hori nire anaiak?  
Nitaz aspertu da. Nazkatu egin dut. Saiatu den guztie-  
tan kale egin diot. Ongi hasten naiz, baina beti mo-  
menturen baten izorratu egiten dut dena. Nekatu egin  
da niri laguntzeaz. Bere emazteari gainera ez natzaio  
batere gustuko.

Inoiz ez nau gogoko izan. Baina anaiak... nola utzi nau  
kalean botata gabon gauean?

Orain bai, orain malkoak isuri dituzu nabarmen. Londres  
hotel pareko banku batean eseri zara, eta burua heldu  
duzu bi eskuekin, ukondoak belaunetan bermatu ondo-  
ren. Olatuak entzuten dira. Bat. Beste bat. Etorri eta  
joan. Ez daukat erremediorik. Mozkor nazkagarri bat  
besterik ez naiz. Ez daukat inor. Ez daukat ezer. Zuloan  
sartua betirako. Guztiarekin akabatzea hobe! Baranda-  
ra gerturatu zara. Ez. Altuera txikia da, eta hondarra

biguna. Hemen ezin dut. Izoztuak dituzu oinak. Ibiltzen segitu behar duzu Aurrera. Baina zertarako? Antiguarrantz abiatu zara.

Egun guztia telefonora begira eman nuen, eta ezer ez. Zenbat aldiz begiratu nuen? Gaizki ez ote zebilen ere kezkatzen hasi nintzen. Alfonsori dei bat egiteko esan nion bazpare, eta bai, telefonoak jo zuen. Baina nire anaiak ez zuen deitzen. Egun guztia bere zain, eta balantzaka Aterperantz nindoala, hara deia. Dei mada-rikatua. Alabaren deia. Eta nik hartu. Nolatan egin nuen hori! Dena izorratu nuen. Zer moduz aita? Zer esan behar nion ba? Zer aukera nuen? Lur jota maitia, oso gaizki... Negarrez hasi behar ote nintzaion telefonoz? Ez. Gizon honek, ar honek hobe esanda, popatik hartze-  
ra bidali zuen bere alaba. Nola egin nuen hori? Zaborra besterik ez naiz. Zergatik esnatu nintzen atzo goizean. Zergatik ez ote nintzen betirako lo gelditu?

Min izugarria nabari duzu urdailean. Bihotzean. Gorputz eta arima osoak mintzen zaitu.

Bataplan inguruan plastikozko basoak daude han hemenka. Gaueko festak utzi dituen loretxoak. Gehienak lurrean botata daude, baina badaude zenbait zutik. Garagardoa zelakoan baso bat eraman duzu ahora, baina dena bota duzu pisa zela konturatzean. Kabroiak! Beste baso bat hartu duzu. Oraingo honetan ongi aztertu duzu ahoratu beharrekoa eta bai, kubataren hondarrak ziren. Aurkitu dituzun hondar guztiak barneratu dituzu. Apur bat berotzen hasi zara. Zenbait zigarrokin ere to-

patu dituzu.

Gizon bat pasa da korrika. Bezperako afaria erretzeko goiz jaikitako erokote horietakoa. Urrutitik pasa da. Urrundu egin zaizu, segurtasun tarte nahiko bat utziz bezala. Beldurtu egin dut. Edo nazka eman diot. Ez zuen nirekin kutsatu nahi edo. Honek behintzat ikusi nau. Asko baitira ikusi ere ez nautenak egiten. Ikusezina sentitzen naiz askotan. Existituko ez banintz bezala. Baina bai, nire minak egunero gogorarazten dit bizirik nagoela. Zertarako eta zergatik ez dakit. Baina mina benetakoa dela ezin dudatu. Mina dut, beraz banaiz. Descartes burura etorrita irribarretxo bat marraztu zaizu aurpegian.

Txirula soinua etorri zaizu orduan. Tuneletik. Zigarrotxoren bat topatuko dut agian... Lurrean eserita dago txirula jolea. Motxila alboan. Ardo kartoia ezkerrean.

- Zigarrorik ba al duzu?
- Ez, gabe nago.
- Ardo pixka bat emango mesedez?

Motxilara jo du txirulariak. Kremailera zabaldu eta bi baso atera ditu. Harrituta gelditu zara. Liluratuta. Basoa luzatu eta zutituta ardoa zerbitzatu dizu txirulariak. Ondoren bere basoa bete du. Topa egiteko keinua egin dizu txirulariak, baina ordurako basoa hustuta duzu. Beste basokada bat zerbitzatu eta oraingoan bai topa egin duzue.

- Gogorra gaurko eguna.
- Bai.



- Goiz etorri zara baina. Denbora luzez ez da inor pasako hemendik.

- Bai, baina zer egingo dut ba? Hemen erdi babestuta nago, eta txirulak konpainia egiten dit. Tunel honetan doinu ederra ateratzen du. Eskuak berotzeko era ona da.

- Ni ordea oinez eta oinez. Gaur ez dakit zenbat kilometro egingo ditudan. Baina ez dago beste ezer egiteko. Den dena itxita dago. Ez dago nora joan. Infernu bat da hau.

- Krudela da benetan.

- Koldo Mitxelena irekiko balute sikiera? Lotsagarria da, gutaz ez inor oroitzea. Gu hemen kalean botata uztea denak. Zer kostatzen zaie lokalen bat, liburutegiren bat, ez dakit... guk egun amaiezin eta gordin hauek xamurrago pasa ahal izateko zerbait irekitzea?

- Gu ez gara inor. Txakurrek eta katuek baino gutxiago balio dugu. Haien baina arreta txikiagoa jasotzen dugu. Abereen azpitik gauzkate, gauzatzat hartzen gaituzte. Zaborra. Horixe gara beraiantzat. Bizimoduak sortzen duen hondakin ezatsegin baina saihestezina.

- Traba egiten diegunean soilik akordatzen dira gurekin. Udan. Donostiako itxura ponpoxoa zikintzen dugunean. Orduan bai, leku guztietatik bidaltzen gaituzke ostikoka, kolpeka.

- Pozik bidaliko gintuzkete San Markosera. Kaka zaharra. Guztiak aste betez kalean bizitzen jarriko nituzke. Orduan bai, konturatuko lirateke zer den hau.

- Jasanezina da bai. Eskerrak zu bezalako jendea baden oraindik. Bizi pixka bat itzuli didazu. Oso eskuzabal jokatu duzu. Hurrengo batean nire kontu.

- Hitza hartuko dizut - berriro eseri da txirularia - Zorte on.  
- Berdin.

Matia kalerantz jo duzu. Zuk ere garai batean ez zenekien kalean bizitzea zer zen. Ez zenekien nola sufritzen zuten arrazoi desberdinengatik kalean amaitu zuten gizaki zikin eta zarpail haiek. Eta begira orain. Orain zu zara kalean zaudena. Orain bai, bizi duzu arlote horiek bizitzen zutena, eta dutena. Orain bai, zurea bihurtu da bizimodu latz hori. Aukerarik gabe. Halabeharrez etorri zitzaizun. Patuak zuretzat gordeta zeukan sorpresa gordina. Nik aukeratu al dut kalean bizitzea? Galdera hori egiten duenak ez daki zer den gorotzean murgilduta egotea. Galdera hori egiten duenarentzat eska-leak zientzia fikzioa gara. Aparteko mundu bat. Mendebaldeko bizimodu zibilizatuarekin inolako loturarik ez duen xelebrikeria kapritxosoa. Eta horrela nahi dute. Ez gaituzte ikusi nahi. Ez dute errealitate hau onartu nahi. Ezin gaituzte begietara begiratu.

Matia kaleko kontainer berde baten tapa zabaldu, eta burua sartu duzu. Kontxo. Txano bat dago. Zulotxo bat dauka, baina belarriak hotzetik babesteko erabilgarria izango zaizu. Jantzi duzu. Txiki xamarra, baina tira.

Tanta batzuk erortzen hasi dira. Kaguen sos! Zerura begiratu duzu. Ez dago oso iluna. Ez du asko bustiko. Espero. Bada ezpada urratsak bizkortu dituzu Benta Berriko arkupeetara ahalik eta bizkorren iristeko. Hodei ilunak ez, zeruan ez. Baina, kontxo, denen ahotan dabi-

len krisi honek ekaitza dakar. Aterpen behintzat nabari da. *Navidades austeras* idatzi duten horiek agian ez, baina geroz eta jende gehiago dator bazkaltzera. Bikoteak eta guzti. Bi txanda egin behar izaten ditugu. Eta gauerako ez da opilik gelditzen. Goizeko hamaiketarako dena amaitu egiten da. Hain da handia goizean zehar gosaltzera datorren jende oldea. Horiek ere umezurtz utzi ditu gobernuak. Aspaldi. Gobernuak bankari eta enpresariak, bai, ongi saritzen ditu, ongi zaintzen ditu. Babes ederra ematen die. Dirulaguntza guztia beraientzat. Erraztasun guztiak nahi dutena egiteko. Amildegi bazterrean daudenei ordea, azken bultzadatxoa. Bultzadatxoa eta amildegi azpian babes sarerik jarri ez. Kolpea latza. Behin betikoa. Inor kolpeaz bertan gelditu gabe berrindartzen bada ere, nork igoko du gorainoko pareta bertikal latza? Goian ez da beso luzaturik, esku luzaturik igotzeko laguntza eskainiz. Erortzear dauden gajoak baino ez.

Jende askok biziko du egoera anker hau. Niri orain hiru urte egokitutako infernua. Eta gero nola hartu berriro trena? Ba al da bergizarteratzerik? Hitz ederra hori. Bergizarteratzea. Esanahirik ba al du ordea? Esanahi errealik diot. Ala huskeria da. Makillajea. Eskaintzen al zaigu aukerarik? Ezinezkoa da amildegian gora egitea. Ez digu uzten gizarte garatu honek. Europan ez gaitu inork nahi. Europa buru argi eta azkarren lurraldea bihurtu nahi dute. Irabazleen Europa. Eta galtzaileak? Baina ba al da galtzailerik Europan? Inork ikusten al ditu? Ez. Ikusezinak gara. Zakarretara bota gaituzte, eta San Markosen gaude. Kaio batzuk baino ez ditugu gainean.

Beste inork ez du gurera begiratzen. Zenbait metrotara sumatzen den kiratsa hutsak edonor aldentzen du.

Eguraldi iragarpena behintzat asmatu duzu. Bost tanta baino ez ditu bota. Igarlea ere bazaren, hori etorkizunak esango du. Bitartean muturra kontainer urdinean sartu duzu, irakurtzeko zerbaiten bila. Gustukoa duzu irakurtzea. Egunkariak, aldizkariak, liburuak. Ekonomia, politika, literatura. Koldo Mitxelenara joaten zarenean egunkari guztiak irakurtzen dituzu goitik behera. Hori benetan estimatzen duzu. Askotan besaulki eroso horietan, bertan dagoen goxotasunarekin, loak hartzen zaitu. Bestela ere edukiontzi urdinetan harribitxiak topatzen dituzu noizean behin. Gauza interesgarri asko botatzen ditu jendeak birziklatzera. Eta aukera hori ongi aprobetxatzen duzu zuk.

Ez duzu zorterik izan. Ganorazko ezer ez. Aurrera segitu duzu. Lorearantz. Aieteko mezetara iritsi behar duzu. Denbora badago. Gehiegi. Ezin gelditu baina, hotzak jango ez bazaitu. Aterpez aterpe zoaz. Arin. Euririk ez du ari, baina etxe azpitatik babestuago, goxoago zoazela iruditzen zaizu. Azkarregi zoaz baina. Denbora baina ausaz azkarrago. Hura geldirik dago, eta zu mugimendu etengabea. Oinez denbora jan nahian, baina hura atzean gelditu bada?

Zapatarira iritsi zarenean une batez gelditu zara. Nondik jo. Errepidea gurutzatu, eta burdinazko atetik sartu zara, aldapa gora segitzeko. Matia Fundazioa. Zaharren egoitza. Non gelditu zaie hauei denbora. Hauek beste ni

bat dira. Hemen daude ere. Zabortegian. Galtzaileak. Traba. Bizitzan denbora luzeen egin dutenak traba? Zure aita etorri zaizu gogora.

Etengabe errepikatzen zizkizun egiak. Zuretzat garai hartan gezurrak ziren haiek. Bai. Denborak erakutsi dizu aita zuzen zebilela. Bizitzaren zaplaztekoek esnatu zaituzte gaztetako loaldi erromantikotik. Ameskerietatik. Eta zaplaztekoak denborarekin jasotzen dira. Benetako belarrondokoak, adinean aurrera egitean jasotzen dira. Eta horiek dira benetan erakusten dutenak. Eta bizitzan esperientzia gehien izan dituztenak traba bihurtu ditugu. Zentzurik ba al dauka?

Hauek bai, hauek esna daude jada. Kristalaren ondoan daude gorpil aulkian. Begirada urrunean. Non? Begirada galdua. Zertan? Norbaiten zain? Zerbaiten zain? Leiho eta miradore guztietan dago bat edo beste. Jakingo al dute zer egun den gaur? Goxo daude. Baina barnea izoztuta. Ni, ordea, hotza kanpotik eta barrutik. Keinu bat egin diezu. Agurtzeko gogoa sartu zaizu, eta zuk eskua goratu. Ez zaituzte ikusi. Hauentzat ere ikusezina naiz. Begirada edukiontzietara joan zaizu. Bertan bota beharko zenuke zure burua. Hori da zure tokia. Zahar egoitza bateko zabortegia. Baztertuek baztertutakoa.

Edukiontzi urdinaren albo batean kartoizko zenbait kaxa ikusi dituzu. Denak igualak. Poliziak etxe susmagarrietatik dokumentazio arriskutsua ateratzeko erabiltzen dituzten modukoak. Kanpoan errotulagailu lodiz JOSE SANCHEZ idatzia dute. Kaxa bateko tapa ireki duzu. Paper eta koadernoak. Argazkiak, egunkari orriak... Bi-

hotza apur bat azkartu zaizu. Altxor bat aurkitu izan bazenu bezala sentitzen zara. Atzerantz begiratu duzu inor zelatan dabilkizun ikusteko. Ez. Ikusezina izaten jarraitzen duzu. Kasu honetan onerako, pentsatu duzu.

Kaxa barrukoa kuxkuxeatzen ari zarela, eskela bat etorri zaizu eskura. Jose Sanchez "Pelikano", 2008ko abenduaren 22an hil zen 82 urterekin elizako... Honi bai loteria tokatu. Matia Fundazioa. Azken urteak igarotzeko txokoa eskaini zion egoitzak jarritakoaz gain eskela gehiago ote zeuden bilatu duzu. Baina ez. Beste kaxetan ere ez. Eskela bakarra? Matiak jarrita? Honek, bai, bakarrik eman zituen azken urteak. Zenbat izango ote ziren?

Afrikako argazkiak ere badira. Ederrak batzuk. Gehienak irribarre beltzez beteak. Baina gizon zuri bat ere azaldu ohi da noizik behin. Sudurra galanta dauka zurikoteak. Egunkari orri zahar horiztatuak ere topatu dituzu. Elkarrizketa bat. Jose Sanchez. Misionero. Elkarrizketako argazkian azaltzen den gizon berbera da aurreko argazkietako zurikote sudur luzea.

Barrurago zer dagoen aurkitu nahian, eskuz altxa dituzu egunkari orriak. Karpeta berde bat etorri zaizu begitara. Kartulinazkoa. Eskutan hartu duzu, altxatzen zaren bitartean. Ireki eta orriak ikusi dituzu. Eskuz idatziak.

---

## 2

*Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak  
(Has 1, 31)*

Goiza patxadaz sortu zen, ohi legez. Eguzkia ekialdean hasi zen gorantz geldiunerik gabeko ibilbide zerutiarrean. Mugimendu etengabe baina harmoniatsuan.

Eguzkiaren bisitak iluntasuna argirantz baztertu, eta kilkerrek girotutako isiltasuna txorien txirri-txioek ordezkatu zuten. Itzalak ihesean zihoazen bidean topatzen zutena eraman nahiez bezala.

Mugimendu gutxi zebilen bestela inguruan. Zuhaitz eta landare lardenak. Besarka ezinezko enbor erraldoiak. Gainezka egiten zuten hosto berri berdeak adarretatik tiraka. Eguzki printzek goxatutako loreak esnatzen nonahi. Petaloak nagiak ateratzen bihotza eguratsera zabalduz, lurrin preziatuenak askatuz. Fruitu kolore guztietakoak. Tximeletak binaka goiz-goizeko osteratxoan.

Bailara lasaia zen. Kreaziotik ia bertan zetzana. Duin. Milaka urteetako bizitza zuten izaki apalak, bizitzan

bere lekua topatuta.

Atzeman ezinezko mugimendu naturalean.

Baso eta zelaietan barrena murgilduz gero orro eta oihu gehiago entzun zitezkeen egunak aurrera egin ahala, baina urmaelean ez. Urmaela bailarako txoko berezi-ena zen. Nekeak ahaztu eta indarrak berreskuratu nahi zuen orok bertara egiten zuen bisita.

Urak arima baretzen baitu, bizitza ematen.

Animalia desberdinen joan etorri lasaiak laguntzen zion eguzkiari bere bidaiari. Batzuk etorri beste batzuk joan. Urmaelean murgildu, freskatu, edan, garbitu, eta joan. Itzuli nor bere bizilekura. Txikitxoenen jolasek ere alaitzen zuten inguruko sinfonia koloretsua. Barre eta algarek musika ederra osatzen zuten uretan egiten zituzten txapladekin batera.

*Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ezarri zuen, landu eta zain zezan*

*(Has 2, 15)*

Baina, geldi-geldi egonda ere nork gelditu denbora? Niri hitz hauek idazten baizik ez zait iristen eternitatea. Irudimena besterik ez da, ordea. Amaitu bezain pronto, mugitu ezinik egonagatik, denborak gainditzen bainau. Nork mugitzen du nire barnea? Nork eman zion lehen bultzadatxoa unibertsoari?

*Baina ez jan dena ezagutzeko ahalmena ematen duen zuhaitzetik*

*(Has 2, 17a)*



Eguzkiak mendebaldetik ihes egin behar zuenean, agur egiten zion bailarari kolorea apurka ilunduz. Horia lehenengo, laranja gero, eta gorrixkarekin desagertzen zen. Bazirudien min ematen ziola agur esan beharrak, berriz ere elkar ikusiko ote zuten jakingo ez balu bezala. Ilun gelditzen zen bailara, ere, argi misteriotsu batek guztia urdinez tindatzen zuen arte. Ilargiak bere edertasuna urmaelean islatuta ikusi nahi zuen. Kezkatuta azaltzen zen batzuetan: “loditzen ari naiz, borobil-borobila jarriko naiz!”. Beste zenbaitetan aldiz aldarte onean: “zein ederki! dietak bere fruituak eman ditu, eta argaltzen ari naiz!”. Kezkak, ordea berriro harapatzen zuen: “desagertu egingo ote naiz? ezin meharrago nago!”. Baina ez, berriro loditzen hasten zen.

Egunero kezka batekin oheratzen zen ilargia ispiluan begiratu ondoren. Zergatik ez zen behingoz egonkortzen? Zergatik etengabeko aldaketa eta ezjakintasuna?

Eta halaxe zen. Kanpotik dena idilikoa, paradisiakoa, ezin ederragoa zirudienak, gerturatuz gero beti zeukan erpin zorrotzen bat. Egun batek bestea zekarren. Urmaelera joan etorriek, jolasek, bainuek, bakeak, koloreek eta lurrin goxoek hor zerraiten. Baina bakoitzak bere kezka zeramatzan. Eguzkiak, ilargiak, zuhaitzek, loreek... Mina eta poza txandakatuz zihoazen. Alaitasunaren ondoren, sufrimendua zetorren. Betetasunak hustasuna zekarren. Zentzua eta zentzugabetasuna eskutik zebiltzan. Ilberriak ilgora zekarren eta ilgorak ilbetea.

Orain ez hainbeste bailara nolakoa zen ikusteko parada eman dizuet. Ahaztua zeneukaten ezta? Oso erraz ahazten ditugu, bai, lehengo kontuak. Zuen arreta, ordea, barrurago eraman nahi dut. Gerturatu gaitezen gehi-  
go urmaelera, eta jar ditzagun begiak bailara osoan la-  
saien bizi den animalian. Ez da urmaelaren jabea, baina bertatik atera gabe bizi den gutxienetakoa da. Bertan du bizilekua. Eguna nahiz gaua, beti bertan. Apenas mugitzen da. Ezinbesteko duenean baino ez. Begiak ere gutxitan zabaltzen ditu, eta isiltasun sakonenean murgilduta egon ohi da normalean. Meditazio sakonenean. Bailara guztian iluminatutzat daukate.

Berak ematen dio urmaelari daukan xarma. Berak bihurtzen du urmaela erromes leku. Energia zentro nagusia bihurtu da. Bailarako animalientzat jakinduriaren eta barne bakearen eredia da, eta urmaelera gerturatzeko direnek belauniko ohoratzen dute, bere izena behin eta berriz murmuriatuz: Hipo, Hipo, Hipo...

Hipopotamoa lasai zegoen bere urmaelean belarritaraino murgilduta. Ez zuen beste egitekorik patxadan bustita egotea baino. Ongi blaituta, lasai. Eguzki izpien lehen printzek bizkarra goxatzen utzi, noizean behin mokadutxo bat hartu, eta segi egonean. Eguna hala joaten zitzaion. Bizimodu lasaia, edonork nahi lukeena.

Berak ordea, denok bezala, bazituen bere kezka. Dena ez zen ezin hobea. Bazeukan arazotxo bat hipopotamo hark ere. Urmaeleko ur maila ez zen urte guztian zehar

bere horretan mantentzen. Urtaro lehorrean ur mailak beherantz egiten zuen nabarmen. Ez zen beretzat garai erraza izaten hura. Garai horretan, urmaeleko gune sakonenen bila ibili behar izaten zuen. Ezin geldi, lasai, egon. Gainera, bilaketa mugimendu horrek ez zion beti sakonera nahikoa bermatzen.

Akituta amaitzen zuen urtaro lehorra. Esfortzu handiak eginda ere inoiz ez zitzaion sasoi hartan ura belarritaraino iristen Etzanda jarrita juxtu-juxtu bustitzen zitzaion ahotzarra. Baina zorionez euri garaia beti itzultzen zen, eta orduan bai gustura gure hipopotamoak.

Lehen euri zaparradak ziren gustukoak zituenak. Hasierakoak. Nekatuta eta lehorra, ur behar larrian, euri jaksek gorputz guztia bustitzen ziotela gozaten pasatzen zituen egunak. Pasatako behar haiek behintzat jasotzen zuten ondoren bere saria. Baina merezi al zuen garai lehor hori hala pasatzeak?

Euri garaiarekin ur maila bere onera etortzen zen, eta Hipoa berriro ere bere meditazio sakonetan murgiltzen zen. Begiak itxita. Ixiltasunean. Lasai etzanda. Eta noizean behin, zentzuen festa deskribaezina: zeruak eskaintzen zizkion dutxa paregabeak. Euria barra-barra aritzen zuenean izaten zuen gozamenik handiena.

Urteak halaxe joaten zitzaizkion Hipoari, egonean eta zeregin frankorik gabe. Halere kezka horrek behin eta berriro erasaten zion: merezi al du urtaro lehorra gabezia hauekin pasatzeak?

Kanpotik bestela ematen bazuen ere, ez zen alferrean egoten hipopotamoa. Buruari eragiten zion. Behin eta berriro. Geroz eta gehiago. Zer egin daiteke ur gabeziarik ez izateko? Urte guztian zehar ura barra-barra izateko?

Urte guztian zehar ur maila mantentzeko sistema bat pentsatzeari ekin zion, ziur baitzen moduren bat izango zela. Bere egitasmoak borobila izan behar zuen. Azken finean euri garaia urte guztira zabaltzea. Haatik hori ez zuen egingarri ikusten, beste norbaiten esku baitzegoen. Baina nolabait ur kopuru handi bat gorde eta egunero dutxa pare bat hartzea lortuko balu munduko Hipo zoriontsuena bilakatuko litzateke. Nola lortu egunero pare bat aldiz euri jasak sortzea? Nola lortu ura bere nahierara erabili ahal izatea?

Hipoa handia izanagatik ez zen tontoa, eta garunari ondo eragin ondoren ideia paregabe bat etorri zitzaion burura: lur azpian zulo handi-handi bat egingo zuen. Euri garaian zuloa bete egingo zen, eta gero urtaro lehorra iristean zulo hartan gordetako ura erabiliko zuen bere urmaeleko ur maila gorenean mantentzeko. Lehenengo gauza, beraz, lur azpian zulo handi bat egin eta metagailua bat eraikitzea izango zen. Bertan ura barra-barra metatuko zuen. Aurrerago bururatuko zitzaion metagailuko ura nola erabili. Urmaela betetzeko sistemaren bat asmatu beharko zuen, eta zergatik ez, baita dutxak hartzeko bideren bat ere.

Idea ezin hobea iruditu zitzaion, baina zailtasun nabarmenak zituen plana aurrera eramateko. Berak zulo-rik ezin zuen egin. Apenas mugi zitekeen. Gorpuzkera erraldoi lodikotea zuen. Urteetan geldirik egon izanak ere mugimendu mugatuak baino egiteko aukera ez zion ematen. Burua bai, ederki garatu zuen ekinaren ekinaz. Baina gorputza ahulduta zuen erabat. Beraz, burua eragiteari eman zion berriro ere, eta bailarako beste animalia batzuetan pentsatzen hasi zen. Langileak beharko zituen. Berak egin ezin zuena besteek egingo zioten. Zergatik ez? Ez al zen, bada, bailarako animaliarik jakintsu eta beneratuena? Horrek bidea emango zion nahi zuenari nahi zuena eskatzeko. Animaliak bere nahierara erabiltzeko aukera izango zuen.

Langile bila hasi zen. Bailara guztian lan eskaintzak zabaldu zituen, eta elkarrizketetarako egutegia ere antolatu zuen. Bakoitzak bere curriculumak ekarri behar zuen argazki eta guzti. Elkarrizketaz gain, test psikoteknikoak eta froga praktikoak ere eginarazi zituzkien aurkeztu ziren guztiei. Inurriak, kilkerak, untxiak, arratoiak... zuloak trebeenak elkarrizketatu zituen, eta duda askoren ondoren satorrak kontratatzea erabaki zuen. Beraiek zuloak egiten trebeenak ziren, eta ezkutuan lan egiten zuten. Hobe zen horrela, hala inork ez zuen jakingo han zertan zebiltzan. Gainera, bazuten beste abantaila bat ere satorrek: zuloak kanpo itsuak ziren. Kontrolagarriagoak beraz.

Bai, aukera hoberena egin zuen. Langile finak eta kontrolatuak. Gauzek bestela norabide okerra har dezate.

Ekin zioten, bada, satorrek lanari. Gelditu gabe aritzen ziren. Eskarmentu handiko langileak izanik zuloa martxa ederrean zihoan. Lana sasoi lehorrean ari ziren egiten, behin zuloa amaituta euriak beratu urez bete zezan. Hipoak zenbait estimazio egin zuen urmaela bere horretan mantentzeko beharko zuen ur kopuruari buruz. Hasi batean mila metro kubo beharko zituela kalkulatu zuen, baina bada ez bada, eta satorren lan eskerga eta azkarraz jabetuta, balio hori bikoiztea erabaki zuen. Beti hobe sobera izatea faltan gelditzea baino.

Satorrek ezin hobeto lan egin zuten. Euri garaia hasteko zela bukatu zuten zuloa. Hori bai, lehertuta amaitu zuten bidean gelditu ez ziren satorrak.

Hipoa, baina, irrikitan eta pozez beterik zegoen. Sasoi lehorra gogorra izan zen arren, berehala pasa zitzaion. Inoiz baina azkarrago. Bere plana aurrera zihoala ikusteak betetzen zuen, eta neke gutxiago nabari zuen nahiz eta ur asko ez izan. Inaugurazio bat egitea gustatuko litzaioke, baina bada ez bada, nahiago izan zuen lana isilean gordetzea. Hobe horrela.

Hasi ziren euri jakas, eta satorrek lur azalean utzitako zulotik ura sartzen hasi zen, hipopotamoak zeruko opariarekin gozatzen zuen bitartean. Lur azpiko zuloa ur metagailu bihurtzen hasi zen. Duda zeukan Hipoak zulozarrak urez betetzeko gai izango ote zen zerua. Ez zen ziur. Baina horrela ikasten da: froga egin eta emaitzak aztertuta.

Joan zen euri garaia, eta heldu zen Hipoak bere proiektuaren emaitza aztertzeko unea.

Bi indar sentitzen zituen bere baitan kontrako zentzuan bultzaka. Indar batek metagailu ahora bultzatzen zuen emaitza ikusteko irrika piztuaz. Besteak ordea beldur-rraren ziriaz zulatzen zuen, porrotaren mamuaz alden-  
du arazi. “Eta dena gaizki joan bada?”

Azkenean adorea hartu, eta zuloan sartu zuen muturra. Zenbait ipurtargiren laguntzaz lur azpiko metagailuko ikuskizunaz gozatu zuen. Ura zen. Urtaro lehorra mugitu gabe eta heze-heze egoten lagunduko zion ura. Metagailua ez zen goraino bete, baina ur asko zegoen barruan.

Urmaelaren ur maila jaisten zihoan heinean metagailuko urez betetzen joango zen hipopotamoa. Baina nola egin? Berak ezin zuen. Metagailuko zuloa txikia zen eta ura lur azpian zegoen. “Nola demontre aterako dut ura zulotik? Horretan lehenago pentsatu behar nuen... Orain ur guztia ustelduko zait zulo barrenean!”

Tristeziak hartu zuen Hipoa. Baina hala eta guztiz ere ez zuen etsi. Buruari eragiten atera behar zitzaion zerbait. Ideiaren bat etorriko zitzaion. Metagailuaren ideia halaxe etorri zitzaion. Begiak itxi zituen, bada, eta pentsatzeari ekin zion. Zulotik ura atera ahal izateko animalia txikia behar zuen izan. Baina txikia izanda, metagailura sartuta ez al zen itoko? Nola aterako ote zuen animaliatxo batek urmaela betetzeko behar zen ur andana? Zaila zegoen gauza.

Denbora aurrera zihoan, eta eguzkiak garaituak zituen

aspaldian hodei ilunak. Zeukan indar guztia erakusten zuen zeru oskarbian. Errege zen bertan. Jaun eta jabe. Urmaelaren ur maila ere hasi zen beherantz, eta Hipoaren kezka gorantz. Baina orduantxe ikusi zituen urmaelera gerturatu ziren animaliatzarrak. Bata besteari tronparekin ura botatzen ari ziren. “Kontxo! Zuloan sartzeko ez da zergatik animalia txiki bat izan behar. Tronpa bakarrik sartzearekin ura atera dezakete elefanteek!”

Berehala abiatu zen beraiengana, eta metagailuarena aipatu zien. Bertan ura zeukala urmaelaren ur maila goian mantentzeko. Ez zuela, haatik, nork ura bertatik aterako. Beretzat lan egiteko eskaintza egin zien, ez zirela damutuko. Ordainetan ura erabiltzen utziko ziela.

Elefante onkote horiek baiezko keinua egin zioten asko pentsatu gabe. Estimua handitan zeukaten Hipoa, eta bera laguntzeko eragozpenik ez zuten. Ohore antzeko bat ere bazen Hipoari laguntzea. Beti denak Hipoaren beharra sentitu izan zuten bailaran, eta orain, zeintzuk eta beraiek, elefanteek, jaso zuten Hipoaren laguntza eskaera bat. Egia esan pozik abiatu ziren metagailuko zuloa beraien tronpak zut, lanerako prest.

Sartu zuen lehen elefanteak tronpa zuloan barrena eta zurrupatu zuen ura. Tronpa atera, urmaelera abiatu eta han hustu zuen purrustada batekin metagailutik ekarri zuen ura. Hipoak eta beste elefanteek txalo artean hartu zuten ekintza, eta berehala hasi ziren gainerako elefanteak berak egin zuena errepikatzen. Eta bai, sis-



tema bazebilen. Urmaela betetzen hasi zen elefanteen lanari esker.

Honela urtaro lehorra aurrera zihoan, eta Hipoa beti uretan ongi murgilduta zegoen. Ura begietaraino. Lasai. Etzanda. Gustura, elefanteek lanean segitzen zuten bitartean.

Hilabete pare bat gelditzen zen sasoi lehorra amaitzeko elefante batek metagailuko azken tanta zurrupatu zuenean. Ordura arte urmaelaren maila mantentzea lortu zuten, baina azken bi hilabete horietan ezin izango zioten beherako joerari aurre egin. Zerbait mugitu beharko zen Hipoa, eta espero zuena ez zen beteko. Nahiz eta zuloa handia izan, euriz bildutako ura ez zen nahikoa urmaelaren ur maila mantentzeko. Ordura arte lasai eta patxadatsu zirudien Hipoak ere, kezka betarik bete zuen denbora uretan blai. Kezka horrexek berak mantentzen zuen Hipoa urduri: metatutako ura ez zela nahiko izango, eta euri garaia hasi aurretik zerbait asmatu beharko zuela ur gehiago biltzeko.

Elefantearen azken tanta tronpatik atera zenean etsipenak lagunduta agian, burura etorri zitzaion arazoari aurre egiteko bidea. Entzuna zien hegaztiei beste bailara batzuk bazirela inguruko mendietatik haratago, eta bailara haietan bazirela ere beste urmael batzuk. Eta ura beste urmael haietatik ekarriko balu? Nola ordea? Nola egin halako bide neketsua ur mordera garraiatuz? Nork lortuko du mendian gora eta behera egitea, oihanek eta menditzarrek beraiekin dakartzaten arrisku

guztiei aurre eginez?

Hala eta guztiz ere lan eskaintza zabaldu zuen bailaran zehar, eta animalia andana elkarrizketatu zuen. Guztiei egin beharreko lana deskribatzen zien, eta gehienek beraien ezintasunaz jabetuta alde egiten zuten. Ez ordea pelikanoak. Pelikanoa ausardiaz beteta zutitu egin zitzaion Hipoari:

- Nik dauzkadan hegoei esker ez dut mendian gora eta behera egin beharrik. Ez dut bide neketsu eta arrisku-  
tsurik egiteko premiarik. Zuzenean hegan hasi eta bide laburrena hartuaz edozein bailaratara iritsi naiteke eragozpenik gabe.

- Horretan arrazoia duzu, bai. Ez zitzaidan bururatu. Zahartzen ari naiz... Baina ura nola ekarriko duzu?

- Zertarako uste duzu daukadala moko zabal hau? Ur dezente sartzen zaigu. Pelikano guztiak deitzen badi-  
tut erraz molda gaitzke beste urmaeletako ura hona ekartzen.

Idea ona iruditu zitzaion Hipoari, eta halaxe adostu zuen pelikanoarekin. Beraiek arduratuko ziren beste urmaeletako ura ekartzeaz eta metagailua betetzeaz.

Abiatu ziren lehen pelikanoak inguruko bailaretara, eta urmael batera iristean bertan hipopotamo bat zegoela konturatu ziren. "Kontxo! Eta orain zer?" Berandu zen atzera egiteko. Pelikanoak uretan ziren jada, eta hipoak

ikusi zituen, beraienganantz zetorren eta. “Glub!”

- Egun on pelikano jaun andereak.

- Egun on, bai.

- Nondik zatozte? Ez zaituztet inoiz hemen ikusi.

- Uff! Urrutitik jauna. Oso urrutitik. Neka-neka eginak gatoz. Ez al zaigu nabari?

- Egia esan itxura ederra duzue, baina nekea batzuetan barnean baino ez da igartzen.

- Bai hori da... Ur pixka bat hartzera etorri gara asko inporta ez bazaizu. Behar larrian gara eta.

- Hartu, hartu. Ur hau ez da nirea, bailarakoa baizik. Nik, gainera, ez pentsa ur askorik behar dudarik. Nahikoa dut apur bat azala etengabe hezea izateko. Hori bai, azala lehortzen bazait nireak egin du. Baina ez dago hori gertatzeko arriskurik. Beraz, har ezazue lasai.

- Mila esker!

Hartu zuten ura mokoan eta nagusiaren metagailura eramaten hasi ziren bidaia ugari eginez. Fin ibili ziren pelikanoak, satorrak bere garaian ibili ziren moduan. Urtaro lehorra iritsi zenerako Hipoak goraino beteta zeukan bere metagailua, eta probatzeko parada izango zuen ur-maila jaisten hastean.

Utzi zion, bada, euria egiteari urtero legez, eta apurka hasi zen ura Hipoaren belarritik behera jaisten. Garaia zen putzuan metatutako ura baliatzeko. Deitu zituen elefanteak, eta urmaela betetzeri ekiteko eskatu zien.

Elefanteak oso esanekoak izanda, bete zuten Hipoaren eskaera. Honela ur maila apur bat jaisten zen heinean,

elefanteek ura metagailutik hartu eta urmaela betetzen zuten.

Urtaro lehor dezentekoa pasa zuen Hipoak bigarren hartan. Ur maila bere horretan mantentzea lortu zuen, eta ez zen mugitu behar izan gorputz guztia bustita izateko. Metagailua guztiz betea izateak bermatu zuen ura urtaro lehor osoan zehar.

Pozik zegoen Hipoa. Buruan eraiki zuen proiektua errealitate bihurtu zen. Honek erakutsi zion burua erabiliz ideia onak izan eta gauzatu zitezkeela. Ordura arte sekula horrelakorik egin gabea zen, baina behin emaitza onak lortuta ez zegoen ezer geldituko zuenik.

Jakina, ondo pasa zuen Hipoak sasoi lehorra. Baina, buruan kezka izaten jarraitzen zuen. Nola ez. Sasoi lehor guztian ez zuen dutxa bat bakarrik hartzeko parada izan. Behin urmaelaren ur maila mantentzea lortuta, zergatik ez zituen, bada, dutxa ederrak ere sortuko bere gozamenerako?

Lan erraza zen hura. Metagailua handitu eta inguruko bailaretatik ur gehiago ekartzea nahikoa zen egunero dutxa bat hartu ahal izateko. Ur gehiago metatu eta kito. Bai horixe, lur azpiko zuloa handituko zioten satorrek gustura asko. Pelikanoek berriz esfortzu handiagoa egingo zuten ur gehiago ekartzeko. Oso langile finak ziren guztiak, eta ziur zen bere egitasmoa aurrera aterako zela.

Halaxe izan zen. Satorrek eta pelikanoek ekin zioten lan gehiago egiteari. Baita elefanteek ere. Antolakuntza guztia ezin hobeto joan zen eta Hipoaren proiektuak aurrera egin zuen.

Hasieran, hipoak egunean dutxa bakarra hartzen zuen urtaro lehorrean, baina gauza ondo zihoala ikusita dutxa kopuruak handitzen hasi zen, bere instalazioak eta lan antolaketa handituz eta egokituz zihoan heinean.

Zer gozamina bihurtu zen bizia Hipoaren instalazioari esker. Egunero urmaelean lasai eta patxadaz egoteaz gain, dutxa ederrak hartzen zituen goizean, eguerdian eta arratsean Hipoak.

Hipoa eta bere sistemaren fama zabaltzen joan zen inguruan eta pixkana animaliak urmaelera gerturatuz joan ziren. Ezin zuten sinetsi han ikusten zutena.

- Bai argia dela Hipoa! Begira zer burutazio izan dituen, eta nolako instalazioa sortu duen. Nor biziko bera bezain ongi!

Animalia asko gerturatzen zirela ikusita ideia berri bat etorri zitzaion Hipoari. "Zergatik ez zabaldu nire sistema hau beste animaliei? Niretzat lan egitearen truke utziko diet urmaelean sartzen eta noizean behin dutxa bat hartzen. Batzuk janaria ekarriko didate, beste batzuk masajea egingo didate, beste batzuk kantatu egingo didate... Joño, ez nuen uste are gehiago nire bizimodua hobe zitekeenik!"

Jakina, urmaelean erabiltzaile gehiago izateko ur gehiago metatu beharko zuen lur azpiko metagailuan. Jende gehiago kontratatu beharko zuen. Obra erraldoi bat egin behar. Besteentzat urmaelaren zerbitzuak zabaltzeko ideiarekin batera, ur-jolastoki bat eraikitzea otu zitzaion. Toboganak, olatu artifizialak, rafting-a, urpekaritza, jakuzziak... Taberna, jatetxe eta diskotekak ere jarriko zituen. Bere ametsetako gunea sortuko zuen, bai jauna! "Ez dago ezer geldituko nauenik."

Bere ideien berri eman nahi zien bere langile zahar eta berriei. Beraientzat eraikiko zuen paradisia ezagutaraziko zien, denei hortzak urtzen jartzeko. "Baina hori lortzeko gogor lan egin beharko dute guzti-guztiek. Lan egunez. Lan gauzez. Lan astean zehar, eta lan asteburutan."

- Ez al du merezi lagun maiteak?

- Baaaaaaaiiii- oihukatu zuten animalia guztiek aho batez.

Inoiz ez da halako mugimendurik ikusi inon. Inurritegi bat zirudien Hipoaren urmael inguruak. Satorrak zuloa zabaltzen, pelikanoak inguruetako bailaretako urmaeletatik ura ekartzen, elefanteak metagailutik ura ateratzen...

Ezin hobeto zihoan dena. Guztiek zuten zeregina, eta obra aurrera zihoan gelditu gabe. Krokodiloak kontratatu zituen, isatsarekin olatuak sortzeko. Jirafak tobogan lana egiteko, igelak jakuzzian burbuilak egiteko, txori

desberdin mordoa bezeroei kantuan aritzeko...

Ezinezkoa zirudien; inoiz ametsik goxoenean imajinatutakoa errealitate bihurtzen ari zen.

— |

| —

— |

| —




---

### 3

Irakurtzen segi nahi, baina ezin duzu jarraitu. Izoztuak dituzu hatzak. Behatzak zer esan. Bizkarra minduta. Irakurtzeari uztekotan etengabe. Baina segi eta segi. Ezin dituzu hatzak mugitu ia. Beste leku bat topatu behar duzu.

Buruan ezer argirik izan gabe orriak karpetan sartu dituzu. Pena ematen dizu altxor hori guztia hor usteltzen uztea. Gizakiak usteltzen uzten dituztenen ondoan. Baina ezin dituzu kaxak hartu. Ez duzu nola eraman. Ez duzu non gordetik. Karpeta bai, eramango duzu. Baita egunkari zaharreko elkarrizketa ere. Argazkiren bat hartzeko tentazioa izan duzu ere. Eta eskela? Eta miatu gabe utzi dudak guztia? Han utziko duzu beste guztia. Zure bizitzan hainbat gauza utzi izan dituzun moduan.

Giroa hotza. Ezin kalean geldirik egon izoztuko ez bazara. Erlojua begiratu duzu. Goiz da oraindik. Nora joan naiteke? Bera-Berako kutxazain automatikoa etorri zaitzu gogora. Behin baino gehiagotan zara bertan lo egin da. Lehen langilea iristean agurtu egiten zaitu, iristen lehena zarela esaten dizu azkenaldian. Hasieran ez. Hasieran saihestu egiten zintuen. Zuk soldata



eskatzen diozu, gaueko segurtasun lanak egiteagatik. Ia beti ematen dizu zerbait gosaltzera joateko. Bada jende ona inguru honetan.

Askotan kutxazainak atea itxita izan ohi duela oroitu duzu. Ez. Itxia egoten da. Txartel bat beharko nuke. Ez zaizu beste ezer bururatzen ordea. Zorte apur batekin atea zabalik egongo da... Harantz abiatu zara, beraz, baina ez denborari ihesi. Irrika txiki bat piztu dizu zaharren egoitzako hondakinetan aurkitutakoak. Burua goratuago daramazu. Zuzenago zabilta orain karpeta eskuan duzula. Ikasle itxura hartzen diozu zure buruari.

Pena ematen dizu betaurrekoak eskura ez izateak. Aterpen utzi dituzu. Zure poltsan. Zure jabego guztiarekin. Bai. Poltsa batean sartzen zaizu dena. Daukazun guztia. Machado etorri zaizu gogora. *Ligero de equipaje*. Eta orduan aniaz gogoratu zara. Alabaz. Horiek ez zaizkizu poltsan sartzen. Zoritxarrez. Poltsa guztia hustuko zenuke beraiek barruan sartu ahal izateko. Berreskuratuko al ditut inoiz? Dena hondatu dut.

Lugaritz tren geltokitik gora segitu duzu, ibilera motelduta. Makurtuago zoaz. Gutxi iraun dizu tentetasunak. Tentetasunak. Ikasle itxura karpetatxoarekin? Nire itxura nazkagarri honekin! Karpeta bota duzu. Beharantz begira garai batean trenbidea bertan zegoela oroitu duzu. Bertara botako zenuke zure burua. Baina horretarako ere zailtasunak jartzen dituzte. Orain lur azpitik doa trenea... Baina hortik bertatik ateratzen da.

Geltokiaren gaineko terrazarantz jo duzu. Hara iritsita, besoak barandan bermatu eta trenbidean lotu dituzu begiak. Jauzi bat baino ez da. Jauzi bat eta kito. Tren bat datorrenean. Ezinezkoa. Geltokia bertan dago. Trenak ez du abiada nahiko eramango. Ez. Ezinezkoa.

Barandatik urrutiratu eta zenbait urrats eman ondoren makurtu egin zara. Karpeta jasotzeko. Ipuinarekin segitu nahi duzu. Itsatsita gelditu zaizkion belartxoak eskuaz kendu, eta berokiaren kontra igurtzi duzu lehertzeko. Ez duzu gauza handirik lortu. Karpetak zure itxura hartu du. Baldarra.

Pausoa azkartu duzu, kutxazainera ahal bezain azkar iristeko. Irekita egongo ahal da!

Ez duzu ez espaloi, ez zebrabide, ez biribilgunerik errespetatu. Ahal izan duzun biderik zuzenena egin duzu. Ez dabil inor. Ez autorik. Ez oinezkorik. Ez da arriskurik. Izoztua gelditzea besterik.

Hockey zelaira iristean ezkerrera egin duzu, eta aurre-rago eskuinera. Aldapan gora. Taberna atzean utzita heldu zara kutxazainera. Arnasestuka. Eskua patrikatik atera eta atea bultzatu duzu. Itxita. Kaka zaharra! Ostikotxo bat eman diozu ateari. Kristalean. Berriz saiatu zara. Oraingoan heldulekutik tira egin duzu. Klak. Beti berdina gertatzen zait! Tira denean bultza, eta bultza denean tira. Murphy. Irri txikiarekin sartu zara barrura. Goxotasunera. Makinen zarata isilera.

Non eseri begiratzan hasi zara. Hor ez. Lurra hotza egongo da. Kartoi batzuk edo izango banitu. Karpeta kutxazain baten gainean utzi eta kanpora. Parkingaren ondoan dauden edukiontzietara gerturatu zara. Han beti aurki daitezke kartoiak. Tapa ireki eta bai. Hartu dituzu pare bat eta Kutxara sartu zara. Lurrean ondo kokatu dituzu kartoiak. Makina eta pertsiana artean. Makinak epeltasuna igortzen du. Uhin magnetikoak berdin zaizkizu. Zauden baino okerrago ez zaituzte utziko. Karpeta hartu eta eseri egin zara. Txanoa jakaren patrikan gorde duzu.

— |

| —

— |

| —

## 4

Halako batean pelikanoen buruak Hipoarekin hitz egiteko hitzordua eskatu zuen. Hain zegoen okupatua Hipoa dutxak, bainuak eta masajeak jasotzen, bere eguna antolatzeko idazkari bat kontratatu zuela.

- Etor zaitez datorren hilabetean - idazkariak.
- Ezin du izan!- erantzun zion pelikanoen buruak- larria da oso Hipoari kontatu behar diodana. Ezin dut hilabete itxaron!
- Lasaitu zaitez mesedez. Nik esanak baino ez ditut betetzen. Gauza oso larria bada saia naiteke Hipoarekin hitz egiten.
- Bai, mesedez.
- Ez dizut ezer ziurtatu nahi, oso baitabil lanpetua. Agenda berak ere ez du bere konpromisoak jasotzeko adina ematen. Hitz egingo dut berekin, ea zer dioen.

Idazkaria xaloki altxatu zen mahaitik eta goxotasunez Hipoaren bulegoko egurrezko ate ezin ederragorantz abiatu zen. Hara iritsita, bere esku aratzekin kax-kax egin zuen.

- Nor ari da Hipoaren arreta behar den gauzetatik aldentzen?

- Hipo jauna. Ni naiz, Gazela.

- Ah! Lehenago esan neska! Zer berri? - burua uretan sartu zuen berriro goxo-goxo segitzeko. Bainuontzian aparra baizik ez zen nabarmentzen, aparra barra-barra. Belarriak juxtu-juxtu atzeman zitezkeen: bi kakalardo elurretan. Nahita utzi zituen kanpoan idazkariak esan behar ziona entzuteko.

- Jauna, pelikano nagusia larrituta dabil. Zerbait oso garrantzitsua du zuri esateko, eta ezin du hilabete itxaron dioenez. Ez dakit zer izango den, baina ez dut inoiz horrela ikusi.

- Zer izango du hegaztitzar horrek! Zerbait gehiago eskatu nahiko dit ala? Dena eman diot. Lehen ez zen ezer. Orain pelikanoen nagusi egin dut. Bulego bat eman diot, baita idazkari eta txoferra ere. Zer gehiago nahi du ba? En fin. Beteranoenak dira txarrenak... esaiozu sartzeko mesedez, eta ekarri albornoza.

Sartu zen, bada, pelikano nagusia idazkariaren baime-na jaso ondoren. Aurpegi serioa zekarren kezka jota, baina Hipoak ez zuen nabaritu, berean murgildurik pasatzen baitzuen eguna (eta gaua).

- Zer da? Hobe duzu ergelkeria batekin ez bazatoz, bilera garrantzitsu bat etenarazi baitidazu. Bota azkar!

- Barka jauna, baina inguruko bailaretako urmaelak urik gabe gelditzen ari dira. Orain arte bertako hipoek ez digute ura hartzeko eragozpenik jarri baina honezkero litrotxo batzuk baino ez zaizkie gelditzen. Urtaro lehorrean juxtu-juxtu lortzen dute azala hezea mantentzea, eta badakizu zuk azala lehortzen bazaie bertan



hilko direla gaixoak.

- Ziur al zaude? Ez dute, bada, ur mordoa lur azpian gordeta izango ezta?

- Zer diozu jauna?

- Seguru ziria sartu nahi digutela guk baino ur gehiago biltzeko. Badakizu hau lehiaketa bat dela, indartsuenak baino ez du irauten.

- Ez dut uste jauna hauek lehiaketan dabilzanik gurekin. Nahikoa lan daukate azala heze mantentzeko, lur azpiko zuloak bezalako kontu metafisikoetaz pentsatzeko. Beraien lehia momentu honetan heriotzaren kontrakoa da.

- Beraz, ur gabe gelditzen ari gara...Eta urrutirago ba al daude urmael edo putzu gehiago?

- Ez dakigu jauna. Gu harago ezin gara joan. Ez dugu gehiago hegaleko indar ez kemenik. Horretarako beste hegazti ahaltsuagoak kontratatu beharko dituzu.

- Ondo da. Mila esker. Zuhur ibili zara. Deitu usoen buruari. Ur bilaketa bat abiatuko dugu.

Eta halaxe egin zuten. Lau uso talde abiatu ziren inguruko bailaretatik haratago. Talde bat iparraldera, bestea ekialdera, hirugarrena hegoaldera eta azkena mendebaldera. Zeru guztia zeharkatu zuten alde bate-tik bestera. Eta itzuli ziren Hipoaren urmaelera. Hipoa eta bere inguruko agintari taldea zain zituzten, bertako langile eta animalia guztiekin batera. Guztiak irrikitan zeuden. Zerbait topatuko al zuten? Ur gehiagorik egongo al zen inon? Bailarak garatzen jarraitu al izango zuen?

Txalo zaparrada batek hartu zituen uso esploratzaileak.

Ez ziren guztiak itzuli, ezta gutxiagorik ere. Asko bidean gelditu ziren nekeak, gaixotasunak eta bestek jota. Eta iritsi zirenek itxura kaskarra zuten.

Jauregi kanpoan agintari eta usoen arteko agurraren argazkiak atera ostean bilera gelan sartu ziren. Iritsi zen egia ezagutzeko garaia. Bilera horretan ezagutuko zenak urmaelaren etorkizuna baldintzatuko zuen ezbairik gabe.

Hipoak usoari eman zion hitza:

- Ea ba, zer topatu duzue han urrunean?
- Jauna, pelikanoek esan bezala inguruko bailaretako urmael guztiak minimoan daude. Bertatik ur apur bat gehiago kentzen badugu bertako hipoak hil egingo dira.
- Hori bagenekien. Pelikanoak beti izan dira fidatzekoak. Zuek berriak ekarri behar zenituzten eta ez zaharrak. Zertan ibili zarete bestela kanpoan hainbeste denbora gure kontura?
- Bai jauna, barkatu. Baina hain da txarra inguruko bailaretan topatu dugun egoera... Bertatik bertara ikusi arte ez gara jabetu larritasunaz...
- Harira esan dizuet! Berriak! ba al da urik inguruko urmaeletatik haratago? Jarraitu al dezakegu garatzen gure bailara honetan?
- Zeru eta lur guztiak zeharkatu ditugu jauna.

Ez pentsa erraza denik. Gutako asko bidean gelditu dira ikusi duzuen bezala, eta gu ere lur jota heldu gara. Hatik, merezi izan duela esan behar dizuet.

- Mereziz?
- Bai, putzu handi-handi bat topatu dugu..
- Auuuuuuuupaaa!!

Bileran sortu zen irrintzia bailara osoan entzun zen. Denak konturatu gabe bibaka eta txaloka zutitu eta besarkatzen hasi ziren. Bailarako jendea ere pozak hartu zuen, jauregitik iristen zen harrabotsak festa doinua baitzekarren.

Animoak lasaitu zirenean, eta bakoitzak berriro ere bere lekua hartu zuenean usoen buruak berearekin jarraitu ahal izan zuen, lasaitasun keinu bat eginez.

- Poztekoa da bai, baina badu gauza txar bat eman berri dudan notiziak.
- Esan, esan, ez gara beldurtuko edozer gauza gaintzeko gai gara eta adoretu zion Hipoak.
- Putzua oso-oso urrun dago. Guk geuk ere ezingo genuke hemendik bidaia osoa egin, hain da luzea bidaia. Asko jota putzu hartatik inguruko bailaretako urmeletaraino iritsi gitezke esfortzu handia eginez...
- Inguruko bailaretaraino iristerik izango zenuten orduan?
- Baietz uste dut. Putzu handitik pelikanoak joaten diren inguruko bailaretara iritsiko ginateke.
- Ba horrekin nahikoa da. Bertaraino joan eta hortik hona pelikanoak ekarriko dute ura orain arte bezala.
- Primeran, horrela guk lanean segituko dugu - oihukatu zuen pelikanoak pozez.
- Bai, Jauna - moztu zion usoak Hipoari begira - baina

pentsatu behar duzu gure mokoia oso txikia dela. Tanta pare bat baino ezingo genuke ekarri. Bilerako partehartzaile guztiek baieztapen keinu eginez Hipoarengan jarri zuten begirada.

- Niri begira zaudeten adiskide maiteak. Zergatik uste duzue garatu dela bailara hau? Nondik sortu da urmael inguruan daukagun ongizatea? Akaso zuen buru ñimiñoetatik atera al da? Ez. Bailara hau dena da, nik garuna erabiltzen dakidalako. Daukagun garapena, mugagabea jada urruneko putzu aurkitu berriari esker, nire kasko honetatik atera da.

Beraz, planak egiten eta pentsatzen niri utzi.

Ea uso txikitxoia, zure mokoia txikia dela diozu. Tanta pare bat baino ezingo zenituzkeela ekarri.

- Halaxe da, bai - erantzun zuen xaloki usoak.

- Eta milaka uso elkarrekin bazoazte, zenbat ur tanta ekarri ahal izango dituzue? Milaka eta milaka! Litroak eta litroak!!

Orroarekin batera aurpegia aldatu zitzaion Hipoari. Begiak zabal-zabal, adurra ahoan behera. Arrazoia galdu-ta zirudien, erotuta, aurrerago gorai patu burua joanda. Beldurtuta tutumulkatu zuen usoak:

- Baina horrek gure espeziearen akabera ekarriko du! Ezin dugu den-denak gau eta egun egunero lanean ibili. Nork zainduko ditu gure umeak. Noiz eta nola erreproduzituko gara lanean ibili behar badugu denok etengabe?

- Esan dizut zuk ez pentsatzeko - moztu zuen hotz Hi-

poak - Hori nire zeregina da. Konponduko dut arazotxo hori, ez arduratu. Kontuan izan behar duzu ur hori gabe bailara honetako garapena pikutara joan daitekeela. Zer nahi duzu gure ongizatearekin akabatu? Hemen ikusten eta disfrutatzen duzun guztia errealitate bihurtzeko lan asko egin dugu. Inoiz ez da halako garapenik izan mundu guztian. Eta garapen honek ezin du gelditu. Geldituz gero gureak egin du. Zenbait proiektu dauzkat buruan, eta horretarako ezinbestekoa da nire ur depositua handitzea, eta ur gehiago lortzea. Zure alferkeriagatik pikutara bota nahi al duzu hau guztia?

- Jauna baina ez al dugu nahikoa ur pilatua lur azpian?  
- ausartu zen usoa aurrean ezartzen ari zitzaion panorama beltzaren aurrean - Bost urterako ura badugula esango nuke nik. Ikusi beharko zenuke munduan zehar topatu dugun beharra! Guztiek amestuko lukete guk daukagun ur kopuruarekin! Eta zuk gehiago nahi duzula munduaren beste puntatik ur gehiago ekarri behar, gure espeziea bera arriskuan jarritz?

Hipoa ez zen atzean geldituko, nola bestela. Den denak isilik zeuden. Entzuten. Inoiz ez bezalako eztabaida sortu zen poza, besarkada eta alaitasun oihuen ostean. Lehen aldia halakorik gertatzen zela. Lehen aldia Hipoari norbaitek aurre egin ziola. Hipoak, baina, kontraerasoa prestatua zeukan.

- Urte txarren bat badator zer? Hurrengo urtetarako ura ziurtatu behar da, bestela izugarrizko arriskuan geundekete. Zer nahi duzu gurea ikusi dituzun beste urmael

lehorrak bezalako bihurtzea hau? Nola hala bizirauten duten hipo gaixo horietan bihurtu nahi al gaituzu? Egoista hutsa zara! Alperra eta egoista. Zuregatik beste guztien ongizatea hondoratu nahi duzu!

- Ez jauna, nik nioena zen... - Hipoaren eraso bateria guztiaren aurrean txikituta, akituta, garaituta, usoaren ahotsa itzaltzen joan zen. Hipoak ordea errukirik gabe azken kolpea eman zuen.

- Isilik! Nahikoa agoantatu behar izan dugu! Zuk eta zureek ez baduzue lan hori egin nahi, topatuko ditugu bailararen onerako lan egiteko prest egongo diren beste hegazti batzuk - mehatxu garbi eta ozena Hipoak botatkoa - Halaxe egingo dugu, bai. Zuek hemendik alde egin beharko duzue, eta kontatuko diguzu nola aterako zareten aurrera.

- Ez, ez, mesedez - belauniko jarri zitzaion usoa - Ez gaitzazu hemendik bidali, bestela gureak egin du! Lan hori egingo dugu jauna. Pentsatu gabe hitz egiten ari nintzen. Guk, guk egingo dugu lana. Ohorea izango da. Barka, mesedez.

Hipoari irribarrea atera zitzaion bisaian. Garaipen garbia lortu zuen. Irakaspen ezin hobea mahaiian eserita zeuden guztientzat. Onerako izan zen uso ziztrin horren ausarkeria. Bakoitza dagoen tokian zergatik dagoen azaltzeko irakaspen praktiko ezin argigarriagoa. Puztu egin zen Hipoa, poztu.

- Horrela, horrela. Ondo da. Barkatuta zaude - sorbaldan kolpetxo errukiorrak eman zizkion uso errenditu

berriari - Lana zuentzat da. Bihar bertan hasi. Ez dago denbora galtzerik.

Inoiz ez zen halako tentsiorik bizi bailara hartan. Lehen aldia zen norbait Hipoaren ideia bat ezbaian jartzen zuela. Hipoak buelta eman zion egoerari, bai. Garaile atera zen gainera, eta ausardia hori izan zuena txikituta utzi zuen.

Ordutik aurrera, ordea, gauzak ez ziren berdinak izango. Ezin izango zuten berdinak izan. Usoek, bai, lana egingo zuten, baina beraiek munduan zehar ezagutu zutena ezagututa ezingo zioten buruari bueltak emateari utzi. Ezta pelikanoek ere. Bailaratik kanpo gauzak oso larri zeuden. Beraien begi propioekin ikusi zuten. Eta hori txertatuta gelditu zitzairen, beraiek ere ez zekiten leku ezkutu batean. Ezkutuko arantza txertatu horrek noizean behin ziztada egingo zien, beraiek ere jakin gabe nola.

Gertatutakoak izango zuen bere azalpen ofiziala, jakina: usoa nekatua zegoen, eta egoera ere larria zen. Horrek guztiak erantzun txarrak, haserreak, eta pentsatu gabe oihukatzen hasiera darama bat. Baina Hipoa, Hipoa da. Bere buruari eta berak sortu sistemari esker bizi ziren bailara hartako biztanle guztiak. Denek beretzat egiten zuten lan. Sistemaren garapena moteltzen bazen denek galduko zuten: ur parkeak, jakuzziek, dutxek, tabernek, diskotekek, koroek, literatura tertuliek... dena murriztu beharko zen halabeharrez. Bailaran, metagailuaren sistemari esker ura gainezka zuten beti, baita urtaro lehorrean ere. Eta pelikanoek eta usoek ziotenez ingu-

ruko bailaretakoek nahiko zuketen horrelako paradisia.  
Han ur apur bat aurkitzeko lan eskergea egin behar omen  
zuten. Egun osoa ia horretan pasatzen ei zuten.

Ez, Hipoak arrazoia du. Sistemak aurrera jarraitu behar  
du, nola edo hala, kostuak kostu, nahiz eta ura mun-  
duko beste puntatik tantaka ekarri behar izan.

Hurrengo eguna garrantzitsua izango zen. Bezperako  
haserreak eta egon ezak ahazte aldera, eta ekingo zi-  
tzaion planari ahalik eta bultzada handiena ematearren,  
usoen eta pelikanoen irteerari jai itxura eman zitzaion.  
Bailara hartako sistemaren garapenerako pausu garran-  
tzitsu bat eman zen, ezinbestekoa, eta hori hala zela  
ikustarazi behar zitzaion gizarteari. Horretarako hitzal-  
di ponposo bat egingo zuen Hipoak, usoei eta pelika-  
noei eskerrak eman ez ekingo zioten lan berriarengatik.  
Sistemak estimu handian zituela eta izango zituela be-  
tirako. Atera aurretik ur parkean nahi adina gozatzeko  
eskaintza egingo zien, barra libre: nahi zituzten dutxak  
hartu, igerilekuan ibili, golf zelaietan zenbait kolpe  
eman... nahi zutena.

Herria inguruan izango zen Hipoaren hitzaldiari txaloka  
eta bibaka, pelikanoak eta usoak joatean beste guz-  
tiek ere egun batez nahi adina ur erabiltzeko baimena  
emango zuelako. Hipoaren lur azpiko metagailua pixka  
bat gehiago hustuko zen, baina laster ekarriko zuten ur  
gehiago.

Merezi zuen egun beteko festa handia ospatzeak.

Merezi zuten guztiek. Baita Hipoak ere.



Behetik hegazti andanaren hegaldia ikusteak puztu egi-  
ten zuen Hipoa. Harro zen sortzen ari zen gizarte pare-  
gabeaz. “Nolako batailoi ederra daukadan...”. Uso eta  
pelikanoek akrobazia batzuk egin eta begi bistatik alde  
egin zuten.

Horrela, bada, abiatu ziren pelikanoak eta usoak bere  
lana egitera. Txindata, tronboi eta algara artean. Gus-  
tua ematen zuen herri guztiaren eskerronak, eta Hipoak  
beraiengan jarri zuen konfiantzak.

Iritsi ziren hegazti langileak inguruko bailaretako ur-  
mael erdi lehorretara. Bertan pelikanoak geldituko zi-  
ren. Handik aurrera urruneko putzura usoak baino ez  
ziren joango, adostu bezala. Pelikanoak zain egongo zi-  
ren bertan. Uso bakoitzak tanta bana ekarriko zuen, eta  
pelikanoaren mokoan hustuko zituzten ehun bat txorik  
edo. Tanta hustu ondoren berriro buelta egin beharko  
zuten usoek ur gehiagoren bila. Pelikanoek bitartean  
Hipoaren metagailura eramango zuten ura.

┌

┌

└

└

---

## 5

*Jaunak esan zion Kaini:*

*- Non da anaia?*

*Kainek erantzun:*

*- Ez dakit. Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?*

*(Has 4,9)*

Tarte bat zeraman pelikanoak usoen zain zeregin ezean. Itzal batean eseri zen, eta ingurua miatzen eman zuen denbora. Hutsik zegoen ia inguru guztia. Oraindik go-goan zuen bertan izan zen lehen aldia. Hipo nagusiak ur bila bidalita iritsi zen hara zuela urte batzuk. Ingurua urez eta animaliaz beteta zegoen. Bertako hipoari ura eskatu, eta berak nahi adina hartzeko esan zion. Soberan zuela. Nahiko zuela larrua hezea izatearekin bizirik irauteko. “Konparatzekoa da hipo hura gure nagusiarekin” bere baitan pelikanoak “honek soberan zeukan eta gureak oraindik are gehiago behar du.”

“Non da baina hipo hura? Eskuzabaltasunez ura eman zigun hipopotamo lodikote, onkote hura non da? Eta inguruan zebilzkion animalia guztiak?”

“Jakina, inguru honetan behiala zegoen ura desagertu

da jada. Dena gure metagailuan al dago?” Lurra arrakalatua zegoen. Inoiz argazki eta disko portadetan ikusitako desertu itxura zuen behin urmaela izen hark. Lur zartatua. Pitzatua. Zerura ur eske deiadarka. Enbor ihartu bat han. Hezur multzo bat hemen. Haize finak dantzan daraman zuhaixka horaila hosta kraskariekin lurra erraztatuz. Hautsak bildu nahiz. “Zer da hau baina?” Aldapatxoa zegoen, eta pelikanoak maldan behera egin zuen. “Nonbait ura egongo da. Ezin izan du horrela desagertu goizetik gauera. Atzora arte ia, beti egon da ura hemen, eta hipoa bertan ikusten genuen. Geroz eta ur gutxiagorekin, bai, baina oraindik azala hezea izateko bazuen nahikoa. Inoiz ez zigun ura hartzen debekatu. Hau al da guk egin duguna? Desertu bihurtu dugu hipo gaixoaren bailara!”

Beherantz jarraitu zuen. Itxaropena ez zuen galdu nahi.

- Hipoooo! - deitu zuen- Hipoooo!! Non zaude?

Oihartzunak ere ez zion erantzun. Isiltasuna erabatekoa zen. Bere pausuek askatu lurraren zarata baino ez. Aurrera segitu zuen baina. Aurrera. Hipoa topatu behar zuen. Ura aurkitu behar zuen.

“Han urrunean ikusten den hura izango al da!” Korrika abiatu zen kezka eraginda. Ez zen lehen aldia pelikanoa han zebilela. Baina beti lanpetuta ibili izan zen, buruan bere betebeharra besterik ez zuela, erdi itsuan. Ura hartu eta eraman. Ura hartu eta eraman. Bere lanetik

aparte ez zuen ezer sumatzen. Ez zuen astirik urmael hartan beste mundutxo bat ere bazela pentsatzeko. Urmael hartan beste batzuk ere bizi zirela konturatzeko. Ez zituen ikusten. Berea baino ez zuen ikusten.

Orain ere ez zituen ikusten. Baina ez begiratzen ez zuelako, edo arduratuta ez zegoelako. Beste arrazoi bategatik baizik: joanak ziren denak. Hilik al ziren? Ikusitako hezurak garai bateko bertako biztanleenak ote ziren? Hipoarenak akaso? Egarriz ito al ziren denak? Izugarrizko ondoeza sumatu zuen bere baitan pelikanoak. Zorabiatzerainoko bertigoa eragin zion bere lanak bailara hartan izan zuen eraginaz jabetzeak. Ez zen sekula han geldirik zereginik gabe egon. Ez zuen inoiz ingurura begiratu. Ez zuen inoiz bertan bizi zirenaz pentsatzeko astirik hartu. Eta orain ere besteentzako denbora halabarrez hartu zuela konturatu zen. Usoen zain zegoelako, aspertuta.

Korrika abiatu zen, bada, hipoa zela suposatzen zuen bultorantz. Baina zangoek ez zioten erantzuten. Begietatik zerizkion malkoek begirada lausotzen zioten. Geroz eta urrunago ikusten zuen bultoa. Eztarria ere korapilatu egin zitzaion, eta urdaila irauli. Bihotzak sai-hetsetatik kanpora atera nahi zuen, ez zen eremu itxi horretan kabitzen. Garrasi isila galdu zitzaion zintzur-rean. Lurrera erori zen.

Ur tanta bat nabaritu zuen mokoan. Beste ur tanta bat kopetean. Hori freskotasuna. “Zer gertatu zait?” Ahal bezala begiak zabaldu zituen, baina dena lausotua ikusten zuen. Ez zuen begi aurrean ezer desberdintzen. Eguzkiak eraginda-edo dena iluna ikusten zuen. Itzal moduko bat.

- Lasai. Lasai - entzun zuen- Poliki. Har ezazu denbora. Intsolazio bat izan duzu.

Ahotsa ezaguna egiten zitzaion. Baina zertaz? Noizkoa zen hots familiar hori? Begiak itxi zituen errekueratze aldera. Ahotsean kontzentratu zen berriro ere, baina ez zuen asmatzea lortzen. Oraindik burua minduta zuen.

- Denboratxo bat zen hemendik ez zentozela - entzun zuen berriro.

Arrapaladan oroitzapenak etorri zitzaizkion gogora. Garai bateko irudi eta doinuak, bata bestearen atzetik. Baina ezin zituen kokatu.

- Normala da, - segitu zuen hotsak pelikanoaren burmuineko irakinaldiaz konturatzeke - ez dugu urik jada zuei eskaintzeko eta.

Hipoa! Hipoa zen! Bizirik zen! Orduan bai, burua argitu zitzaion. Eta burua argituta begi bat erdi zabaldu zuen, ikusteko gai ote zen egiaztatzeko. Eta bai. Itzal hura hipoa zen. Eguzkiaren aurrean jarri zitzaion argitasunak ez zezan pelikanoa itsutu. Beste begia zabaldua irri

bat egin zion hipoari.

- Kontxo! Badirudi zure onera etortzen ari zarela - esan zion hipoak goxotasunez.

- Bai, ez dakit zer gertatu zaidan... Eguzkia gori-gori, hau dena hain lehorra eta hilik ikusita...

- Bai...- hasperen egin zuen hipoak.

- Baina, nora joan dira denak?

- Ur bila, nora joango dira ba? Bakar bakarrik utzi naute. Geroz eta ur gutxiago daukagu, eta mugitu daitezkeenak ur gehiago dagoen bailararen batera egin dute ihesi. Hemen putzutxo bat baino ez da gelditzen. Nik ezin dut asko mugitu, zaila suertatzen baita urik topatzea putzutik kanpo, eta zaila egingo baitzait hemendik kanpo azala heze mantentzea. Esan nizuen azala lehortzen bazait hil egingo naizela.

- Orain ez, baina zergatik ez zara euri garaian saiatzen? Euri garaian abiatu zaitezke, bidean jarri behintzat. Urtaro horretan egunero euria egiten duenez, ez zaizu azala lehortuko.

-Egunero euria egin?? Hori garai batean bai. Baina azkenaldian geroz eta gutxiago egiten du. Jada ezin da ziurtatu euri geraien egunero euria egingo duenik.

- Ez da izango!

- Baina non bizi zara ba? Ez al zara konturatu ez duela garai batean bezain beste euri egiten azken urteetan?

- Bada, ez.

- Ez al zaizue urmaela geroz eta lehorrago gelditzen?

- Ez. Guk beti maila berean daukagu. Hipo nagusiak izan zuen ideia bati esker orain beti daukagu urmaela beteta. Gainera ur parke handi bat daukagu, eta hiru dutxa

ere hartzen ditugu egunean, eta ur jauzi artifizialak ere baditugu nahi duenarentzat...

Lotsak mokoia itxi zion. Aurrean zeukan hipoaren itxurak ez zuen beraien nagusiaren oparotasuna agertzen. Ez zen, ere, garai batean ezagutu zuen hipo hura. Betzulo nabariak zituen, haragi gutxi, bisaiak tristezia eta ezintasuna igortzen zuen. Hitz totalka bere burua zuritzen saiatu zen:

- Beno, bai... ez pentsa... guk ere geroz eta zailtasun handiagoak ditugu.

Hipoak buelta eman eta pelikanoa beherantz eraman zuen. Zailtasunez mugitzen zen, nahiz eta argala egon. Indar falta sumatzen zitzaion. Akidura puntu bat ere bai.

Pelikanoa bere ondoan jarri zen eta giroa alaitzeko zer esan pentsatzen hasi zen. Baina ez zitzaion ezer etortzen. Dena inozokeria iruditzen zitzaion. Ez zitzaion esateko ezer egokirik bururatzen.

Bidea isilik egin zuten.

Luzea egin zitzaion bidea pelikanoari. Ez zegoen isilik egotera ohituta. Hitzontzi bat zen. Beti gazta eta piperra jartzen zuen elkarrizketa orotan. Gai askotaz zekien, gauza asko ikusia zen bidaiari handia izanda. Beti zeukan zerbait esateko. Isiltasuna asperdurarekin erlazionatzen zuen, eta bere helburuetako bat zen besteen



asperdurarekin akabatzea, besteak beti alai eta irriz mantentzea. Zeregin polita benetan. Gustura sentitzen zen oheratzen zenean bere inguruan sortu zituen irri guztiak gogoan hartuz. Bai, isiltasuna ez da gauza ona. Hipo gaixoaren ondoan, ordea, mutu gelditu zen. Hipo horrek igortzen zion errespetuak gainditu egin zuen. Hor ez zegoen isiltasuna apurtzerik. Isiltasun hark asko zioen. Gehiegi. Eta horrek izua eragin zion. Isiltasun hark ez zuen asperdurarekin zerikusirik. Bizitza duin batekin baizik. Bizitza duin eta sufritu batekin. Min sakon bati aurre egiten zion hipopotamo hark bere eitearekin dena esaten zuen. Pelikanoak egindako txantxa guztiak elkarrekin batuta baino gehiago. Eta isiltasun hark, presentzia hark, begirada hark, bizitza bera jarri zion aurrez aurre. Irriz, txantxaz, inozokeriaz, eta hitz jarioz jantzita zeukan bizitzaren ikuspegia biluztu zion. Eraikita zeukan bizimodua eraitsi zion danbateko batez. Isilik.

- Hor da bailarako putzua - esan zion hipoak.

Deseroso zegoen pelikanoa. Etxera joan nahi zuen. Denetatik uneoro nahi adina daukaten bailaran egon nahi zuen di-da batean, begiak ixtearekin batera. Zertan zebilen infernu hartan? "Baina ikusi al duzu putzu ziztrin hori? Baina nola moldatzen ote da hipoa askatxo horretan? Eta gainera niri ura eman dit!"

- Ondo dago... - atera zitzaion pelikanoari.

- Beno, hobea izan zen garai batean. Baina oraingoz azala hezea izateko nahikoa daukat. Gertatzen dena da urtez urte ur maila jaisten ari dela. Geroz eta euri gu-

txiago egiten du. Denbora luzean euri tantarik erortzen ez bada, nireak egin du. Dagoeneko bakarrik nago, baina honek horrela segitzen badu, bakarrik geldituko dena bailara hau izango da.

Bat-batean dena argi ikusi zuen pelikanoak. Nola ez zitzaidan ba bururatu lehenago! Bere bailaran ur mordoa zuten. Hipo nagusiak metagailuan ur pila zeukan gordeta. "Hipoa den eskuzabalarekin, hemengo hipoaren egoera larriaren berri emango diot, eta nahi adina ur ekartzen utziko dit. Horrela urmaela beteko diogu hipoari eta agian animalia batzuk itzuliko dira berarekin egotera. Hala ez dute lehortearen beldurrarekin bizi beharko!"

- Soluzio bat daukat zuretzat eta bailara honentzat - atera zitzaien ozen pelikanoari. Puztuta zegoen bat-batean - Nik eta nire kideek ura ekarriko dizugu gure bailaratik. Urmael hau beteko dugu, eta horrela bizitza itzuliko da bailara honetara.

- Benetan? Baina ez al zarete zuek ezer gabe geldituko? Nik ez dut nahi guregatik zuek ur eskasian gelditzerik.

- Lasai, lasai. Guk esan dizudan bezala pila bat daukagu. Gure Hipo nagusiak sistema bikain bat garatu du, eta urte pilarako ura metatua daukagu lur azpian. Ur hori Hipoarena da noski, berak sortu baitu sistema. Baina zure egoera larria kontatuko diot, eta oso bihozbera denez, ziur naiz soberan daukan horretatik eman go dizula zuri mordoxka bat.

- Baina, nolako eskuzabalak zareten. Ez dakit nola eskertu. Ez daukat ezer eskaintzeko. Ur pixka bat ez baduzu nahi...

- Lasai motel. Eskertuko diguzu beste noizbait. Aurre-  
rago. Gauzak hobe doazkizunean. Ni orain misio berezi  
batean nago. Usoen zain. Hauek iristen direnean nire  
bailarara joango naiz, eta han Hipoarekin hitz egingo  
dut honetaz guztiaz. Berri onekin itzuliko naiz. Egon se-  
guru. Begira han datoz lehen usoak, beraiengana noa.  
Laster arte!

- Berdin!

Pelikanoa korrika abiatu zen usoekin geldituta zegoen  
gunerantz. Hantxe zetozen abiada bizian milaka uso.  
Milaka tanta.

Lurreratzen hasi ziren. Lurrean usoen zain zeuden pe-  
likanoek mokoak zabalik zituzten jada garraiatu behar  
zituzten ur tantak biltzeko. Usoak txandaka bakoitza  
bere tanta pelikanoren mokoan bota eta gelditu gabe  
berriro abiatzen ziren ur gehiagoren bila. Hori zen egin  
behar zuten lana. Etengabe. Gelditu gabe. Pelikano  
bakoitzaren mokoan mila tanta inguru sar zitezkeen.  
Mokoa usoek betetzen zietenean, pelikanoak ziren  
abiatzen zirenak.

Hauek ziren urruneko urmael handitik zetozen lehen  
ur tantak. Horrek eraginda zegoen pelikano multzo  
bat mokoak betetzearen zain hipo gaixoaren bailaran,  
baina berehala lortu zen denak ongi olioztatutako lan  
kate bat bezala aritzea. Etengabe zebiltzan usoak joan  
etorrian urruneko putzu handitik inguruko bailaretako  
urmaeletara. Eta pelikanoak joan etorrian inguruko ur-  
maeletatik beraien urmaelera.

Lehen pelikanoak bailarara iritsi zirenean Hipoa zeukaten zain. Urruneko lehen ur mokokada metagailura sartzeko inaugurazio ekitaldia merezi zuen. Lehen mokokada harekin abian jarri zen Hipoaren azken ideia-  
ren gauzatzea. Metagailua elikatzen jarraitu ahal izango zuten. Inauguraziorako bildu ziren herritar eta kazetariak txaloka hartu zuten lehen mokokada ura.

Inaugurazioa amaituta etengabe iristen ziren pelikanoak urarekin. Tximuak jarri ziren pelikanoen lurreratze eta aireratzeak kontrolatzen ostruken laguntzarekin. Horrelako zirkulazioa ederki antolatzea zen asmoa, anabasarik sortu ez zedin. Azeriak metagailuaren betetzea erregulatzen zuen. Eta satorrek lurlean zuloa handitzen jarraitu behar zuten etengabe, ur gehiago kabituko bazen. Untxien laguntza ere lortu zuten sator nahikoak ez zeudelako jada metagailuaren handitze lanekin aurreikusi moduan segitzeko.

Hipoa bailarako kontseiluarekin bildu zen ur bilketa berriaren berri emateko. Txalo zaparrada amaigabea jaso zuen. Igartzen zitzaion gustura zegoela, baina noizbait gelditu behar ziren eskerronezko zaplada haiek. Keinu bat egin zuen eskuarekin, baina ez zen nahikoa izan. Bigarrenean hasi ziren isiltzen, apurka-apurka.

Bilera gela isiltasunak bete zuenean, hipoaren txanda iritsi zen:

- Jaun-andreak. Pozez beteta jakinarazi nahi dizuet,

urruneko uraren bilketaren hasiera hau uste baino azkarragoa eta oparagoa ari dela suertatzen. Urte baten buruan, martxa honetan jarraitzen badugu %25 gehiago ur izango dugu metatua.

Txaloak entzun ziren berriro.

- Horrek esan nahi du gure ongizatea hobetzen jarraituko dugula. Herritarrei ur zerbitzu hobe eta ugariagoa eskaini ahal izango diegula, eta euria egin zein ez, egu-nero lau dutxa izateko aukera izango dugula bailarako biztanleok!

Txalo gehiago. Baina txaloen artean esku bat altxatu zen. Herabe. Ez zen ikusten ia, hain zen ozena txalo erauntsia. Hipoak ere ez zuen ikusten begiak beretzat baino ez baitzituen, eta une gozo hartaz gozatzeko begiak ixtea gogoko izaten zuelako. Baina kontseilukideen txaloak marmarrek gailendu zituzten altxatuta zegoen eskuaren ikusmirak eraginda.

Bilera gela apaindu zuen marmar horrek ekarri zuen Hipo handia bere onera. Ez zegoen txaloak ez ziren beste ezertara ohitua.

- Zerbait gehitu nahi al duzu pelikano jauna? - atera zitzaion harrituta.

- Bai jaun txit goren hori. Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizut gure bailarara horrelako garapena ekarri duzulako, eta bereziki zeuden zailtasunen gainetik, metagailua gehiago betetzea lortzen ari zarelako. Nik ere ez nuen argi ikusten hartu genuen bidea. Baina orain gauzak nola dabiltzan ikusita onartu behar dut as-

matu duzula.

Bai, bai, bai entzun zen bilera gelan zehar.

- Eskerrak eman nahi dizkizut ere garapen hau guztia gugan pentsatuta egin duzulako. Zeure buruan baino pentsatuko ez bazenu ez zinateke bailararen garapenaz arduratuko. Zurera joango zinateke eta kito. Beste guztiak bazterrean utziko gintuzkezun.

Bai, bai, bai...

- Zure eskuzabaltasuna ezagututa eskaeratxo bat egin nahi nizuke...

Ordura arte egunsentia bezain argi zegoen bisaia ilundu egin zitzaion Hipoari. Nabaria zen eskaerak jasotzera ohitugabea zela. Eskaerak eta aginduak berak ematen zituen. Horregatik zihoan guztia hain ederki.

- Zerbait gehiago nahi duzu ba? - atera zitzaion.

- Ez, ez... ez gaizki pentsa. Ez dizut niretzat ezer eskatu nahi. Inguruko bailarako hipoarentzako baizik.

- Zer dauka ba hipo horrek?

- Bere urmaela lehortzen ari da. Putzu txikitxo bat baino ez zaio gelditzen. Azala hezea mantentzeko ura dauka juxtu-juxtu. Berekin bizi ziren animalia guztiek ihes egin dute ur eskasiagatik.

- Ja! Zertan pentsatzen ibili da orain arte ba? Alferrontzi halakoa! Gu ere ezer egin gabe egon izan bagina arazotan ibiliko ginатеke, baina begira nola gauden.

Hau dena lanari esker lortu dugu. Kopeta ederra behar da gero bizitza guztia alferrean eman eta orain beste batzuei laguntza eskatzeko!

Bai, bai, bai...

- Hipoak ez du ezer eskatu - saiatu zen pelikanoa -. Dioenez oraingoz ez du ezer gehiago behar, baina beldur da lehorteren bat etorri gero ur gabe geldituko dela. Esaten duenez geroz eta gutxiago egiten du euria.

- Geroz eta euri gutxiago egiten duela?

- Hori dio berak. Euri garaian ez omen du egunero egiten lehen bezala. Geroz eta euri gutxiago egiten duela. Eta esaten du horrela jarraituz gero euria egiteari utziko diola guztiz.

- Alarmista alaena! Euria egiteari utziko diola? Baina non eta noiz ikusi da hori? Zuetako norbaitek ezagutu al du inoiz euririk gabeko garairik?

Ez, ez, ez...

- Jauna - altxatu zuen ahotsa hontzak- euritik geroz eta ur gutxiago biltzen dugu gure metagailuan. Alboko bailarako Hipoak arrazoia du. Ez dakigu zergatik baina geroz eta euri gutxiago egiten du. Hemen bailaran ez gara konturatzen ura beti gainezka dugulako, eta nahi adina dutxa hartzen ditugulako, baina euritik geroz eta ur gutxi jasotzen dugu. Egia esan ur urruneko ideia izan ez bazenu metagailua husten hasiko litzaiguke.

- Zergatik ez didazu lehenago esan hori! Horrela esker-tzen al didazu metagailuan eman dizudan postu ona?

- Jauna, ez nion garrantzirik ematen. Nolaz arduratu euriaz daukagun ur kopuruarekin?

- Babo alaena! Daukagun ur kopuruarekin... Baina nahikoa dugula uste duzu ala? Bai, bizi lasai ardurarik gabe, eta gero ondoko bailarako hipoari gertatutakoa gertatuko zaizue. Inoiz ez da nahikoa!! Ea honek oihartzuna egiten dizuen zuen kasko hutsetan. Betirako gorde ezazue: Inoiz ez da nahikoa!! Beti gehiago behar dugu!

Kontseilukideak ideia nahitaezkoa buruan sartzen saiatzen ari ziren bitartean Hipoa aginduak ematen hasi zen:

- Euri eskasiaren arrazoia ezagutu nahi dut. Ezinbestekoa da arazoa konpontzeko. Ikerketarako lan-talde bat osatu ezazue lauzpabosten artean. Hilabete duzue ikerketa sakon bat egin eta emaitzak mahai honetan azaltzeko. Ale, ospa lanera!

- Jauna, eta ondoko hipoari buruzkoa? - saiatu zen berri ere pelikanoa.

- Lanera esan dut! Ospa denak!

Atsekabetuta atera zen pelikanoa bileratik. Egia esan ziurtasun osoa zuen Hipo nagusiak egoera larrian zegoen hipoari lagundu nahiko ziola. "Baina badirudi, susmo guztien kontra, soberan ez daukala ur tanta bat bera ere. Baina nola esango diot nik hipoari ezin diogula lagundu? Zer aurpegirekin? Bere aurrean hitz bakar bat ahoratzea ere gaitza egiten zaidanean, nola eman berri txar hau? Nik itxaropena zabaldu nion, eta orain nik zapuztu behar diot. Zergatik sartu naiz lio honetan?"



Zergatik abiatu nintzen hipoaren bila eta ez nintzen gerizpean etzanda gelditu usoen etorreraren zain? Ez dagozkidan gauzetan muturra sartze arren gertatu zait hau. Ea ikasten dudan... Zorte apur batekin ez dut berriro ikusiko hipoa, eta beraz akabo nire kezkak. Bai, horixe egingo dut. Nik nire lana. Ez naiz hipoarengana gerturatuko, eta horrela berari ahaztu egingo zaio nirekin egon zela ere. Ea ba. Lanera! Hipo nagusiak esan digun eran: ur gehiago behar dugu!”

Ostrukak bide eman zion hegaldia abia zezan. Korrika hasi zen, hegoak zabaldu, eta berehala hasi zen gorantz. Zegokion altuera hartu zuenean hegaldia egonkortu zuen. Berriro berean zebilen pelikanoa. “Ez naiz nire bidetik, nire betebeharretik gehiago aterako. Arazoak besterik ez ditu sortzen horrek. Hipo nagusiak esaten duena egin eta kito. Ez nintzen pozik bizi ba nire lan honekin? Daukadan postu arduratsu honekin? Askok amestuko lukete pelikanoen buruzagitza hau eta kontseilukide izatea. Baina zer gertatzen da hipo gaixoarekin? Gauzak horrela segitzen badute hil egingo da! Ez al dut horregatik arduratu behar? Bera izan da duen ur guztia eman diguna. Eskuzabaltasunez nahi genuen ur guztia hartzeko esan zigun, eta guk halaxe egin. Guk metagailuan daukagun ur asko eta asko ez al da ba berea?”

- Esna hadi lur hartu behar duk eta!

- Zer?

- Ondoko urmaelera iristen ari garela, eta beherantz jo behar dugula jada!

“Burua joan zait. Ni nirera lur hartu, mokoak zabaldu,

ura bildu eta buelta. Ez, ez dirudi hipo gaixoa inguruan dabilenik. Gaixoa nola etorriko da honaino? Bere putzuetxoan gustura egongo da seguruenik...”

- Ireki mokoak usoak badatozela!

Tan-ta, tan-ta, tan-ta... mokoak betetzen ari zitzaizkion usoak tantaka-tantaka. “Kontzentrazioa, kontzentrazioa. Ahaztu hipoa. Zu zurera. ZURERA. Lana. Ur garraioa Hipo nagusiaren metagailuarentzat. Ur garraioa. Metagailurako. Gehiago behar da. Inoiz ez da nahikoa. Baina zertarako nahi dugu hainbeste? Jakinda gainera beste batzuk apenas daukatela putzu ñimiño bat?”

- Bederatziehun eta laurogeita hemezortzi: tan, laurogeita hemeretzi: ta. Eta mila: tan. Ospa!

Berriro airean zebilen itzuleran. Mokoak bete ur. Metagailura. “Hipo gaixoa. Euria egiteari uzten badio akabo. Baina zergatik egingo ote du geroz eta euri gutxiago? Eurria egingo balu biziko litzateke hipo gaixoa.” Zerurantz begiratu zuen orduan pelikanoak, goi gora, ezer ikusten ez zen eremu urrun hartara. “Jauna, zergatik bota tzen duzu geroz eta euri gutxiago? Ez al duzu zuk eurria guztientzat bidaltzen? Onentzat zein txarrentzat? Zer Jainko mota zara ba? Ez al zaizu axola hipo gaixoaren egoera? Ez al duzu ikusten larri dagoela? Ikusten duzu bai, dena ikusten baituzu. Baina ez al zara zure tronu zerutiarretik mugituko? Eurria orain arte bezala bota tzearekin nahikoa duzu eta!”

“Baina zertan nabil? Aspaldi ahaztua nuen-eta han goian

Jainkorik zenik ere! Ni metagailura ura eramatera. Hipo gaixoa ez da nire ardura, ez da nire ardura... ez banintz beregana hurbildu, ez nuke jakingo han zegoenik ere. Kasualitatea baino ez zen izan berarekin topatzea. Eta kasualitatez topatu banuen, kasualitatez ere agian ez nuke topatuko, eta beraz ez da nire ardura, nire ardura halabeharrez egiten dudan hura baita. Lana. Ur-garraioa metagailurantz. Euri eskasia ikertzeko lan taldearen betebeharra da euri kontuetaz ikertzea eta arduratzea. Nik ura garraiatu baino ez dut egin behar.”

- Hemen! Hemen! - entzun zuen ostruka berari lurre-ratzeko keinu nabariak eginez - non daukazu burua? Lurrartzeko zure txanda dela!!

Nola edo hala lur hartzea lortu zuen pelikanoak, baina ez zegoen ondo.

- Ia istripu bat eragin duzu! Zertan zabilta? - aurpegi-ratu zion ostrukak.

- Ez dakit... ondoezik nago - adierazi zion keinuka.

Izerditan zen, eta aurpegia zurbil-zurbil zeukan. Agerikoa zen pelikanoak zerbait zuela. Ostruka bera ere konturatu zen. Normalean fin egiten zuen lan pelikano hark. Kolore ona eta irribarrea zeraman aurpegian. Orain ez. Aurpegi txarra zeukan benetan.

- Tira, ez duzu itxura onik, ez. Hustu ezazu mokoia metagailuan eta har ezazu atsedeen egun bat. Etzan zaitez etxean, eta ea hobera egiten duzun. Ez baduzu hobetzen medikuari deituko diogu.

- Mila esker.

Erraza zen hipo gaixoa burutik kentzeko esatea, baina beste gauza bat zen hori egin ahal izatea. Hipo harekin izan zenetik ez zen berbera. Ezin zuen bere burutik bidali. Edozer pentsamenduri gainjartzen zitzaion. Saiakerak eta ahaleginak eginak zituen, baina alperrik. Lanean ere akats larriak egitera eraman zuen gogoetan ibiltze horrek. Ostruka bera ere konturatu zen zerbait gaizki zebilela bere buruan. “Zer egingo dut? Oraingoz etxean etzan, lo hartu, eta ea nola esnatzen naizen bihar. Agian eguzkiak gehiegi eman didala izango da-edo. Agian estresa. Ez dakit. Bada ezpada botikatxo bat hartuko dut, eta bihar biharkoak. Ondo esnatzen banaiz lanera. Zerbait egiteak, entretenitua egoteak, ere, on egingo dit.”

Etzan zen, bada, pelikano gaixoa bere ohean. Hartu zuen botika, eta begiak itxi zituen.

Botikek mirariak egiten zituzten. Egun osoa eta gaua ere lotan eman zuen. Primeran esnatu zen. Lanerako grinatsu. Zuzenean joan zen aireportura. Ostrukari hegan abiatzeko baimena eskatu, eta bi aldiz pentsatu gabe gorantz abiatu zen. Ur bila.

Dena normaltasunera itzuli zen. Lana beti bezain ongi eta kontzentratuta egiten zuen. Buru belarri zebilen beharrean, beste ezertan pentsatu gabe. Lanean efizien-

tzia berreskuratu zuen. Hamar bat bidai egiten zituen egunean. Berriro kezkarik gabeko pelikano zoriontsu bat bihurtu zen. Gustua ematen zuen horrela lanean jarraitzeak. Joan. Bete. Itzuli. Hustu. Joan. Bete. Itzuli. Hustu. Bete...

Hain grinatsu zebilen lanean, hain bere baitan sartuta eta zeukan guztia emanez, askotan azkarregi ibiltzen zela. Eta behin baino gehiagotan gertatu zitzaion usoei itxaron beharra. Orduan itzalean etzaten zen indar pixka bat berreskuratze aldera.

- Pssst - entzun zuen bere atzean, etzanda zegoen batean.

Begiak zabaldu eta burua biratu zuen. Lotsa. Dardara. Izerdi hotza.

Ezin mugitu gelditu zen. Parean irribarre bat zeukan. Azal eta hezurren artean sortutako irri errainua.

- Lan-pe-tu-ta - atera zitzaion kostata ahotik - oso lia-tua ibili naiz - segitu ahal izan zuen - ez dut zu ikustera joateko astirik izan - bazirudien ahotza ateratzeko makina ondo olioztatu ondoren bere martxa hartzen ari zela - Banuen zurekin egoteko gogoia baina ezin izan dut orain arte. Badakizu ura behar dugu gure bailaran, eta ni arduratzen naiz ur garraioaz.

- Ez arduratu motel. Badakit zeregin asko dituzun pelikanoa zarela. Baina zurekin berriro egoteko gogoia nuen. Zurekin gustura izan nintzen aurrekoan. Eta Be-

rriro ikusi nahi zintudan. Badakizu bakar-bakarrik nago bestela. Beldurra ematen zidan honaino etortzeak, baina azkenean ausartu naiz

- Ondo egin duzu. Orain begira, lasai antzean nago hemen. Zer, zer moduz doa zure putzu hori?

- Pixkana ur gutxiago dauka. Oraindik ez du euririk egin eta. Zuen bailarak ondo jarraitzen al du? Oraindik ere urez gainezka daukazue dena?

- Bai.

- Dutzak hartzeko aukera ere izaten al duzue?

- Launa hartzen dugu. Izugarria da! Aizu, aipatu nion Hipo nagusiari hona ura ekartzearena, zure urmaela bete ahal izateko. Baina esan zuenez ez daukagu nahikoa guretzako. Daukagun sistema guztia elikatze-ko ur asko behar baita. Baina euri eskasiaren zergatia ikertzeko lan taldea osatu du, eta hemendik gutxira euri ezaren arrazoia topatuko dugu, eta behin arrazoia ezagututa Hipo nagusiak arazoa konpontzeko ideiarene bat asmatuko du, eta berriro ere zure urmaela betetzen joango da.

- Ordura arte iraungo banu...- begiak apur bat itzali zitzaizkion eta malko bat botako zuen, horretan xahutze-ko urik izan balu.

Pelikanoa lur jota gelditu zen keinu hura ikustean. Berriro hipo gaixoaren aurrean topatu zen eta egongaitasuna nagusitu zitzaion. Zerbait egin behar zuen. Bere aurrean zuen hura bere ardura zen. Ezin zion izkin egin begi aurrean zuenari. Saiatuta ere errealitate gordin hura nola edo hala berriro ateratzen zitzaion bidera. Saiatu zen lanarekin. Saiatu zen botikarekin ere. Baina

berriro ere bere bizimodua ezbaian jartzen zuena aurrean zeukan. “Zerbait egin behar dut...”

- Putzura bueltatzeko adina emango al dizu azalean duzun hezetasunak?
- Saiatuko naiz...
- Nik mokokada bat ur botako dizut gainetik lasaiago itzul zaitez.
- Benetan?
- Nork nabarituko du mokokada bat gutxiago milioika metro kuboko metagailu batean?

Esan eta egin. Usoek mokoa bete ziotenean aireratzeko itxura egin, baino hipoarengana jo zuen. Mokokada ur horrek ederki busti zuen hipo gaixoaren azal guztia. Halako dutxa eder batekin pozik joan zen hipoa bere putzutzora, eta poziago oraindik pelikanoa mokoa berrito beteta bere bailarantz. Gorago egiten zuen hegan. Arinago zebilen. Beteta sentitzen zen. Baina ez ur pitsuz beteta, aire garbi eta arinez beteta baizik. Kate bat askatu izan balu bezala libre zebilen hegan, betiko bide zurruna segitu ordez, gora-behera, ezker-eskuin zebilen dantzan.

Dantzan zebilen bitartean burua oso azkar zihoakion. Hipoa salbatzeko plana josten zebilen. Putre kazetariarekin hitz egingo zuen. Hipo gaixoaren argazkiak ateratzeko esango zion. Baita bere putzu mixerablea erretratatzeko ere. Eta gero bailarako kazeta nagusian hipo gaixoaren egoeraren berri argitaratzeko eskatu. Egunkari irakurleek ezingo zuten ezer egin gabe gel-

ditu. Errealitate gordin hori behin ezagututa egunero beraien buruan gailenduko zitzaien, berari gertatu bezala. “Halako irudi bat behin ikusita, inork ezingo du burutik kendu, eta azkenean arduradun sentituko dira, eta ekitera bultzatuko ditu ardura eta ezinegon horrek, niri gertatu bezala. Ez al gara guztiak berak ba? Horixe egingo dut, bai jauna.”

Bere betebeharra amaituta, Putre kazetariari deitu zion. Urrutitik argazki bikainak ateratzen iaioena zen. Jendea txundituta uzten zituen argazkiak ateratzen zituen beti. Hoberena zen bere ogibidean, eta kazeta guztiek eskatzen zizkieten berari lanak. Ondo ordainduz gero edozer egiteko prest egoten zen. Pelikanoak aterako zuen bere funtsetatik Putreari lana ordaintzeko adina.

Putreak berehala ulertu zuen Pelikanoaren nahia zein zen, eta bidea erakustea baino ez zion eskatu pelikanoari. Honek putzutxo eta hipopotamo gaixoa non topatuko zituen azaldu zion mapa baten bidez, eta adostutako sariaren zati bat aurretik ordaindu zion.

Egun batzuetako gauza izan zen. Berehala berripaper nagusietako portadatan ikus zitezkeen hipo gaixoaren argazkiak, baita bere bizilekuarenak ere. Irudiak eta berriak berebiziko eragina izan zuen jendearengan. Inoiz ez zen halakorik gertatu. Bailara hartan inoiz ez zen inor hain egoera larrian ikusi. Jendeak hipo gaixoari laguntzeko zerbait egin behar zela esaten jarduten zuen.



- Zerbait egin behar dugu, bestela hipo gaixoa hil egingo da!

Iritzi publikoan indarra hartzen zihoan ideia ari zen bihurtzen hipo gaixoa lagundu beharrarena. Halako indarra ezen hipo nagusiaren aholkulari berak ere hala esan baitzion bere nagusiari:

- Zerbait egin behar duzu jauna. Pelikanoak azken bileran egin zizun eskaera ederki alboratu zenuen kontseiluko bileran, baina hau jada gure eskutatik alde eginda dago. Bailarako giroa gehiago berotzen bada gureak egin du.

- Baina zer egin dezaket nik?

- Nahikoa daukazu ekintza txikitxo bat oso ondo saldua gehiengoa lasaitu eta bere beharretara bidaltzeko. Hauek ero daude orain, baina zuk behar bezala laguntza programa bat aurkezten badiezu, guztiak txaloka jarriko zaizkizu, eta hurrengo egunean denak lasai eta zintzo lanera itzuliko dira. Zure metagailuarentzako lanera otzan-otzan.

- Zerbait buruan daukazu ala?

- Guri kosturik ekarriko ez digun laguntza bat nahikoa da. Putzutxoa eta hipoa gaixoa usoen eta pelikanoen topalekuan daude. Putzuan ura dagoen bitartean hipoa biziko da, eta putzua lehortzen bada, nire proposamena litzateke mila usoko zazpik tanta bana hipoari botatzea. Nik uste horrek egunean pelikano mokokada bat ur suposatzen duela-edo. Azala heze izan dezan nahikoa. Ez da hala?

- Ona haiz gero!! Eskerrak niretzako lanean habilen, i-

tzala egingo hidake bestela!

- Ez da hainbesterako jauna.
- Hori, hori, ez da horrenbesterako. Segi ezak horrela. Gustua ematen du. Orain, baina, hipo gaixoaren kontrako manifestazioa antolatzen has hadi al bait lasterren..
- Hipoaren kontra jauna?
- Beno hori ba, pobreziaren kontra, edo gosearen kontra, edo hipo gaixoari azala lehortzearen kontra. Ez al da dena berdina ba?
- Bai, bai, nahastu egin zinela uste nuen.

Gobernu kontseiluko bozeramaileak eman zuen manifestazioaren deialdiaren berri.

- Ez da onartzekoa inguruko bailaran hipo bat hiltzear egotea eta hemen denok ezer gertatuko ez balitz bezala ibiltzea.

“Denok kezkatzen gaitu hipo horren egoerak. Izugarria da daukan itxura. Gezurra dirudi horrelako putzu txiki batean bizirautea. Denok kalera atera behar dugu. Onartezina da inor horrelako egoera batean egotea. Gobernu honek egoera honi erantzun bat emate aldean manifestazio deialdia egiten du datorren larunbaterako, “azal lehorrik ez” lelopean. Ur-parkearen ataritik abiatuko da arratsaldeko seietan, eta gobernuaren jauregiraino iritsiko da. Manifestazio isila izango da. Amaieran hipo nagusiak manifestaziorako propio pres-

tatutako manifestua irakurriko du gobernu honek azal lehorraren kontra ekintza zehatzak abian jarriko dituela iragartzeko.”

Kazetari guztiek txaloka hartu zituzten bozeramalearen hitzak. Guztiak salto batean joan ziren erredakziotara hurrengo eguneko egunkariaren portadak atontzera. Egunkari guztiek erakutsi behar zuten bat egiten zutela gobernuak azal lehorraren kontra abiatutako borrokarekin. Argi eta garbi adierazi egunkari solidariarik badago beraiena dela hori.

Pelikanoak ezin zuen sinetsi ikusten zuena. Egunkari guztietako portadak manifestaziorako deia egiten zuten, deialdiarekin batera bi argazki erabilita: bata gobernuko bozeramalea prentsaurrekoan, eta bestea hipo gaixoarena.

Hunkituta zegoen erabat pelikanoa. Ez zuen uste Putreak egindako lanari esker horrelako uholderik sortuko zenik. Jendeak, bai, erreakzionatuko zuela pentsatzera iritsi zitekeen. Baina horrelako tsunami bat sortzea! Denak azal lehorraren kontra! Bai Jauna!

Bere inguruko guztiei manifestaziora joateko gonbita luzatzen zien, eta bazirudien denak zutela bertara joateko gogoia. Batzuk gainera plan osoa egiten hasi ziren. Larunbata goiza ur parkean pasa. Gero dutxa eder bat hartu. Manifestazioa egin eta bukatzeko ur festa diskotekan. Primeran pasako zuten. Inoiz ahaztu ezingo zen larunbata izango zen.

Iritsi zen, bada, hainbeste itxarondako larunbata. Jendez mukuru zegoen ur-parkeko ataria. Ez zen jostorratz bat bera ere gehiago sartzen. Jauregiranzko bide guztia ere jendez betea zegoen. Jendea espaloietan zain zegoen manifestazio buruan zihoazen gobernu ordezkariak txalotzeko. Pankarta kontseilu kideek zeramaten gustura. Aurpegi alaiak zituzten. Puztuta. Barnean ezin kabitu. Aupa gu ta gutarrak!

Jauregira iritsi zirenean, sarreran atonduta zegoen mikrofonora igo zen Hipo nagusia. Manifestari guztiak ez ziren oraino helmugara iritsi, baina ezin zen gehiago itxaron. Berez uste baino dezente gehiago eraman zuen aurreikusitako ibilbidea egiteak, eta jauregiko plazan nekez sartuko zen inor gehiago, hain zegoen betea dena.

Goian bada, hartu zuen manifestua poltsikotik, betaurrekoak jarri, mikrofonora aurreratu, eta hitz egiten hasi zen Hipoa:

“Anai arreba maite-maiteok! Mila esker lehenik eta behin. Gaur herri honek eman duen erantzuna goraiatzekoa da. Berriro ere erakutsi duzue ez zaretela gizarte mortu bat. Bere baitan itxita dagoen gizartea ez da gu-rea. Ez. Besteen oinazeak zuenak egiten dituzue. Horregatik etorri zarete hona. Egiteko zenituztenak utzita, hona etortzeko sakrifizioa egin duzue herri honen bihotz zabaltasuna berriro ere agerian utziz.”  
Txalo, txalo, txalo.

“Txikia utzi duzue uraren hiria. Geneuzkan aurreikuspen guztiak gainditu dituzue. Horregatik, gobernuaren ize-  
nean, eta nire izenean bereziki, eskerrik beroenak.”

Zarta, zarta, zarta.

“Gobernu honek zuen irrikak ez ditu hutsean utzi nahi. Gobernu honek beti zuen onerako lan egin du, eta lan egingo du. Zuengan baino ez dugu pentsatzen, badakigulako zuek gabe gobernu hau eta ni neu, ez garela ezer. Zuek jarri gaituzue hemen. Zuek aukeratu gaituzue!

Bailara hau hasiera batean ez zen ezer. Beste edozein bailara bezalakoa zen. Bere urmaelarekin. Urtaro lehorrean ur maila jaisten zen, eta euri garaian atzera igo. Hemen bizitzak ez zuen ezer berezirik. Egun batek beste zekarren. Baina lanean hasi ginen. Burua erabiliz, eta beti bailara honetako hoberena bilatuz. Proietuak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta apurka-apurka guztion lanari esker bailara hau garatzen joan zen. Ur-parkea lehenengo, eguneroko dutxak ondoren, jakuzziak, diskotekak... zer esango dizuet ba? Zuek nik baino hobeto ezagutzen duzue bailara honek izan duen bilakaera.

Guztiok nahi adina ur daukagu. Guztiok lana daukagu. Bakoitzak bere lekua topatu du gizarte honetan. Eta azkenik usoen adibidea ikustea besterik ez dugu. Gau eta egun dabilta urruneko putzu handitik ura ekartzen, sistemak aurrera jarrai dezan. Garatzen jarrai dezagun. Hazten. Txalo bero bat orain ere lanean ibiliko diren uso guztientzat.”

Txalo, txalo, txalo...

“Daukagun guztia ez da oparia izan. Ez. Ez digu inork erregalatu. Gure izerdiarekin atera dugu hau guztia aurrera. Gure lanek eman duten fruitua da bizi dugun ongizatea. Denok dakizue ez dela ezer oparitzen. Gauza ñimiñoena lortzeko ere majo borrokatu behar dela. Eta lan egiteko daukagun gaitasunari esker lortu dugula lortu duguna.

Bizi dugun egoeratik, globalizatuz joan gara. Lehen inguruko bailaretaraino joaten ginen ur bila. Orain mundu guztia zeharkatu ondoren, beste muturrean dagoen urmael izugarria deskubritu genuen. Egindako ahalegin guztiek, beraz, fruitua eman dute. Eta oraindik ere metagailua urez betetzen ari gara.

Baina mundu guztia zeharkatze honek ere mundua denona bezala irudikatzen eraman gaitu. Guztiok gara mundutarrak. Dena denona da. Globalizatuak gaude. Horri esker jaso dezakegu ura nahi dugun lekutik. Honek izugarrizko aberastasuna dakar. Mugagabe hazteko aukera ematen digu, eta buru belarri horretan gabiltza, ongi dakizuen bezala. Ez pentsa hau lortuta, daukagun ongizatea lortuta, eserita geldituko garenik, ez. Aurrera jarraituko dugu, beti baitaude hobetzeko gauzak. Horregatik hazten jarraitzeko lanean segituko dugula zin dagizuet.”

Zarta, zarta, zarta...

“Munduan zehar ibiltzeak ere utzi digu irudi lazgarriren bat. Irudi horrek hemen bildu gaitu. Eta globalak izateak ere hau dakar, besteen sufrimendua, nahiz eta urrunekoa izan, geure egiten dugula. Eta ezin dugula sufritzen ikusten dugun inoren aurrean besoak gurutzurik gelditu. Berdin du sufritzen duen hau urruneko bailara batean bizi edo ez.

Ez gara hasiko orain hipo gaixo honen egoeraren zergatiak bilatzen. Ez. Ez dugu inor epaitu nahi. Lanik ez egitea aukeratu zuela? Jainkoak bidaltzen zion euriaz fidatuta eguna egonean ematen zuela? Ura nolnahi xahutzen eman zuela gaztaroa? Galdera hauen erantzunak ez zaizkigu inporta. Ez dugu atzera begiratuko, aurrera baizik. Eta orain esan behar dugu, ozen, daukagun ongizate mailak hipo gaixo horren beharrei erantzuteko gaitasuna ematen digula. Ez bagina garatu garen bezala garatu, orain ezingo genioke hipo gaixoari lagundu. Non daude garapenaren kontra zeudenak? Garapenari mugak jarri nahi zizkieten horiek? Ez dira ba orain guregana etorri laguntza eske?”

Txalo, txalo, txalo.

“Gobernu honek erabaki bat hartu du. Bai. Hipo gaixoak laguntza behar du, aurretik egindako arduragabekeriak gora-behera. Konpromisoa hartzen dugu, hipo gaixoaren putzuko ura eskas gelditzen zaionean gure ur iturrien %0,7a emango diogula.”

Festa sortu zen plazan. Bibak eta saltoak. Oihuak, garrasiak, musuak, txaloak. Denak bat ziren. Hipo nagusia

eskaileretatik jaitsi zen, eta kontseilukideak besarkatzen hasi zen biziki hunkituta. Malkoak ere isuri ziren plaza hartan. Sentimenduak bor-bor zeuden. Bihotzak taupaka.

Bailarako garapenak zentzua zeukan. Beharrei erantzuteko gai zen. Azkenean, norberak beretzat hobere-na bilatzen duenean guztiak ateratzen gara irabazten. Hipo nagusiak esana. Benetan ez dugu horrelako buru bat merezi.



---

## 6

*Honela dio Jaunak:  
“Gorroto eta higuin ditut  
zuen jaiak,  
ez ditut atsegin  
zuen kultu batzarreak.  
Aldare gainera  
Ekartzen dizkidazuen  
Erre-opari eta labore-opariak  
Ez ditut atsegin,  
Zekor gizenen elkartasun-opariei  
bizkarra ematen diet.  
Kendu nire ondotik  
Zuen kantuen zaratotsa,  
Zuen kitara-soinurik  
Ez dut entzun nahi.  
Datorrela, bai, zuzenbidea  
Ura bezala  
Datorrela justizia,  
Beti darion erreka bezala.”*

*(Am 5, 21-24)*

Egoera bere onera itzuli zen. Jendeak lanean jarraitu zuen jo eta su. Metagailua betetzen eta handitzen zihoan etengabe. Urtean %4ko hazkundera izan ohi zuen metagailuak. Pelikanoak hipo gaixoari gobernuak hartu erabakiaren berri eman zion. Eta bailarako egunkariak eraman zizkion ikus zezan jendea nola mobilizatu zen bere alde.

- Beraz, badakizu. Putzuko ura ahitzen zaizunean, lasai eskatu guk azala heze mantenduko baitizugu.
- Ez dakizu nola eskertzen dizuedan egiten didazuen guztia. Ez daukat zuei zer eskaini. Mila esker benetan.
- Ez da ezer. Denok anai-arrebak gara. Zuk ere berbera egingo zenuke gure aldean bazina.
- Ez dakit, ez dakit. Hain zarete bihotz onekoak...

Besarkada estu bat eman zioten elkarri, eta bakoitza bere zereginetara abiatu zen: Pelikanoa beharrera eta hipo gaixoa egonera. Izango zuten elkarren berri larrialdi alarma pizten zenean.

Pelikanoa eta hipoa besarkatzen ari ziren bitartean Hipo nagusia bere golf zelai partikularra ureztatzen zebilen. Berde-berde zeukan dena. Egunero-egunero ureztatzen zuen, jauregi barruko igerilekuan ur konbinatu bat hartzen zuen bitartean.

- Joño! Hau konbinatu espeziala! Koxme! Zer bota diok konbinatu honi? Zapore berezia dauka... mmm, zirrargarria.

- Limoi txorrotada bat gehitu diot jauna. Edari berriekin esperimentatzen ari naiz. Jendeak geroz eta garrantzi handiago ematen die jan-edanei, eta behar horiei erantzuteko nire ahaleginetan nabil. Etengabeko berrikuntzan ibili behar dugu jendea gure produktuez ez aspertzeko eta kontsumitzen jarrai dezan.

- Honekin asmatu dek ba! Jarridak beste bat, gero pilota zuloetan sartzea gehiago kostatuko zait, baina gaitz erdi. Egun bat, egun bat da!

- Barka Jauna - idazkaria sartu zen aretoan Hipoak konbinatuari azken zurrutada ematen zionean - zure aholkularia hemen da. Euriaren ikerketarako lan-taldearen inguruan hitz egin nahi omen du zurekin. Lanpetuta zabilzala esango al diot?

- Ez, ez, nire bulegora pasa dadila. Konbinatu larri edan ditut, eta ez dut golf zelaian alde batetik bestera ibili nahi.

- Ongi da. Han itxarongo zaitu.

Larruzko besaulkian eroso egokitu, eta puruari bi zupada eman arte ez zuen hipoak ahoa zabaldu.

- Bota, bota beharrekoak. Zer demontre ondorioztatu du euriaren ikerketa batzordeak? Zer susmo darabilte buruan?

- Jauna ez dut uste esan behar dudana atsegingo zaizunik, metagailua bera ezbaian jarri daiteke eta.

- Metagailua? Ezta ikutu ere, entzun! Brrrrr... Zer esan nahi duzu ezbaian egon daitekeenarekin?

- Begira jauna. Hipo gaixoak arrazoi guztia zeukan. Ge-

roz eta euri gutxiago egiten du. Gu apenas konturatzen gara naturarekin geroz eta kontaktu gutxiago dugu eta. Ia dena artifiziala dugu hemen. Beti urez gainezka gaudе. Jada ez gara gogoratzen lehengo euri garaiak nola ziren ere. Baina hipo gaixoa bai. Estuki lotuta dago naturara, gu hasiera batean ginen bezala. Euriaz bizi da. Eta giroan gertatzen den aldaketa txiki bakoitza sumatzeko gaitasuna du. Guk lan talde batekin, dugun teknologiarekin eta urte pare bat azterketa sakonean eman ondoren iritsi gara hipoak orain hiru urte esandako ondorio berberera: euri gutxiago egiten du.

- Baina gure ezagutza zientifikoa da! Egiazkoa! berdaderoa! Errefusa ezinezkoa! Hipo gaixoarena iritzi bat besterik ez zen. Teknologia harrigarriak egiten ditu!

- Bai, bai. Ni ez naiz teknologia eta zientzia gutxiesten hasiko. Daukagun guztia berari esker lortu dugu eta. Gertatzen dena da susmoa daukagula guk eragin dugula eguraldi aldaketa.

- Guk? Nola eragin dezakegu guk eguraldian?

- Jauna ez haserretu mesedez. Nik orain esango dizudana gure artean geldituko da. Ez pentsa hau zabal dezakegunik, bestela gureak egin du eta.

- Bota ja kontxo! Bihotzekoak jota hemen gelditzea nahi al duk?

- Lehen, metagailua egiten hasi aurretik, inguruko bailara guztiak urmaelez beteta zeuden. Urmaelak zeuden nonahi. Gero lur azpian metagailua eraikitzen hasi ginen, eta berau inguruko urmaeleko urez betetzen hasi. Pixkana-pixkana, lur azalean zegoen ur guztia zulo baten gordetzen joan gara inguru guztia lehorra utzi arte. Urmael bakarra gelditzen da mundu osoan, eta bertatik

ura ekartzen darraigu gaur egun. Ez ahaztu usoek esplo-  
razio bidaiaren ostean esan zigutena.

- Urmael izugarri urrun hura baino ez zela gelditzen  
mundu osoan.

- Bai, jauna. Beste ur guztia guk daukagu gordeta.

- Eta? Ur kopurua ez da aldatu, lekukotu baizik. Des-  
lokalizazioa, gaur egun esan ohi den moduan.

- Bada, ura lurrazalean zegoenean lurrundu egiten zen.  
Ur lurrundu hark hodeiak sortzen zituen. Eta hodeie-  
tako lurruna euri moduan erortzen zen, ziklo itxi bat  
sortuz.

- Joño! Hori ez al genuen txikitan ikasi?

- Bai, baina guztia ñoñokeriak iruditzen zitzaizkigun, gu  
baikinen buruargiak. Munduak inoiz inon ezagutu ez be-  
zalako jakintsuak. Aurretik zetorkigun jakinduria guztia  
baztertu egin genuen agure horiek guztiak oker zebil-  
tzalako ustean...

Gauza da ur gehiena metagailuan gorderik dugunez lu-  
rrunketa asko murriztu dela, eta ondorioz hodei gutxia-  
go sortu eta euri gutxiago egiten duela. Eta gauza oke-  
rrera doa: zenbat eta ur gehiago pilatu metagailuan,  
are eta euri gutxiago egingo du.

- Beno. Hori guretzat ere ez da halako arazoa ezta? Guk  
ura badaukagu... Zer euri gutxiago egiten badu? Gainera  
ez naiz guztiz ziur esaten duzunaz. Historikoki beti izan  
dira zikloak. Garai euritsuagoak eta garai lehorrakoak.  
Beti izan da horrela. Orain zergatik pentsatu behar dugu  
ez dela zikloaren eragina?

- Hori ere izan daiteke jauna. Ezin dugu inoiz guztiz ziur  
egon.

- Beste zerbait ari zait etortzen...

- Zer da? Zenbat eta gauza gehiago izan hobe...

- Ez Pinguinoaz oroitu naiz bat-batean. Azkenaldian matraka berberarekin dabil. Herri honek fedea galdu duela. Ez dela inor mezetara joaten eta izugarrizko lasakeria dagoela gizartean. Jainkoa hil genuenetik herria galdua dabilela, bekatu bat bestearen atzetik.

- Bai, pinguinoak esaten dituen astakeriak ez dute neuririk. Hobe luke hartu eta erretiratuko balitz. Guztiz jokoz kanpo gelditu da bailara honek izan duen garapenearekin. Jada ez du inork bere amua irentsiko.

- Ez, ez. Baina berak ez al zuen esaten horrek guztiak zigorra ekarriko zuela?

- Bai.

- Ez ote da izango hau Jainkoak bidali digun zigorra? Eta ez da izango ere bailaran sinismena galtzen ari dela?

- Baina zer diozu jauna? Orain kontu horiekin hasi behar al duzu? Ez al zenituen aspaldian utzi sineskeria horiek?

- Bai, sineskeriak... Nork esaten dizu ez dela hala? Inoiz ez dago jakiterik! Zuk ziurta al diezadakezu kontrakoa?

- Ziurtatu, ziurtatu...

- Bada, nik hari horretatik tira egingo nuke. Pinguinoarekin hitz egingo dut. Onartuko diot jainkoak zigorra bidali digula. Euririk ez digula botatzen alegia. Jainkoa arazoaren erantzule egingo dugu. Zer iruditzen?

- Horrela esanda ez du itxura txarrik. Arreta behintzat metagailutik aldunduko dugu... ideia ona iruditzen zait, bai.

Laburbildu dezagun ekintza plana hortaz. Euri eskasiaren arrazoiak ikertzen dituen lan taldeak zer jakinarazi

behar dio gobernu kontseiluari?

- Alde batetik euri gutxiago egiten duela esan behar du. Gizartean kezka hori zabaldua, gure plana aurkeztuko dugu: ura aurreztu behar dela, bakoitzak esfortzua egin behar duela, eta abar eta abar.

Bestetik, gobernu kontseiluak prozesio batean parte hartzearen aldeko jarrera adieraziko du publikoki. Meza berezia ospatuko da Jainkoari barkamena eskatu eta euria atzera bidaltzea eskatzeko.

- Plan bikaina jauna. Denok aurreztu behar dugu. Denok eman dezakegu zerbait. Eta euri eskasiaren erantzule Jainkoa egin. Ezin hobea.

- Eta ez hori bakarrik. Gobernuak berak ere aurrezte plan bat jarriko du abian. Herriarentzat eredu izan behar dugu eta. Pentsatuko dut zer egin dezakegun.

Berria gizartean zabaltzen joan zen. Norbaitek ere filtrazioren bat egin zuen, eta esamesak handik eta hemendik hedatu ziren. "Enteratu al haiz geroz eta euri gutxiago egiten duela?" "Bai hori entzun dut." Kezka hazten zihoan ohi bezala, eta gaina hartu behar zuenean gobernu kontseilua bilerara deitua izan zen. Bazirudien ekintza plana prestatua zeukala gobernuak. Jendeak hori jakinda lasaitze aldera egin zuen, gobernuak beti erantzun ona ematen baitzien sortzen ziren arazoei. Euriaren ikerketarako lan-taldeak bere lanaren berri eman behar zuen. Herritar guztiak bileraren amaieraren zain, irrikatzen zeuden erabakiak entzuteko.

Bi egun oso eman zuen bileran gobernu kontseiluak. Talde barnean desadostasunak zeudela zirudien. Prentsak

hala azaltzen zuen behintzat. Diagnostikoan bat zetozen gehienak, baina ekintza plana zehaztean zetozen eztabaidak. Hau egin, hori egin, beste hori egiteari utzi, hemendik kendu, han jarri... Behintzat saiakerak benetakoa zirudien, denek bere hoberena jartzen zutela bilera hartan. Ezinbestekoa zen, baina, batasun irudia ematea. Halako larrialdi batek batasuna eskatzen du, eta bazirudien batasun hori lortze aldera ari zirela garunak eta iritziak elkarrekin estutzen eta estutzen.

Jauregi irteera kazetariz betea zegoen. Egunkari, aldizkari, irrati eta telebista guztietako esatari finenak zeuden ordu aspertuak nola eman asmatu ezinik. Gobernuko bozeramaileak asko kafea eskuetan harrapatu zituen bilera gelatik atera zenean. Eserita zeudenak berehala jaiki ziren. Mikrofono, grabagailu eta kamera festa hasi zen. Nekez ikus zitekeen bozeramailea hainbeste traste artean.

- Mesedez - bisaia lasaia zuen, nahiz eta nekearen ondorioak ere nabaritzen zitzaizkion- mesedez, leku pixka bat, mesedez. Bai. Horrela. Bai. Oso ederki. Mila esker. Bai. Hasiko al naiz?

Galdera erretorikoak kamera eta grabagailuaren argi gorriaren erantzuna baino ez zuen jaso.

- Bi egun luzeetan zehar lanean bilduta izan ostean, gobernu kontseiluak adostutakoa jakinaraziko dizuet. Lehenengo nik daukadana esango dizuet, eta ondoren galderen txanda irekiko dugu, ohi bezala.



Euri eskasia aztertzeke lan taldeak pare bat urte lanean eman ondoren, bere ondorioak adierazi dizkio gobernu kontseiluari. Zurrumurru asko plazaratu dira. Beti bezala gobernu honen jarduna oztopatu nahi dutenak filtrazio bidez gizartea asaldatu gura izan dute. Gizarteak dagoeneko ahotan dauka euri gutxiago egiten duela, eta egoera larri baten aurrean gaudela. Bada, gobernu honek lasaitasun mezua zabaldu nahi dizue. Guztiok lasai egon behar dugu. Ez da ikaratzeko unea. Euriaren lan taldeak eman dizkigun datuen arabera azken bi urteetan aurrekoetan baino euri gutxiago egin du. Jakin ezazue datuon berri zehatzak taula eta grafikoekin astean zehar publikatzen joango garela. Badirudi beraz, urteetan aurrera egin ahala jasotzen dugun euri kopurua urritzen doala. Hau esanda, gobernu kontseiluak, esan bezala, lasaitasunerako deia egiten dio biztanleriari. Dakizuen bezala gure metagailua etengabe hazten doa, eta dagoeneko dezente ur metatuta daukagu lur azpian. Euri eskasia honek agian hazkundea motelduko du, baina horrek ez du esan nahi ur eskasiarik izango dugunik. Etxeko lanak ongi eginda ditu gobernu honek zuek guregan jarri konfiantzari esker. Euri eskasiaren arrazoiengatik ez daude gauzak garbi. Eta egia esan, ez da arrazoiak eta errudunak topatzeko garaia, soluzioak ematekoa baizik. Horregatik esku artean dauzkagun hipotesien aurrean erantzun zehatz eta eraginkorrek proposatuko ditugu. Dirudenez klima ez da egonkorra. Mundua sortu zenetik aro euritsuak eta lehorrak tartekatzen dira milaka urtero. Izan liteke, oraingo honako honetan ziklo lehor baten aurrean aurkitzea. Gauzak horrela, eta klima al



daketa baten aurrean egon gaitzkeela jakinda, gobernu honek indar berezia emango dio I+G+b sailari.

Teknologia berriak bultzatuko ditugu garapen iraunkorra lortzeko asmoz. Ezin delako garapenaren martxa gelditu. Metagailuak handitzen jarraitu behar du. Euri nahikorik egiten ez badu, ere, I+G+b bidez garatuko diren teknologia berriei esker ur iturri berriak lor ditzakegu. Dagoeneko ideia batzuk badaude martxan. Itxaropena pizten dizkiguten proiektu ezin garrantzitsuagoak dira geure ongizatea mantendu nahi badugu.

Guk ahalik eta baliabide gehien jarriko dugu teknologia berri horiek garatzeko eta metagailuaren hazkundera ez moteltzeko. Bitartean, eta trantsizio garai hauetan, bailarako biztanleria guztiari dei egiten diogu eguneko dutxa kopurua murriztera. Egunean lau dutxa hartu ordez egokia izan liteke adibidez hiru dutxa hartzea. Denon esfortzuekin eta engaiamenduekin ziur gaude orain arte bezala klima aldaketa honi aurre egin ahal izango diogula. Denok pixka bat emanez asko lor dezakegu.

Beraz, klima aldaketaren aurrean gure erantzuna garapen iraunkorra da, I+G+b indartuz lortuko duguna.

Bestalde gobernu honek gertutasuna berreskuratu nahi du elizarekin, eta zenbait bilera egin ditugu. Kezka da lehorte hau jainkoak erabakitako zigor bat izan daitezkeela. Kontuan izan behar dugu bailarak izan duen garapen ikusgarriarekin nola joan diren elizak husten. Geroz eta fededun gutxiago dago, eta litekeena da horrek jainkoaren haserrea piztu izana. Gai honi buruz elizako ordezkariekin luze jardun ondoren, gobernu kontseiluak

— |

— |

datorren igandean egingo den prozesioan parte hartuko du orain urte batzuk ohikoa zen bezala. Prozesio horren ondoren meza nagusia ospatuko du gotzainak, jainkoari barkamena eskatu eta euria berriro ere bota dezan eskatzeko.

Gobernu hau pozik legoke eliza leporaino bete eta de-  
non artean jainkoari eskaera hori luzatuko bagenio.  
Batzuk gobernuaren laikotasunaren kalteko uler dezake  
keinu hau. Baina gobernu honek laiko izaten jarraitzen  
du. Esfortzu hau herritarren onerako egindakotzat uler-  
tu behar da, sinismenak sinismen. Bide guztiak ireki be-  
har dira herritarren ongizatea hobetzeko.  
Galderen txanda orain.

- Bai. Zein ordezkari bidaliko ditu gobernuak igandeko prozesiora?

- Hori oraindik ez dugu adostu, baina ahalik eta gehi-  
enak joango gara.

- Hipo nagusia izango al da bertan?

- Hori bai.

- Zer epe emango diozue jainkoari erantzuteko? Hau da,  
noiz jakingo dugu jainkoak herriaren eskaera en-  
tzun duen?

- Guk espero dugu hilabeteren buruan euria egitea, bal-  
din eta jainkorik badago eta ahalguztiduna bada,  
arrazoizko epe bat dela iruditzen zait.

- Artzapezpikuen biltzarra ados al dago epe horrekin?

- Bai akordioa beraiekin lotu dugu, beraiek dira adituak  
horretan.

- Jaiotze tasaren kontrolaren inguruan hitz egin al du-  
zue?

- Mesedez, galderak klima aldaketaren ingurukoak, bestela ez dut erantzungo.

- Esan duzu ez dela erantzuleak bilatzeko garaia, baina aztertu al duzue metagailuak klima aldaketan izan dezakeen eragina?

- Antzua da, bai, orain erantzule bila hastea, baina esango dizut, bai, metagailuak klima aldaketarekin duen eragina zein den: bailarako herritarroi ematen digun segurtasuna. Klima aldaketa gora-behera ur horridura urtetarako ziurtatuta daukagu bailara honetako biztanleok metagailuari esker.

- Sorgin ehizan hastea alferrikakoa dela diozue, baina ez duzue nolabait jainkoa euri eskasiaren erantzule egin?

- Ea ulertzen zaidan. Erantzuleak ez dira bilatu behar erantzuna eta soluzioa oztopatzen diguten bitartean. Kasu honetan jainkoaren haserreaz ohartzeak ekintza bide bat ireki digu, eta hori da garrantzitsuena.

Azken galdera mesedez, guztiok atsedean hartzeko garaia dela iruditzen baitzait.

- Hipoaren emaztea minigonarekin sartuko al da elizara igandean?

- Negoziatzen ari gara.

Galderen txanda amaitu da. Beste gehiagorik ez beraz. Mila esker. Gabon.

Pinguinoa ezin kabi zitekeen bere baitan. Asteaz zehar komunikabide guztietan egin zizkieten elkarrizketak, egunkarietako portadaren batean ere atera zen. Garai batean zuen sona berreskuratu zuela zirudien.

Prozesioa guztian zehar ez zen Hipo nagusiaren ondotik mugitu. Klean txalo zaparrada artean agur eta agur bide guztian zehar. Ospakizunetarako jantzirik dotoreenarekin, dena harribitxiz eta urrez josia. Mitra ere zilar eta platinozkoa. Izugarritzko balioa zeukana. Ez zuen ia inoiz erabiltzen lapurtuko ziotelakoan.

Igande hura desberdina izan zen ordea. Egun hartan, zeukan guztia eman behar zuen. Bailararen konbertsioa. Bihozberritzea. Jainkoa jai handi bat egiten ariko zen zeruan, prozesioan eta elizan hainbeste jende ikusita. Urteak ziren eliza bat hain beteta ikusi ez zela. Jendeak kanpoan gelditu behar izan zuen. Baina teknologia berriari esker, inork ez zuen galdu ospakizun-eskakizuneko detailerik txikiena ere.

Hipoaren emaztea bai, minigonarekin joan zen, eta pamelak ez zuen burutik kendu ospakizun guztian zehar. Baina tira, horiek txikikeriak dira. Garrantzitsuena hantxe zegoela zen.

Saiatu zen homilia labur bat egiten, baina ez zuen lortu. Lauzpabost aldiz esan zuen "eta bukatzeko", baina herria ez zela aspertu iruditu zitzaion. Herriaren bekatu guztiak zerrendatu zituen: mezetara ez zirela joaten, seminarioak hutsik gelditzen ari zirela, jendea klean muxuka zebilela, ezkongabeak sexu harremanetan ibiltzen zirela...

Horrek guztiak jainkoa haserre zeukala. Bekatu horiek guztiak zirela lehortearen kausa. Jainkoak bere haserrean euria botatzeari uko egin ziola. Gauzak, ordea, al-

datuko ziren. Herri guztia mezetan eta prozesioan bere jantzirik dotoreenekin ikusteak baretuko zuen jainkoa. Bailara beregana nola itzuli zen egiaztatzeak gauzak aldatuko zituen. Hortaz ez zuen duda izpirik pinguinoak.

Inoiz baino ur gehiago erabili zuen jendea bedeinkatzeko. Herriko abesbatzak ezin hobeto kantatu zuen. Lorez gainezka zegoen eliza. Jainkoa ez zen sorgor izango halako ikuskizun eder baten aurrean. Egun gutxiren buruan euria etorriko zen. Euria ganoraz, dena blai-blai uzteko moduan.

— |

| —

— |

| —



## 7

Inporta al zaio, ba, jainkoari guk egiten duguna? Galdera burura etorri zaizu. Ea sos batzuk behintzat ateratzen ditudan gaurkoan eliza atarian... Besoak luzatu eta nagiak atera dituzu. Zutitu egin zara orriak lurrean utzita, karpeta gainean. Eskuineko zangoa lokartua duzu. Apur bat ibili zara. Erlojua begiratu duzu. Kaka Zaharra! 11:30ak. Berandu iritsiko naiz! Orriak karpetan bildu eta ziztu bizian atera zara.

Gorantz egin duzu. Eta errepidea gurutzatuta eskailetan gora abiatu zara. Hasieran mailak binaka igo dituzu, baina berehala utzi diozu ahalegintzeari. Hauspoa gehiegi estutu zaizu. Gaurkoan zer ordutan zen meza? 12tan ala 11:30tan? 11:30tan bazen nireak egin du. Kaka zaharra! Ipuin nazkante hau. Irakurtzeagatik lanera joan gabe. Diru saririk gabe.

Goraino iristean arnasa hartu eta makurtu egin zara eskuak belaun buruetan jarriz. Karpeta askatu gabe. Zure hatz izerdituen orbana utzi duzu itsatsita. Arnasa bere onera itzuli zaizunean gorantz begiratu duzu. Zerurantz. Argitzen ari da. Ostarteren bat badakusazu. Autoreen bat edo beste ere badabil errepidean. Aurrera segitu duzu. Korrika ibiltzeak ez duela merezi

konturatu zara. Meza 11:30tan bada, sarrera galdu duzu, eta irteera arte itxaron beharko duzu. 12tan bada ordea, garaiz zabilta. Ez duzu zertan estutu behar hortaz.

Gaur eguberri eguna, jende gehiago joango da mezetara. Gaur egun handia ospatzen dute eta. Denak alai eta barrez joango dira. Denak opariz eta bitxiz josiak, baina niri ezer gutxi emango didate. Askok begiratu ere ez didate egingo. Hauek orain 2000 urte bizi izan balira, Jesus bera ere ez lukete begiratuko. Gurutziltzatu egingo lukete. Gu gauzkatzen bezala. Gurutziltzatuak.

Nonbait irakurri zenuen Jesusen jaiotzari buruz zerbait kurioa. Nola zioen? Maria eta Joserentzat ez zela lekurik pentsioan. Ez zela lekurik beraiantzat. Beste batzuentzat egongo zen bai. Baina beraiek kanpoan utzi zituztela. Itxura kaskarreko bikote bat, eta emakumea erditzean. Arazo handiegia pentsioaren jabearentzat. Kanpora. Aurkituko duzue beste lekuren bat. Halaxe izan omen zen, eta han ukuilu batean erditu omen zen Maria. Josek lagunduko ote zion?

Nik ez. Ni kanpoan harrapatu ninduen alabaren jaiotzak. Grezian. Lana. Hura izan zen alaba eta emaztea galtzen hasi zinen eguna. Bai. Jaio eta une berberean hasi zinen alaba galtzen. Nola liteke hori. Beti izan duzu bihotzean iltzatua. Eta ez soilik emazteak behin eta berriro, edozein eztabaidatan aurpegira botatzen zizulako. Gordeta zeukan karta zen beti. Mutu uzten zintuen arma. Konplikatu egin zen gauza, azkenean zesarea egin be-

har izan zioten. Umea galdu zutela uste zuten baina aurrera atera zen. Eta zu bitartean kamioian Greziatik hona. Berandu iritsi zinen. Beranduegi. Ez zen mobilik gaur egun bezala. Ezin emaztearekin hitz egin. Bere amarekin bi hitz egitea lortu zenuen, baina apenas esan zizun ezer, atsegirik.

Atzo berriro egin zenuen kale. Aukera berri bat eskaini nahi zizun. Eskaini nahiko zizun alabak. Eta zuk pikutara bota. Gabonetan. Familia elkartzen den eguna. Afaria, bazkaria, opariak, argiak, festa, goxotasuna. Maitasuna? Ni kalean izoztuta. Bakarrik. Eta zer ospatzen dute ba egun xamur hauetan. Zer ospatzen da? Ez al da ni bezain hondoratua amaitu zuen baten jaiotza ospatzen? Ni bezain izozturik eta bakarrik, bazterturik jaio zen ume baten jaiotza?

Belengoa ongi atera zen. Haurra bizirik. Ama ere bai. Baina izan zitekeen beste era batera. Edozer gerta zitekeen. Edozer gauza gertatzen da. Baita ospitale sofisticatuenetan ere. Zer izan zitekeen etxetik urrun, herrixka ezezagun bateko ukuilu apartatu batean, abere artean?

Esan daiteke Mariarena ez dela mundura ume bat ekartzeko ama batek aukeratuko zuena modua. Eta nolatan aukeratu zuen Jainkoak? Sekula zure buruari egin gabeko galdera zenuen hura, testu batean honokoa irakurri zenuen arte.

Belen herri txiki bat izanda, berriak internetez baina

bizkorrago zabaltzen ziren bertakoen artean. Gaua hel-  
du zenerako herri guztiak zekien erditzeko zegoen ama  
bat herriko handiputzak ez zuela pentsioan onartu. De-  
nak kezkarekin oheratu ziren, emakume eta ume ho-  
rretaz zer izango. Egunak argitzean, eta umearen mai-  
nak entzutean, hara agertu ziren artzain, baserritar eta  
etxeakoandreak bakoitzak zeukan apurrarekin. Batek  
arkumetxoa, beste batek oiloa, beste batek barazkiak,  
ogia, ura...

Horrelako jaiotzak, Belengo biztanle xumeen alde onena  
atera zuen. Arrotz babesgabearekiko ardura. Laguntza.  
Maitasuna. Halaxe irakurri zenuen behintzat behin. Zer  
gertatuko zen Jerusalemgo jauregian erditu izan balitz  
Maria, erregina izanda? Belengo biztanle xumeen alde  
txarrena ateraraziko zuela. Bekaitza. Ezaxola. Tximista  
batek akabatuko ahal du printze pinpirin hori!

Deigarria egin zitzaizun testu hura. Eta alde batetik  
arrazoia izan zezakeela ere pasatu zitzaizun burutik,  
baina zure buruari galdetzen diozu ea zer aldatu den  
bi mila urte hauetan. Edo ea zer desberdintasun den  
Belen eta Donostia artean. Zu arrotz babesgabea zara.  
Hondoratua. Ez duzu burua pausatzeko burkorik, ezta  
bular goxorik ere. Goxotasuna, xamurtasuna, elkarri-  
zketa falta zaizkizu. Bakardade bortitzenak jaten zaitu  
egunetik egunera. Eta sentimendurik pizten al duzu Do-  
nostiako biztanleengan? Sortzen al dut Donostiako biz-  
tanle xumeengan ezaxola ez den zerbait? Nazka agian.  
Amorrua, ere bai. Ardura, laguntza eta maitasuna? Ez.  
Sikiera egonezina, deserosotasuna sortuko banu! Inpor-

ta al zaio jendeari nola nagoen ni? Nire anaiak ere ez zidan atzo deitu eta!

Baina alabak bai...

Elizara iristen ari zara. Ez da jenderik ikusten kanpoan. Berandu iritsi zara. Hamaikak eta erdietan hasiko zen meza. Denak barruan izango dira. Bi errumaniar kanpoan. Horiek ere etorri dira niri lana kentzera! Leku guztietan daude! Ez daukat non eskatu jada! Errumaniar arrotz babesgabeek ere ez dute zugar zeure hoberena atera. Belengo haiek zer ziren zu baino hobeak ala? Donostiarrak baino hobeak? Agian herri txikia izateak lagunduko zuen. Herri txikietan beste giro bat dago.

Elizako aterantz abiatu zara aldapatxoan gora. Buruarrekin keinu bat eginez agurtu dituzu errumaniarrak. Homilian daude, esan dizu batek. Atea bultza eta barrura begiratu duzu. Intsentsu bafada bat etorri zaizu. Muturreko galanta. Betea dago, baina ez da orain urte batzuetakoa. Atea itxi eta kanpoko eskaileretara joan zara.

Jesus jaio da. Afaria, opariak, argiak. Xanpaina eta gabon kantak. Non jaio da? Inporta al zaio inori? Gaur jaio da! Donostiako ospitalean izan al da? Poliklinikan akaso? Ala hiri malapartatu bateko aldiri ziztrin bateko txabola herdoildu batean? Geure baitan daukagun hoberena aterako ahal digu!

Karpeta zabaldu eta irakurtzeari ekin diozu. Laburra-

goa egingo zaizu itxaronaldia.

---

## 8

*Abba, Aita! Zure esku dago guztia;  
urrun ezazu niregandik edari samin hau!  
Baina egin bedi zure nahia, ez nirea.*

*(Mk 14, 36)*

Pelikanoak ohiko lekuan hartu zuen lur, mokoak bete eta berehala metagailura itzultzeko asmoz. Lurrean hankak pausatu bezain pronto ohartu zen, ordea, zerbait ez zebilela. Susmo txarra hartu zion airean aditzen zuen giroari. Pelikano gehiago ikusi zituen inguruan. Burua goratu eta ez zen usorik inon ageri. Ez zen tanta hegalaririk haize finaren kontrako zeruko norgehiagokan. Ez zetozen. “Zer demontre gertatuko zitzairen usoei? Aspertuko ote ziren harat-honat ibiltzeaz?”

Zain egotea beste egitekorik ez zuela, denbora aspertua nola eraman pentsatzeari ekin zion. Gerizpe bat aurkitzea geroz eta gaitzago zen bailara idor hartan. Ez zuen atsedean goxoan murgiltzeko leku aproposik topatzen. Bilaketa ez zen horratik antzua izan. Kanpoan baino, barnean azaldu zitzaion espero ez zuena.

“Aspaldi ez dudala hipo gaixoaren berririk jaso. Laguntza behar zuenean kasu egiteko esan nion, baina ez zait

etorri oraindik. Burugogorra da gero! Noiz arte itxaron behar du laguntza eskatzeko? Ez al zen beranduegi izan arte zain egongo ezta? Ez... Beranduegi, eta ezin honaino iritsi... Lehorregi, akituegi...” Heriotzaren itzalak aldartea ilundu zion. “Ez zen hilko ba? Klima aldaketa honek guri eragin badigu, nola ez zuen hipo gaixoagan eragingo? Uf.” Kezka. “Zertan ibili naiz baina? Noizean behin beregana joan behar nuen zer moduz zebilen galdetzera...” Damua. “Putzutxorantz gerturatuko naiz gauzak nola dauden ikustera... ai ama.” Beldurra eta tristura.

Putzutxorantz zihoala urrutian animalia talde bat ikusi zuen zuhaixka batzuen ertzetik galtzen, errari. Poliki zihoazen. Nekez. Heriotzatik hurbilago bizitzatik baino. Halere urrats bat, urrats bi, aurrerantz beti. “Nondik atera dira horiek?” bera baitan. “Eup!” oihu kanporantz. Hotsak haatik ezin horrenbeste metro egin. Urru-negi zeuden. “Ez al zuen hipoak esan denak alde eginda zirela? Bakar-bakarrik zegoela ez zidan aipatu ba!”

Kopetilun, gertaerak argitzeko haritik tiraka zerraien. Geroz eta hodei ilunagoak kaskoan. Ekaitza lehertzean. “Ez ziren hipoaren garai bateko lagunak izango ezta? Zertara itzuli bailara mortu honetara, baina, bizia bera arriskuan jarritz?” Arrazoi bakar batek itzularazi zitzakeen azkenetan zeuden animalia haiek. Zerk beste-la aldenduko zituen etorkizun hobe baterako bidetik? Zerk behin uztea erabakitako lekura atzera bueltarazi? Arrazoi garrantzitsu bat behar zuen inolaz ere. “Bailaran bakar-bakarrik gelditu zen aspaldiko lagunari azken



agurra ematea baino, zer inportanteagorik? Ai ene... Guztia nire errua izan da. Arreta handiagoa eskaini izan banio... Lanez kolkoraino ibili naiz ordea... Nola utzi eguneroko betebeharra? Lanak ez dit ezer gehiago egiteko denbora ez indarrak uzten eta!”

Izerdi hotzak eta malko epelek urratu egin zuten pelikanoaren aurpegi itzalia. Flakiak eman zion. Indarrak ihes. Hankek dar-dar. Halere nola edo hala hipoaren hobia aurkitu behar zuen. Azken agurra behintzat eman behar zion berak ere.

“Putzutxo ondoan lurperatuko zuten seguruenik. Akaso lehorra egongo da jada. Akabo putzua. Nola topatu orduan?” Nola hala beherantz segitu zuen lehen aldi hartan egin zuen egonez eta ezintasun sentimendu berber haiekin.

Aurrera egin ahala lurra geroz eta hezeago zegoen. Belartxo sortu berri batzuk ere han eta hemen. Lur ilunduak eta multzo berdexkek aldartea aldatu zioten. Urdin gune zenbait zabaldu zitzaizkion. “Hobe egongo da orain, dagoen tokian dagoela. Betirako atsedenean. Ur faltarik gabe.” Begirada gora zuzendu zuen lipar batez. Beherantz erakarri zuen ostera hanka azpian nabari zuen lur bustiak “Dirudienez gure prozesio eta otoitzek eragina izan dute hemen...Berandu... Honek ikasteko balioko dit. Ea behingoz esnatzen naizen, eta hurrengoan, hurrengorik balego, bizkorrago nabilen: buruak ezartzen dizkidan aitzakien gaineratik bihotzak agintzen didana egin.”

“Hara! Hor putzua! Aurrekoan baina itxura ederragoa dauka eta! Hipo gaixoak ikusi izan balu...”

Putzutxoan menditxo bat ikus zitekeen. Hipoaren hobia seguruenara. Uraren mugimendurekin mugitu egiten zen apurka-apurka. “Hobia putzuan egitea ere!”

Orduan mendixkak gora egin eta orro moduko bat entzun zen. Bat batean pelikanoak bi begi zituen parez pare. Hipoak irribarre batekin agurtu zuen.

Pelikanoa korrika gainera bota zitzaion, eta besarkada bero handi bat eman zion. Ez zuen askatzen. Ez zuen askatu nahi.

- Zer dugu baina? Arnas apur bat hartu beharko dut ezta?

Azken estutua eman ondoren askatu zuen pelikanoak.

- Hilda zinela...Joanda zinela uste nuen!

- Abisatuko nian lehenago ez duk uste? Nola egingo nian halako zaborkeririk?

- Ez dakit, ez dakit. Aspaldi ikusi gabe, zure berri jaso gabe, lehorrea... Honantz nentorrela beldurtzen joan naiz. Eta gero animalia talde bat ikusi dut, oso egoera larrian zebiltzan batzuk iparralderantz urruntzen. Zure hiletara etorritako lagunak zirela suposatu dut.

Zeintzuk ziren horiek?

- Drama bat lagun. Animalia pila bat ari da iristen eten-gabe. Denak hezurretan eta siku-siku daude. Ez dakit

nola iristen diren honaino ere.

- Gaixotasunen bat zabaldu da ala?

- Diotenez urik gabe daude. Aspaldian ez omen du euria egin beraien bailaretan, eta beste bizileku baten bila abiatu dira guztiak. Urmael honetako nire lagun guztiak bezalaxe. Ahal zuenak ospa egin zuen bizileku egokiago baten bila. Beste asko hil egin ziren. Nik hemen ahal dudana ematen diet indarrak berreskura ditzaten. Putzuko ura ematen diet, dutxa bat, eta inguruko landareak. Beraiek konturatzen dira hemen ere ez dagoela denontzako adina, eta nora jo dezaketen galdetzen ditate.

- Eta zuk zer esaten diezu?

- Zuen bailaraz hitz egiten diet. Urez gainezka zaudetela, egunero lau aldiz dutxatzen zaretela, ur parke erraldoiak dituzuela... Zuk niri kontatutakoa, ezin besterik esan.

- Eta denak gure bailararantz al doaz?

- Bai. Milaka eta milaka. Ez al zaizue oraindik inor iritsi?

- Nik dakidala ez...

- Bidean geldituko ziren gaixoak. Ia denak heriotzaren mugan doaz. Poliki-poliki, egiten dute aurrera. Denborarekin nik uste iristen joango zaizkizuela. Imajina dezaket zuen bailarara iristen direnak biziko duten zoriona halako bidaia gogor eta luze baten ondoren zuen beso irekiak eta laguntza dastatuta. Nahi adina ur! Ezingo dute sinistu ere egin.

- Ez pentsa. Momentu txar batean gaude. Zuk esan bezala lehortea dago, eta aurrezpenekin hasi gara. Ez dakit gure bailara prest dagoen animalia gehiago hartzeko...

Hipo nagusia jakinaren ganean jarri beharko dut.

- Aterako duzue lekua hauentzat. Asko sufritu dute, eta apur batekin pozik izango dituzue. Oso konformaerazak dira. Nik hemendik pasatzen den guztiari eskaintzen diot ura.

- Erotuta al zaude? Ezer gabe gelditu nahi al duzu?

- Ezer gabe? Orain arte beti jaso dut bizitzeko adina. Niretzat beti nahikoa eman badu, zergatik ukatuko diet nik baino behar handiagoa dutenei bailarak eskaintzen duen ura? Hemengo baliabide guztiak nik xahutzeko ohorezko baimena dudala uste al duzu? Meritu berezirik egin al dut nik ur guztia merezi eta besteei tantarik ez emateko? Bailara hau nik sortu izan banu sikiera... Ez duzu hori pentsatzeko ezta? Putzu hau, landare eta zuhaitzak. Eguzkia, euria, gaua, eguna, lagunak, ni neu bera... Dena nik sortu dudala uste al duzu?

- Ez, ez...

- Eskerrak! Hau guztia, ikusten duzun guzti-guztia oparia baita. Erregalatu egin didate. Baina ez niri bakarrik. Guztioi baizik.

- Nik zuregatik nioen. Hemen ia urik gabe zaude, eta etortzen den orori ura eskaintzen diozu. Zuk ikusiko duzu, baina arinkiaz jokatzeari da hori. Jakina, gero ezer gabe gelditzean guregana etorriko zara...

- Begira: orain arte bizirik mantendu nau Jainkoak. Beti eskaini dit baliabideren bat aurrera egiteko. Jatekoa eta edatekoa eman dit bailara honek. Doan. Dena oparigisa jaso dut. Ez dut zertan aurrerantzean gauzak aldatuko direnik pentsatzeko arrazoirik. Hau honela izanda, nola ukatu hemengo ezer eskatzen didan inori? Nirea al da bailara? Niretzat, nire sabel potoloarentzat egin

al du Jainkoak guztia? Ez. Beharrak jota hona iristen direnak ni bezalakoak dira. Ni bezainbeste merezi dute eskura izan dezakegun, eta garen, guztia.

- ...

- Nik ahal dudan neurrian laguntzen diet. Ni banintz gaizki nengokeena beraiek beste horrenbeste egingo lukete. Edo ez? Nik behintzat hori nahi nuke.

- Ez dakit, ez dakit... Baina guk ezin dugu hainbeste animalia hartu gure bailaran. Ez inporta ez zaizkigulako, hori ez! Pentsa, aurrekoan prozesioa eta meza nagusia egin genuen jainkoari euria eskatzeko. Ikustekoa! Bailara guzti-guztiak hartu zuen parte. Eta dirudienegindakoak ondorioak ekarri ditu: hemen euria egin du berriki ez?

- Bai. Orain bi egun-edo euria egin zuen. Zoragarria izan zen. Miraria! Ehunen bat animalia iritsi baitziren momentu hartan bertan egarriak jota hiltzear, eta hemen urik ez baitzegoen. Baina tanta bat. Gero beste bat. Tan-ta, tan-ta gure gorputzetan. Tan-ta, tan-ta putzu, lur eta zuhaitzetan. Zerutik etorritako sinfonia jotzen hasi zen Jainkoa. Bizia. Hori algara eta zoriona. Harri-garria izan zen benetan momentu hori. Hunkigarria. Gure malkoek ere sinfonian hartu zuten parte. Guztiok besarkadaka eta dantzan hasi ginen gure onetik aterata... Ez zait sekula ahaztuko. Eta, seguru, bere bidean segitu zutenei ere ez.

- Guri esker izan zen hori. Argi dago.

- Nola zuei esker. Zuei esker zer?

- Bai. Hipo nagusiak lehorteari aurre egiteko prozesio bat eta meza nagusi bat antolatu zuen. Jainkoari zigorra kendu eta euria bota zezan eskatzeko egin genuen



ospakizun hura. Kaleak eta eliza ikusi behar zenituen. Milaka eta milaka elizatik kanpo gelditu behar izan ziren. Jainkoak horrelako debozioa ikustean, ez zuen amore ematea besterik.

- Kar, kar, kar, ezin dut sinistu, kar, kar... Zer kontu dira horiek?

- Zeri egiten diozu barre? ez al duzu jainkoan sinisten?

- Sinistuko ez dut ba! Ez dizut esan, ba, Berak eman didala daukadan eta naizen guztia? Konpainia ederra egiten dit hemen. Askotan hitz egiten dut berekin. Zenbaitetan eskerrak ematen dizkiot, bestetan berekin haserretzen naiz, eta oihu egiten diot.

- Orduan ez dut ulertzen... Zerk ematen dizu barregura? Otoitzean ez duzu sinisten...

- Otoitzean? Esan dizut ba etengabe nabilela Jainkoarekin hitz egiten. Ea nola azaltzen dizudan kontua... Gauza da zu entzutean nik umetan nuen sineskeria etorri zaidala burura. Ez nuen uste zure adineko inork halakorik bota zitzakeenik. Nik umetan Jainkoari gauza pila eskatzen nizkion, denak niretzat, eta erantzuten zidan bitartean ongi. Baina batzutan nik eskatutakoa ez zuen betetzen, eta dudatan hasten nintzen. Zergatik ez ote dit Jainkoak nahi nuena eman? Jada ez nuen lehen bezala sinisten.

Gero lehortea etorri zen. Guk zuei nahi adina ur eman genizuen. Eta hala eta guztiz ere lehortea bidali zuen Jainkoak. Nire lagunak ospa egiten hasi ziren. Batzuk hiltzen. Jainko horren kontra itsu-itsuki jo nuen.

Bakarrik gelditu nintzen. Gaizki nengoen. Eta nireari ez nion irtenbiderik ikusten. Baina orduan azaldu zinen zu. Oroitzen?

- Konortea galdu nuenekoa?

- Horixe. Zerbait piztu zitzaidan barnean zu han lurrean ikusita. Ez dakit, zu lur idor arrakalatuan botata ikus-teak zerbait mugitu zuen nire baitan. Beste sufritu bat topatu nuen. Nire laguntza behar zuen beste sufritu bat. Ez al da Jainkoa zigorrak eta sufrimendua bidaltzen baino, berau gurekin nozitzen ari? Ez galdetu nola etorri zitzaidan intuizio hori nirera, baina halako zerbait gertatu zitzaidan zurekin topatu nintzen hartan. Gero berpiztu zinenean zuen bailaraz hitz egin zenidan, eta laguntza eskaini ere.

Gauzak gaizki joanda ere, gu konturatzeke eusten gaituen harkaitz bat badela konturatu nintzen. Eta gogoe-tan murgildu nintzen eusten gaituen esku bat izateak ematen duen konfiantza eta itxaropenarekin.

Azkenean, fedea, bizitza den bidea egiteko Jainkoak luzatzen digun eskua da. Bidea eskutik helduta egin dezakegu, edo ez. Baina eskutik joateak ez du ezer ziurtatzen. Eskuak ez zaitu urre eta platinozko bide go-zagarrietatik eramaten, bakoitzari egokitzen zaion bi-detik baizik. Eta fede hori bizitzarekin batera joango da aldatzen. Ez da ezer estatiko eta ziurra: bizitzarekin batera bidea egiten du. Maldan gora zenbaitetan, eta maldan behera bestetan.

Gertatzen da batzuetan geure bizitza zulo sakon batean erortzen dela. Erortzen goazela eskua askatzen dugu, eta behin kolpe latza hartuta zulo hondoan gaudela, Jainkoaren esku zabaldua, goian gelditu dela uste dugu, urrutitik zuloaren iluntasunera begira. Gu topatu nahi-an. Baina hara non, hondo ilunean esku bat nabari dugu sorbaldan, eta beste bat zabaltzen zaigu gurearen



bila.

Ez zaitut gogoeta hauekin nekatu nahi, baina gauza bat esango dizut otoitzari buruz.

- Bota.

- Nik otoitza ez dut egiten Jainkoak nire nahia egin dezan.

- Nola?

- Otoitza ez da Jainkoak gure nahia egin dezan erabiltzen dugun hitz magikoen multzoa. Zure nahia egitera behartu nahi duzun hori ez da Jainkoa, panpina bat baik.

- Orduan zertarako egiten duzu otoitza?

- Otoitza guk Jainkoaren nahia egin dezagun egiten da eta ez alderantziz. Gure nahiak eta Bere nahiak bat egiten duenean zabaltzen da bizia. Gure nahi itsua egiten dugunean haatik, txikizioa sortzen dugu, eta kalte baino ez diogu egiten geure buruari, kontrakoa usten dugula ere.

- Baina argi dago gure meza nagusiaren ondoren euria egin duela.

- Bai. Hori hala da, euria egin du. Eta ongi esan duzu: zuen mezaren ondoren egin du euria, ez zuen mezagatik Pentsa hurrengo batean ez badu egiten... Hurrengoan, zuk eskatzen duzuna ematen ez badizu, jainko horretan sinisteari utziko diozu. Bada, hobe duzu oraintxe bertan jainko horrengan sinismena galtzen baduzu, zure nahia egiten duen jainko panpina hori ez baita existitzen.

Burumakur itzuli zen pelikanoa bere lanpostura. Jokoz kanpo harrapatu zuen hipo gaixoak bota zizkion guztiak. Ez zion buruari buelta gehiago eman nahi. Nahia-

go zuen azkar lanpostura iritsi lanean jarri eta lanaren lanaz burua entretenitua eduki.

“Hipo hau... Ezin uka berezia denik. Oraindik ez digu laguntzarik eskatu. Esan nion %0,7a emango geniola behar zuenean eta oraindik ez du eskaerarik egin. Zortea dauka. Orain euria egin dio... Baina gainera iristen zaizkion animalia guztiei ura ematen die! Nola egingo ote du? Nik putzutxo horrekin egun baterako ere ez nuke izango eta!”

Usoak ez ziren iristen. “Zer demontre gertatu ote zaie hauei?”

---

## 9

Ondotik pasa zaizkizun gizon pareak atera zaitu zure baitatik. “Nola luzatu den apaiza!” entzun duzu eta bat etorri zara beraiekin baina beste bati buruz ari zara zu.

Atera berrien presentziak mezaren amaiera gertu dela ohartarazita orriak bildu, karpeta jaso eta alboko atera jo duzu. Ate nagusia hartua dago jada. Ea zortea dagoen oraingo honetan. Atearen eskuin aldean jarri zara. Karpeta lurrean utzi duzu paretaren kontra bermatua.

Koroaren azken doinuekin batera ateak zabaldu dira, bertatik larruzko beroki, pitxi, gorbata eta intsentsu kea ateratzeko.

“Eguberri on” diezu buru makurtu eta eskua zabalduz. Eskuinez atea zabalik mantentzen duzu ezkerrean oraingoz hamar zentimoko txanpon bat duzu. “Eguberri on.” Gehienek begiratu ere ez dizute egiten. Norbaitek eskerrak ematen dizkizu atea zabaltzeagatik, beste zenbaitek txanponen bat. Txanpon txikirrintxoak, lurrera erorita zaratarik ateratzen ez duten horietakoak.

Geroz eta jende gutxiago kanporantz. Azken tantak

isurtzen ari da iturria. Sorbaldan kolpe bat nabaritu duzu. Burua biratu eta aurpegi irribarretsu batek eguberri on esan dizu zure izena ahoskatzearekin batera. "Kontxo! Berdin." Hatz erakuslearekin kanpoaldean dagoen horma erakutsi dizu. Bertan itxarongo zaituela ulertu diozu. Baietz esan diozu buruarekin.

Burua barrurantz sartu duzu. Apaizak eta beste lauzpabost baino ez dira gelditzen. Ate nagusitik aterako dira gainera. Atea itxi eta kanpora luzatu dituzu begiak. Bai, ongi ulertu diozu. Han dago zure zain. Libratu zarela ikusita zuregana gerturatu da. Txanpon apurrak patrikan gorde dituzu

- Zer moduz? -esan dizu.
- Hementxe. Izorratua, badakizu. Egun honetan batez ere.
- Ja - beherantz begiratu du, eta gero galdera bota du
- Atzo zer moduz? Ospatu al zenuten gabon gaua Aterpen?
- Bai. Badakizu, afari merienda moduko bat. Nahiko lasai egon ginen. Besteetan baina bareago zegoen giroa. Ez zen istilurik egon.
- Pozten naiz. Eta gaua zelan?
- Hamarretarako denak ohean. Gabon gaua albait lasterren amaitzea nahi genuen guztiok. Bi boluntarioak eta hezitzailea baino ez ziren gelditu hitz aspertuan. Zure hitzen atzetik ez da besterik etorri. Parekoa isilik gelditu zaizu. Ahoa zabaldu du, baina hitzik ebaki gabe. Zer esan eta zer ez neurtzen dabilela begitandu zaizu, eta ondoren etorri denak zure burutazioa baieztatu.

- Gaur behintzat euria egiteari utzi dio.
- Bai, ez da gutxi.
- Bestela non sartu ezinik dena blai eginda kalean ibiltzea...

Galduta zebilkion begirada pausatu egin da zure atzean dagoen zerbaitetan. Lurrerantz begiratzen ari dela dirudi, eta harridura keinu bat egin du. Zuk ere burua biratu duzu zeri begira dabilen ikusteko.

- Norbaiti karpeta bat ahaztu zaio lurrean - esan du elizako atari ondora gerturatu eta makurtzen hastearekin batera. Eskutan dauka jada karpeta, eta azalean jabearen daturik ba den bilatzen hasi da begiradaz
- Ez, ez, nirea da.
- Zurea? Kontxo. Barka. Norbaitek hor utzitakoa zela uste nuen. Tori, tori...

Bi eskuekin heldu duzu parekoak eman dizuna, eta zuk ere jira eta buelta eman diozu karpetari begirada bertan duzula, dena ondo dagoela egiaztatuz bezala. Azterketa balekotzat emanda eskuineko lau hatzekin heldu eta aldakaren kontra bermatu duzu.

- Zakarrontzi batean topatu dut, kartoizko kaxa batean sartuta. Eskuz idatzitako paper batzuk ditu barruan. Auskalo nork idatzitako fabula edo ipuin moduko bat.
- Interesgarria. Itxura ederra ematen dizu behintzat.
- Ordu luzeak laburtzen laguntzen dit behintzat. Lagun ona topatu dut gaurko. Oparitxo bat izan da.
- Bai ez da lagun txarra - karpetaren aurkikuntzak elka-

rrizketa normaltasunerantz eraman du. Dagoeneko lagunari hitzak beldur gabe ateratzen zaizkiola otu zaizu - Joango al gara han dagoen taberna batera zerbait hartzera?

- Irekita egongo al da?

- Baietz uste dut. Dena dela gertura gaitezke ikustera.

Eskailera mailak jaitsi dituzue bata bestearen ondoan.

- Ongi etorriko zaigu ardotxo bat, gorputza apur bat berotzeko - esan dizu.

Ongi etorriko zaizu ardotxo bat, bai. Oraindik ez zara dardarka hasi baino ezingo duzu askoz denbora gehiago ardorik probatu gabe ibili. Honek zure gorputza lasaituko du, emango dio behar duen bitamina. Gorputzak iraultza zerga eskatzen baitizu azken urteetan. Hasieran zu zinen edateari emana baina denborarekin, eta zu hobe zaudela azkenaldian, edateari utzi nahi eta gorputza jazartzen zaizu: ez badiozu tantarik ematen dardarka jarriko zaizu, eta halere tematuta segitzen baduzu deliriumarekin mehatxatzen zaitu. Sorgin gurpilean sartuta zaude. Laguntza beharko duzu mendekotasun honetatik ateratzeko.

- ...taberna hori. Ez duzu ezagutzen?

Elkarrizketatik alde egin duzula konturatu zara, eta "ez" bat atera zaizu erantzun moduan. Ondokoaren esanetan arreta handiagoa jartzen saiatu behar duzu.

- Ba ondo dago. Nahiko berria da. Hemen inguruko

etxeak bezala. Hau guztia noiz eraiki zuten...? orain bost urte-edo, oker ez banaiz.

Zebrabidetik errepidea gurutzatu duzue. Kutixi denda utzi duzue eskuinaldean. Itxita.

- Leku ederra da. Hor badago baserri abandonatu bat: Munto. Eraitsi egin nahi dute. Garai batean hori zen hemengo taberna bakarra. Hemen ez zegoen ezer gehiago. Mendia besterik ez. Diotenez. Eta jendeak baserria zutik mantentzea nahi du. Eraikina zaharberritu eta zerbait txukun eta ederra uztea nahi dute, Katxolarekin egin zuten moduan.

- Zer da Katxola?

- Han gorago zegoen beste baserri mitiko bat. Hura, bota orde, harriz harri lekuz aldatu eta zaharberritu egin zuten. Orain Aieteko kultur etxe moduko bat da. Eder askoa. Han, Miramonera doan oinezko bide inguruan dago. Ez da erraz topatzekoa.

Iritsi zarete tabernara. Irekia. Egurrezko atea, eta egurrezko markozko leihotxoak. Ez da oso handia eta jendez gainezka dago. Telebista jarrita. Bi aldetatik dauka sarrera tabernak. Beste aldean portxe moduko bat eta jolastoki bat dago. Ikuspegi zabala dauka plazatxoak.

- Ez da leku txarra hau, ez - atera zaizu.

Laguna barrarantz gerturatzen ari da, bultza bat, barka bestea. Iritsi denean egin dizu galdera, besteen gaintik burua atereaz.

- Zer hartuko duzu?
- Beltza.
- Eta jateko zerbait?

Ez zenuen horretan pentsatu. Egia esan zerbait jan beharko zenuke. Aukera aprobetxatzea hobe gero bila ibili behar izatea baino.

- Patata tortilla pintxo bat!

Eskatzen ari da jada laguna.

Karpeta tabako makina gainean utzi duzu. Goraxeago horman esekita dagoen koadro batera joan zaizu begirada. Mikel Laboaren argazkia erdian. Txoriak txori euskaraz bere ezkerrean eta gaztelaniaz eskuinean. "Munto Berriko zure lagunek."

- Hemen daukazu ardoa. Tortilla prest dagoenean deituko digute.
- Tabakorik ba duzu? - atera zaizu.
- Ez. Baina, lasai, eskatuko diot norbaiti.

Bizkarra eman dizu, eta "zigarrorik?" entzun diozu. Hatz erakuslea eta luzearekin V keinua egin eta ezpainetan pausatuz egin du eskaera. Zigarroa eta irribarrearekin dator.

- Ai! Sua ez dut eskatu.
- Utzi badaukat nik - sakelatik metxeroa atera eta zigarro ahoratua piztu duzu.



Tortilla pintxoak ere prest direla dirudi, tabernariak zure lagunari begira egiten dituen keinuengatik.

Jan eta edanak amaituta zure txanponak atera dituzu eskuartera. Baina ez dizu ordaintzen utzi. Dena ordaintzeko ez zenuke izango, baina zeure ardoa ordaintzeko adina bai. Beste baterako.

Kalera irten zarete. Lagunak goitik behera begiratu zaitu.

- Eta karpeta?

Bi eskuez poltsikoak ukitu dituzu mugimendu erreflexu batez. Ondoren sartu zara tabernan karpeta bila.

- Eskerrak esan didazun. Bestela arratsalde pasa latza izango nuke.

- Ez da ezer. Beno, gustura egon naiz zurekin, baina ospa egin behar dut. Familia zain izango dut.

- Lasai, lasai. Normala. Ongi joan.

- Berdin.

Sorbaldan kolpe bat joz agurtu zaitu. Eta zuk, zer egingo duzu?

Aukera desberdinak aztertu ondoren, bide zubitik Amara jaistea erabaki duzu. Tipi-tapa, tipi-tapa Ehun urteurrenaren plazara jaitsiko naiz.

Orain intimitate pixka bat utziko dizugu, zu bakar-

bakarrik jaitsi zaitezzen Amarara. Baina mesedez, Morlans gaintik zoazela ez gerturatu barandara. Ez ezazu beherantz, begiratu. Saia zaitez begirada zulotik aldentzen.

Bai, arrazoi duzu ez dizugula aukerarik eskaintzen, esfortzu guztia zuri exijitzen dizugula, ezinezkoa eskatuz. Erortzearen erortzeaz akituta zaudela. Baina eutsi mesedez! aukera berriren bat sor ahal dadin. Gorde ezazu mesedez norabidea emango dizun itxaropen puntutxo bat. Gogoan izan izpitxo hori pizturik mantentzen dituzten bizipenak aurrera jarraitzeko.

Bai, bidea zuk egin behar duzu. Baina ez iezaiozu, gaur, oinez ibiltzeari utzi mesedez. Gu aldatu gaitzke eta. Ez dugu zertan betirako horren zeken izan. Badaude aldaketa adierazten duten zeinu txiki itxaropentsuak. Baina aldatzen garenerako zuk oraindik bertan egon behar duzu. Emaguzu beste aukera bat mesedez.

(Orri oso bat zurian utzi, eta amaieran hau idatzi:  
Eskerrik asko)

- Kariño
- ...
- Kariño, non zaude?
- ...
- Aizu, zer traje iruditzen zaizu dagokidala hobe?
- ... garapen iraunkorrarekin klima aldaketa...
- Kuku! Entzuten al nauzu? Norbait al da hor?
- ...teknologia berriei esker...
- Aterako al duzu behingoz buru handi hori ordenagailu aurretik? Zurekin ari naiz!
- Jode! Lanean nabilela ez duzu ikusten ba? Ez al dakizu zure kabuz janzten?
- Zein aukeratu besterik ez, gorria ala beltza?
- Biekin ongi zaudeee...
- Biekin ongi zaude, biekin ongi zaude... esan egia, eta arreta hemen jar ezazu momentu batez bederen!
- Ezkontza batera joango bazina ere, baina zaharren egoitza ziztrin hartara agure txatxu horiekin denbora galtzera besterik ez zoaz eta! Jar ezazu txandala!
- Aizu errespetu bat nire boluntario lanari! Zu bai, zu bailarako nagusi, hitzaldia hemen, bazkaria hor, golf partidatxoa han... hori bai garrantzitsua. Ba jakin ezazu oso agure interesgarri bat dagoela zaharren egoitzan,

eta ezin hobe pasatzen dudala berekin. Beretzako jantzikoa naiz dotore-dotore.

- Dardarka jartzen nauzu. Agure txatxu interesgarri bat. On egin!

- Bada, jakin ezazu oso agure jantzia dela. Fisikoa ala medikua uste dut dela, ez baitiot esaten dituen erdiak baino gehiago ulertzen.

- Normala zuk ez ulertzea, beti telebista aurrean ño-ño-keriak ikusten...

- Bada, ez. Nahiz eta dena ez ulertu gauza interesgarri asko esaten ditu. Tumore batez hitz egiten du, mundua gaixo dela, hiltorian, minbizia edo ez dakit zer aipatzen du. Tumorea erazten ez bazaio ez dagoela sendatzerik.

- Tumorea? Umorea da agure hori jasateko behar dena.

- Lehortean ere hitz egiten du. Lehortea ez dela arazoaren muina sintoma bat baizik. Sukarra bezala. Zutaz ere hitz egin zidan. Jakina, berak ez daki zure emaztea naizenik. Eta hobe horrela.

- Nitaz? Zer esaten zuen nitaz ba?

- Gaixotasuna baino, sintoma borrokatzen ari zinela. Tumorea bitartean hazi eta hazi zebilela. Ez dakit ez zituen nahasten tumorea eta metagailua. I+G proiektua guztiak zelula txarrak zirela ere esaten zuen, metagailua handitzeko ura sortzera bideratuak zeudelako; tumorea handitzera hain zuzen. Horrelako zerbait uste dut esaten zuela. Ez jaramon handirik egin, agian gauzak nahasten ari bainaiz. Halere oso istorio politak kontatzen ditu.

- Istorio politak, bai... Hori, mediku edo fisiko ordeztatu nahi aprobetxategi bat baino ez da izango segurue-

nik. Gure kontura egonean bizi izan den, eta bizi den poeta hitzontzi orojakile bat. Hori bai tumorea. Hori bai munduko minbizia. Ez dakit komeni zaizun ezertarako balio ez duten agure akabatu horiekin denbora gehiago galtzea.

- Inteligentzia militarraz ere hitz egin zuen, adimen militarra edo ez dakit nola esaten zuen.

- Ja! Horixe agure hori burutik joana den seinale ezin garbiagoa. Adimen militarra. Bateriaezinak diren antonimoak dira eta! Batak bestea ukatzen du! Ez zizun zirkulu karratuaz ere hitz egingo ezta?

- Ez, berak ere zuk esan duzuna esaten zuen, eta zirkulu karratua ez zuen aipatu, baina bai zuk etengabe hitzaldietan erabiltzen duzun garapen iraunkorra. Esaten zuen gure bailaran garatuak ez, hipergaratuak ginela; atrofiatuak jada metatzearen metatzeaz. Gutxi batzuen hipertrofia honek egin duela mundua jasanezina, beste bailara guztiak azpigaratuak dauden bitartean. Gara-pena zioenez beste bailaretan eman beharko litzateke, eta hemen iraunkortasuna. Bere ustez hori lortzeko tumorea erauzi beharko litzateke. Metagailua zabaldu, eta ura berriro guztien artean banatu.

- Beno, beno, atso hori guztiz burutik jota dago. Ale, utzidazu nire diskurtsoa ikasten, gaur parke teknologikora bisita egin behar dut eta. Han buruargiak baino ez daude, eta ezin dut hanka sartzerik ñimiñoena ere egin. Ale, ospa zure zaharren egoitzara ipuinak entzuztera.

Ahal bezala buruan sartu zituen hitzaldian idatzi zizkio-  
ten hizkote teknologiko horiek guztiak.



Ederki asmatutakoak denak, dudarik ez, baina beraie-taz hitz egiteko esfortzu ikaragarria egin behar izaten zuen, bailarako puntako teknologia garatzen ari ziren zientzialarien aurrean batez ere.

Nolabait guztia buruan zuela ziurtatu zenean, dutxa on bat hartu, emazteak prestatu zion traje iluna jarri eta txoferraren deiaren zain eseri zen aldizkari baten orriak azkar pasatuz. Hiruzpalau orrietako argazki eta goiburuak baino gainbegiratzeko beta ez zuen izan, txoferra beti bezala puntu-puntuan bere zain zeukan eta.

Kotxeko atzeko atea zabaldu zion txoferrak buruarekin adeitasun keinu bat eginez. Ondo egokitu zuen gorputza atzeko eserleku erosoan. Eta ingurura begira jarri zen. Gustukoa zituen beira ilun haiek. Nahi zuena begira zezakeen inongo disimulurik gabe, eta kanpokoek ez zuten deus ikusten. Hasieran arraroa egiten zitzaion, iruditzen baitzitzaion jendeak ikusten zuela, hor atzeko eserlekuan lasai eserita, ingurune guztia kuxkuxeatzen. Jendea kristalera begira-begira gelditzen zen, eta ezagutu zutelakoan burua jiratzen zuen Hipoak: “Ez al daude nahikoa ilunduak beira hauek?”. Baina gero konturatu zen egiaz: begiratzen zutenak eskua ilera eramaten zuten ilea orrazteko, edo mihiaz ezpainak garbitzen zituzten. Baten batek ezpainak, berak, margotzen zituen Hipoaren kotxeko atzeko leihoari begira. Jertsea egokitzen zutenak ere baziren. Leihatilara begiratzen zuenak, azken finean, ez zion beste bati begiratzen. Ez zituen begiak beste batentzako, bere buruarentzako baizik. Bailarako garapenaren sinbolotzat hartu zuen

leihatila ilun hura Hipoak. “Lehen, jendeak besteengan jartzen zuen begirada, eta besteek gutaz ziotenak osatzen zuen gure buruaren irudia. Batak bestearen ezintasunak ikusten zituen eta bata besteaz arduratzen zen. Orain ordea autosufizienteak gara. Geure buruaz baino ez dugu arduratu behar. Ez dago denborarik besteentzat. Etengabe geure buruari begira. Ispilutxo, leihotxo txikiena geure burua ikusteko aukeran bihurtzen dugu. Ez dugu besteen beharrik gure begiz ikusten ez ditugun geure ezaugarriak ezagutzeko. Ispiluak ditugu. Geure buruaz baizik ez dugu arduratu behar. Garapena.”

Hiria atzean utzita aldapen gora abiatu ziren. Atzean eraikin modernoak ikus zitezkeen. Beira eta ispilu asko. Tximiniarik ez. Hormigoirik apenas. Altzairua bai. Herdoil kolorekoa asko. Arri grisa, marmola... ikerketa zentruak ziren. Etorkizuneko lantegiak, baina geroz eta gaurkoagoak. Arazo guztiak konponduko dizkiguten gu-neak, poloak.

Ongi etorri bailarako zentro teknologikora. “Gustua ematen du hona etortzea”. Inguruko belardiak berde-berde. Belarra motz-motz. “Hauek niretzako moztu dute belarra”. Dena ondo ureztatua. Belardian goitik behera errekatxoa bailitzan, putzu batetik besterako ur jauzitxoak. Goian ur zorrotadaz osatutako iturri erraldoia. Uraren boterea. Ura izateak ematen duen boterea. Leihatila zabaldu zuen apur bat, eta bai. Belar moztu berriaren lurrin goxoa heldu zitzaion sudurrera. “Gustua ematen du, bai”.

Parke teknologikoko eraikin nagusiaren parean lau mas-



ta. Bakoitza bere banderarekin. Haizeak zabal-zabal mantentze zituen laurak. Apain. Dotore. Harrera egin behar ziotenak atarian zeuden bere zain. Kazetariak inguruan. Ezinbestekoa zen ikerketa eta garapenean gobernu egiten ari zen esfortzua biztanle guztiengana iristea. Denok ikusi behar zuten buru-belarri zebiltzala ideia eta teknologia berriak garatuz eta sortuz. Ezinbesteko zen jende xumeak ikustea emaitzak lortzen ari zirela, eta teknologia berriei esker aurrera segituko zuela bailarak. Metagailuak hazten segituko zuela. Eta denak, ongizatean aurrera egiten jarraituko zutela. Garrantzitsuak ziren, bai, laborategi arazetan Hipoa bata zuri batekin erakusten zituzten argazkiak. Bere hitzaldi transkribatuak baino gehiagorengana iristen ziren, eta barrurago. Ezer irakurri gabe, begiratu batean dena laburbiltzen zuten argazki horiek.

Protokoloak eskatutako agurren ondoren, parkeko zentruen bisita hasi zen. Izugarriak iruditzen zitzaizkion zentro haiek. Espazio zabala, diseinuko mahai eta ordenagailuak. Ikerlari bat mahai bakoitzean zintzo-zintzo. Laborategi andana. Neurketa aparatu kontaezinak. Egia esan, ez zekien zer egiten zuen hainbeste jendek ordenagailu aurrean. Baina nahiz eta askotan pentsatu bertara bideratzen zen aurrekontua galdua zela paper eta ikerlariengan, produktu berriak eta teknologia berriak sortzen ziren. Ezinezko ziruditen burutazioak denborarekin eta baliabideekin, gauzatu egiten ziren. Izugarria zen. Horrelako asmakizun bakoitzak merezi zuen aurretik xahututako dirua iruditzen zitzaiona bota izana.

- Hemen funtzionamenduan daukagun lehen erregai

pila. Hau nahiko txikia da, baina orain arte bezala ibiltzen jarraitzen badu, handiago bat egingo dugu.

- Honek zenbat ur sor dezake egunean?

- Oraingo orduko litro bat inguru ari da sortzen. Egunean 12 ordutan martxan ibiliz gero 12 litro ur sor ditzakegu eguneko. Baina kontuan izan behar da, oraindik esperimentazio prozesuan dagoela. Hau diseinatutako egoera nominalean ibiltzen denean orduko 2 litro iris gaitzke.

- Horrelako gauza txiki batek 120 litro sor baditzake, pila erraldoi bat eginez gero, metagailua bikoizteko adina ur sor genezakeela esatea ausartegia al da?

- Teknologia hau orain arte tamaina txikitan baino ez dugu garatu. Behin txikia lortuta, ez da hain erraza ere besterik gabe tamaina handitzea. Muga eta zailtasun ugari daude horretarako. Bestalde oraindik ez dugu lortu ura guztiz garbia sortzea. Oraindik zenbait metal astun topatzen ditugu. Lana dago hor egiteko.

- Berdina esaten zenidan lehen aldiz pilaren ideia bururatu zitzaidan orain urte batzuk. Gauza bat zela teoria, eta beste bat praktika. Ideia asko oso onak direla baina gero gauzagarriak izateko lan handia egin behar dela, eta ez dela batere erraza.

- Bai hala da. Baina gogoia eta baliabideak jartzen badira behin eta berriz egiaztatzen ari gara edozer lor daitekeela. Urte asko eta dedikazio handia eska dezake garapen batek. Baina horretan benetan sinetsita, baliabide egokiak jarrita eta lan talde bat buru-belarri horretara emanda, azkenean ideia teoriko gauza ezina zena errealitate bihurtu daiteke. Ez agian buruan daukaguna %100ean, baina dezente hurbildu ohi da.

- Hori ba! Zuek lasai guretzat lehentasuna baita metagailuaren hazkuntza. Hazkuntza hori ahalbidetuko duten teknologiak garatzeko baliabideak segurtatzen dizkizut. Baina burua horretara eman behar duzue. Nahiz eta gauzatzeko ia ezinezko zerbait bururatu, egingarritzat hartu, eta helburu hori lortzeko bitartekoak pentsatu. Planifikazioa egin eta proiektuak idatzi. Aurrekontuak eta giza baliabideen premia kalkulatu. Nola lor daiteke ideia hori gauzatzea? Zuek gauzagarri balitz bezala lan egin ezazue. Guk zuek eskatzen dituzuen baliabideak emango dizkizuegu. Eta horrela apurka-apurka aurrera egingo dugu, eta ikusiko nola helduko garen zuen burutazio ezinezko horren alborara.

Ezin duzuen egin da, ideia bat besterik gabe ezinezkotzat jo, eta horretan gehiago ez pentsatu, soilik oso zaila iruditzen zaizuelako. Historiak erakutsi baitigu, bailara honetan bereziki, gauzak nahi, benetan nahi direnean egingarriak direla.

- Hitzik gabe utzi nauzu Hipo jauna. Egia esan nik ere horrela ikusten dut gauza, eta nire bizitza profesionalen gauzak horrela direla jabetu naiz. Zenbat ideia ez ditugu bada egi bihurtu? Barne errekontza motorearena adibidez. Zenbat detaile zeuden bat etorri behar zutenak. Mila txikikeri buru batean ezin sar daitezkeenak. Baina jende dezente eta espezializatu ataza desberdinetara emanak, batek soluzio bat topatu, beste batek bestea, prototipo bat egin, probak, neurketak... txiripaz ia zenbait akats topatu, hobekuntzak egin. Konturatzeko gauzak bere bidea darama, eta azkenean, hara badabilen motore bat lortzen duzu. Baina zuk hain ederki esan duzun bezala, horretarako baliabideak jarri behar

dira urtez urte, pazientziaz, denborarekin fruitua helduko den itxaropenaz.

Benetan, berehalako emaitzak eman gabe proiektu hauetan konfiantza eta xoxak jarri dituzuenoi esker gauzatu dira ezinezko ziruditen ideia guztiak.

- Hori da. Beraz ekin pila erraldoia lortzeko beharrezko den guztia idazten eta planifikatzen, guk babestuko dugu eta. Bailarako hazkuntzaren bermea zarete. Zuek sortzen duzuenak ahalbidetuko du gure ongizateak aurrera egitea. Metagailua handitzen segitu dezakegun artean, denok ongi izango gara.

- Aizu beste gauza bat etorri zait burura. Orain gauza hauetaz guztiaz hain egiazki hitz egiten ari garela. Badakizu hemen lan handia dagoela neurketak egiten, prototipoak eraikitzen, probatzen, akatsak bilatzen eta konpontzen. Emaitzen analisiak egiten, hobekuntzak proposatzen... Eguneroko martxak jaten gaitu azkenean, eta ideia berriak sortzea ia ezinezkoa da horrela. Berrikuntza nahi badugu, benetako berrikuntza, lan talde bat behar dugu horretara eksklusiboki dedikatua. Eguneroko gauzetan denbora pasatzen badugu guztiok, ez dira ideia berriak sortuko.

- Ez al duzue horrelako lan talderik oraindik ala?

- Ez, orain arte ez dugu behar hori sumatu, ez zeudelako hainbeste proiektu batera martxan, eta denok denbora bageneukalako buruari emateko.

- Ez, ez, ez. Ezinbestekoa da lan talde bat etorkizunean pentsatzen eta etorkizunerako lan ildo, eta teknologia berriak pentsatzen. Ezin da joan eguneroko martxak bultzatuta, itsu-itsuan. Lan talde batek epe luzerako ikuspegia izan behar du. Eta epe luzeko ikuspegi hori

izanda, helburuak jarri beharko ditu, eta nola ez helburu horietara heltzeko ideiak mahai gaineratu. Horrelako lan talderik gabe noraezean ibiliko gara, eta ez da berrikuntzarik sortuko.

- Baina badakizu horrelako lan talde bat mantentzeak zer suposatzen duen ezta?

- Baina hori prioritate bat da! Suposatzen duena suposatzen duela, egin behar den zerbait da, bestela gure bailarako etorkizuna zalantzan dago. Gure ongizatea hobetu nahi badugu, ezinbestekoa da metagailuaren hazkundera bermatzea. Hori ezinezkoa da epe luze-rako bailarako garapenean burua daukan *think tank* bat gabe.

- Bai, bai, bat nator zurekin, baina ez nuen uste horretarako baliabiderik zegoenik...

- Orain badakizu bada. Aukeratu lan-talde egokiena, eta egidazu zerrenda behar dituzuen gauza guztiekin.

- Mila esker jauna.

- Utzi konplimenduak eta goazen azkar, urdaila deika ari zait eta.

- Bai, bai. Hor eraikin nagusian daukagu mahaia pres-tatua.

Gustatzen zitzaion, bai, parke teknologikora joatea. Konpainia maila onekoa, bazkaria ezin hobea. Mahai os-terako elkarrizketa interesgarria. Kopa eta puru ederra. Iluntzean itzuli ziren etxera. Betebeharrak ongi beteta. Baita urdaila ere. Egia esan edozein lekura zihoala beti zeukaten lunch, otordu, bazkari, askari, afari ederra. Kalitatea. Saritu egin behar ziren bailararen garapena posible egiten ari zirenak. Bailararen alde horrelako de-

dikazioa eskaintzen zietenei merezi zutena eman behar zitzaien, nolabait egiten zuten lana gainsaritu. Horrelako detaileak pozik uzten zituzten. Xanpaina barra-barra, pintxoak, ardo ona... Berak ere oso gustukoa zuen. Baina, kilotxo gehiegi hartzen ari zen. Ariketa apur bat egin beharko zuen linea berreskuratzeko. Hainbeste konpromisorekin bestela, zer egin?

*Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu?  
Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia beregana tzeko?*

*(Mt 16, 26)*

Pelikanoak, azkenean, urrutian zerbait ikusi zuen. “Han datoz” pentsatu zuen. Baina motel zetozen, ezinean. Gutxi ziren gainera. Ordura arte zeramaten funtzionamendu bikaina apurtua zirudien. Ordura arte etengabe joan etorrian zebiltzan uso bakoitza bere ur tantarekin. Denbora pasa zen, bai, baina usoek ez zuten inoiz kale egin. Tanta bakarra bakoitzak mokoan, baina bat, beste bat, hurrengoa... egunero tanta asko ziren. Egunero ekartzen zuten ura metagailurako. Pelikanoen mokoan tanta hustu eta buelta, atzera berriro beste tantaren bila. Lanean gaindiezinak. Beraiei esker metagailua hazten zihoan. Lehortea zegoen inguruan. Euririk ez zuen egiten. Noizean behin kenduta. Baina uso hauek urruneko itsasotik zekarten urak metagailua elikatzen segitzen zuen.


Harrituta, larrituta zegoen pelikanoa ordurako. Bailarako aireportuan bere falta sumatuko zuten. Makinariak

nonbait krak egin zuen. Ondo olioztatutako engranajea nonbait gelditu zen. Eta ardurak eskatuko zizkieten. Batez ere garai hauetan. Euririk ez, aurrezteko deialdiak egin, eta beraien hornikuntza kolokan. Logistika arazoak. Baina, ez, alferkeriak ezin izan zuen izan arrazoia. Beste edozer izan zitezkeen usoak, baina alperrak ez. Hipo nagusiak lan gogor hori eskatu zietenetik ez zuten besterik egin. Metagailurako ur hornitzaile lanak beraien bizitza bete zuen. Horretarako eta horregatik bizi ziren. Ez zuen inoiz uso bakarra etzanda, ikusi itzalean. Beti hegan. Tantarekin honuntz. Tanta gabe haruntz.

Orain ez zetozen zuzen ere. Taldetxo bat baino ez zetorren hala moduz. Bat atzerago gelditzen zen. Baina besteetako bi gerturutzen zitzaizkion eta aurrera eramaten zuten berriro.

Beherantz hasi ziren, pelikanoarengantz. Ez zuten itxura onik. Zahartuak ziruditen. Orain arte ez zitzaizkion gazte eta energiak beteak iruditu ba? Agian zain egoteak, eta geldialdi hark gauzak aztertzeko beta eman zion. Orain arte baliteke usoengan ganoraz arreta ere jarri ez izana. Tanten zain egon eta mokoak beteak zuenean metagailura. Egia esan ez zien inoiz uso haiei begietara begiratu. Ez zuen apenas hitzik egin beraiekin. Ez zien inoiz esan “zer moduz zabilzate?”. Baina halako hartan ezin zuen isilik gelditu. Hipo nagusiari, ostrukari, bere gainetik zeudenei azalpenak eman beharko zizkien. Bere ur kopurua garaiz ez emateak, egia





esan, ez zekien zer ondorio ekarriko zituen. “Zer axola ur pixka bat gehiago ala gutxiago! Ez al dago nahikoa metagailu nazkante horretan?” Baina, noiz hitz egin behar zuen beraiekin? Mokoa hutsik zuenean izan beharko zen, bestela ur guztia galduko baizitzaion lehen hitza esaterako. Baina berak mokoa hutsa zuenean usoek beteta izango zuten. Ezin inolaz elkarrizketa sortu! Eta ordura arte ez zen horretaz konturatu ere egin! Ezin zuen gehiago berandutu, eta beste noizbait hitz egingo zutela pentsatu zuen pelikanoak. Mokoa zabaldu zuen tanten zain.

Usoak bere inguruan lurreratzen nabaritu zituen, begiak itxita baitzituen mokoa zabaltzean. “Zertan ari dira hauek?”. Ez zuten inoiz lur hartu. Hegan zetoze la tanta erortzen utzi eta ospa. Hasperenak entzun zituen. Ito-larriak ia. Lau uso lurrera bota ziren hankaz gora. Ezin zuten gehiago. Han ez zen ur tantarik. Han berrogeita hamar uso-moduko hezur-azal batzuk zeuden. Lumak handiegi gelditzen zitzaizkien gorputz zimurtu eta akitu haiei.

Pelikanoari ez zitzaion hitzik atera. Hura al zen egunero-egunero ura urrunetik ekartzen zuen batailoi gaindiezina? Bistan zen ez ziela, denbora aurrera joan ahala, erreparatu gizajo horiei. Egun batean, edo urte betean ere, ez da halako aldaketa bortitzik ematen. Lanak akabatutako izaki gupidagarriak ziren bere aurrean zituen uso haiek. Mundua lurrera erori zitzaion. Hipo gaixoa lehen aldiz ikusi zuen hartan izan zuen zorabioa eta ego-neza oroitu zituen. Zergatik egokitu behar zitzaion beti

berari horrelako gauzak ikustea? Ez al zen nahikoa izan hipo gaixoarengatik egin zuena? Hartan, bai, erantzun zion aurrean gainjarri zitzaion errealitate gordin horri. Orain ordea larriago zirudien kontuak. Hipo gaixoa egon edo ez, bere egoera larria gora behera, ez zen bailarako makinariaren zati bat. Hipo gaixoa ondo ala gaizki egon, bailara berdin-berdin garatzen joan zitekeen. Gauza, edo errealitate paraleloa zen hura. Hipo nagusiaren bihotz onez, eta eskuzabaltasunagatik baino ez zitzaion lagundu. Baina aurrean zuen ikuspegiak eragin zuzena zuen metagailuaren hazkundean. Horixe baietz. “Zer esango ote du Hipoak?”.

Ez daki zenbat denbora pasa zen. Denborarik pasa zen ere ez daki pelikanoak. Baina bat-batean usoetako bategen apurtu zuen isiltasuna.

Ez zen ur tantarik atera bere mokotik.

- Ezin dugu gehiago. Zaharkituak gaude denak. Bizitza guztia lanean pasa dugu. Metagailuaren hazkuntzari eskaini diogu bizia. Ez dugu ondorengorik izan. Ez dugu denborarik atera familia izateko. Ume oso gutxi izan ditugu. Uso gazte oso gutxi gelditzen dira. Eta geroz eta gutxiago gara. Eta garenak geroz eta gutxiago ahal dugu. Gureak egin du. Usoak desagertzeaz gaude.

- Ez esan hori mesedez...

- Zer nahi duzu esatea? Ez diot zentzurik aurkitzen honi guztiari. Geure geroa, geure izatea jokoan jarri dugu metagailua hazteko. Lanean jardun dugu gau eta egun metagailua handitzeko. Beste zerbaitegatik izango ba-

litz. Baina ez, metagailu nazkagarri hori handitzeko bai-  
zik ez dugu bizitza eman. Galdu. Ez dakit nola ez garen  
lehenago konturatu. Orain beranduegi da. Gureak egin  
du. Baina gure azken urteak hemen eman nahi ditugu.  
Ez gara Hipoarengana gerturatuko ere, akatu egingo  
gaitu bestela.

- Baina ez da hainbesterako... nekatuta zaudete. Orain  
ez da une egokia pentsatu eta ekiteko. Hartzazue, bai,  
atsedena. Indarrak berreskuratu. Joan hipo gaixoaren  
putzura. Hark emango dizue indar berritzeko ura eta  
elikagaia. Indarberriturik zaudetenean hitz egingo  
dugu.

- Nahi duzun bezala. Hitz egin, bai, hitz egingo dugu,  
baina gaia luzaroan eta sakonean eztabaidatu dugu  
gure artean. Ez pentsa oraingo kontua denik. Denbora  
daramagu egoera larrian, eta horrek argia ikusteko ba-  
lio izan digu. Beranduegi, baina, argia ikusi dugu. Be-  
hintzat iluntasunean ibili garela konturatu gara, eta ho-  
rrekin moztu nahi dugu. Amaitu da. Gure azken urteak  
bailara honetan emango ditugu, edo agian itsas urru-  
nean. Hori erabakiko dugu. Baina ez diogu gure azken  
hatsa metagailuari eskainiko. Bailaran ez duzue uso bat  
gehiago ikusiko.

- Baina Hipoak akatuko nau hori esaten badiot.

- Hori zure arazoa da. Zuk ere nahi baduzu gurekin etor-  
zaitezke. Hipoak aurkituko du arazoa konpontzeko mo-  
dua. Ez al da hain argia ba?

- ...

- Damu dut ez garela lehenago ohartu...

- Panorama ederra daukat nik orain - atera zitzaion pe-  
likanoari - berandu iritsi eta ur gabe. Eta aurrerantze-

rako urik gabe gainera! Nola azalduko diot hau Hipoari?  
Ai amatxo maitea. Zergatik niri? Ezin al dut nik nire lana  
egin eta kitto. Zertara datoz kontu hauek?

Ordurako ez zuen inguruan uso belarririk hitzak entzuteko. Itzal batean zeuden botata. Lehen bezain itxura kaxkarra zuten, baina hobe zeuden. Arin. Pisu bat gutxiagorekin. Pisu gabe hobe esan. Egina zegoen. Azken aldian buruan eta beraien artean hitz egin eta eztabai-datu zutena azkenean egi bihurtu zen. Gauzatu zen. Ezin zuten sinetsi, egia esan. Momentu horretan, hor, etzanda. Burutik ere ez litzaieke pasako orain urte batzuk. Hori posible al zen baina. Bai, bada. Beranduegi iritsi da. Ia ezinezkoa izango da usoen espeziak aurrera egitea. Saiatuko dira baina. Beraiek ahal dutena egingo dute. Aurrera ateratzen badira ondorengoei erakutsiko diete lezioa. “Ongi pentsatu zertan ematen duzun bizitza. Familia sakrifikatzeak merezi al du? baliteke. Espeziea bera sakrifikatzeak ere merezi al du? Agian bai. Baina ez metagailu potolo bat gehiago gizentzeko. Ez. Euri gehiago egin dezan, bailara guztietan dagokien ur kopurua izan dezaten, metagailurako lapurtutako ur guztia munduan zehar, dagokion lekuan, zabaltzeko... horretarako guztirako bai, merezi lezake sakrifizioak.

— |

| —

— |

| —

Orduak, pintxo eta ardoak, ibilaldiak, irakurketak eta aurpegia goxatzen dizuten eguzki printzek gorputza lokartu nahi dizute. Zu ez zara gorputzari gogor egiten diotenetakoa, nahiz eta azken urteetan dezente egurtu duzun. Horrelako eskaera xumeei normalean men egiten diezu, batez ere ipurdia banku batean bermatua duzuetan. Nahikoa duzu karpeta ezkerraldean jarri, gorputza apur bat biratu, burua karpeta gainean jarri eta begiak ixtea. Ez duzu mantarik ere behar izaten horrelakoetan loak hartzeko.

Hasieran bai, orain urte batzuk, ezin izaten zenuen kallean, banku batean, arratsaldeko 15:00tan lorik egin. Begiak ixten zenituen, bai, baino beti zinen erne zer entzungo, nor pasako ondotik, nork zu ikusiko. Ezin atsedetik hartu halako ardurekin. Denborarekin, beharrrak lagunduta, esango ziotenari jaramonik egin gabe hasi zinen bankuetan lo hartzen. Eta ohitura onak ez dira galdu behar.

Gaur ez zaitu udaltzainak esnatuko, bazkari oparo bat egiten ibiliko da. Barka, isildu egingo naiz.

Hotzak esnatu zaitu, ala nahiko lo egiteak. Gauza da ilundu egin duela. Ez dela eguzkirik ikusten ahal. Dakusazun itzalak argi artifizialek sortutakoak dira, izan ere, nahiz eta eguberrian eguna luzatzen hasi, ez zaizu ahaztu behar urteko egunik laburrena dela. Zuretzat, bai, egun luzeena da, baina zientifikoki eguzki ordu gutxien dituen eguna da hau. Eta hemen eta orain zientziak du azken esana. Zure iritziak baino ez dira. Egia, zientifikoa.

Leku itxi batera sartzea komeni zaizu. Badituzu zenbait txanpon sakelan. "Txoli"-n sar zaitezke ardotxo bat hartzera. Mahaian eseri ardoarekin eta bertan lasai egin ditzakezu Aterpeko atea ireki arteko orduak, karpeta lagun.

Idea ona iruditu zaizu. Begiak igurtzi, besoak luzatu, aharrausi egin eta momentu batez esku ahurrak banku ertzean pausatu ondoren, jaiki egin zara. Karpeta hartu eta tabernarantz abiatu zara, Araba parkeko iparraldeko irteeratik atereaz. Ezkerrera egin duzu segituan, Prim kalerantz. Mugimendu gutxi dabil oraindik, baina ikusten dira bazkari luze baten ondorengo autoak argi piztuekin Anoeta alderantz abiada bizian. Ospakizunetik azkar ihes egin duten gazteak seguruenik, bikote ala lagunen bila. "Nire alabaren bila joango al da horietakoren bat?"

Autorik ez datorrela egiaztatzean pasa duzu errepidea. Urbieta zeharkatzeko, ordea, semaforoa berde jarri



arte itxaron duzu. Trafikoa sarriago da bertan, eta errepidea zabalagoa. Erreflexuak daukazun moduan, arrisku handiegia da parean ikusten duzun gizontxo gorriari jaramonik ez egitea, iluntzen ari dela batez ere. Zain zaudela, sakelakoa atera duzu patrikatik, eta botoiari sakatu diozu. Ez, ez duzu deirik jaso. Gaur ere ez.

Berde jarri zaizu. Aurrera egin duzu telefonoa berriro bere lekuan uzten duzun bitartean. Bikote bat gurtzatu duzu errepide erdian. Eskutik helduta zihoazen, barrez, bata besteari begira. Garai batean ezagutu zenuen hori.

Zeure bideari jarraitu diozu eta arreta Txoli tabernako kartelean jarri duzu. Ongi etorriko zaizu beste beltz bat. Lasai eseri mahai batean eta han utzi gelditzen diren ordu apurrak joaten. Tabernariak ez dizu eragozpenik jarriko, ezaguna baituzu jada. Atsegina da. Eskerrak halakoak ere badiren.

Sartu zara tabernan eta tabernaria agurtu duzu. Hondoan eskuinean dagoen mahaia otu zaizu egokiena eguna lasai amaitzeko. Hara joan zara ezer eskatu aurretik mahai gainean karpeta utzi, eta lekua erreserbatua dagoela argi uzteko. Bada ezpada.

- Zer moduz doa eguna? - galdetu dizu tabernariak.
- Beno. Ezin kexatu - atera zaizu ardoa basoan isurtzen begiratzen duzun bitartean.
- Hau nire kontura.
- Mila esker - eta trago batez edan duzu.

Bigarrena eskatu duzu. Honakoa zure kontu. Lasaiago edango duzu. Eskuan gelditzen zaizkizun txanponak kontatu dituzu. Tabakoa erosteko ez zaizu iristen. Hori eramangaitzagoa egingo zaizu. Lurrean jarri dituzu begiak. Ezin garbiago dago dena. Bezero gutxi dabil oraingoz. Pena.

Mahaira joan, basoa utzi eta eseri egin zara. Leku aproposa. Taberna guztia zure ikus eremuan. Inor ez zure atzean. Hala gustatzen zaizu. Karpeta ireki duzu azken aldiz.

Arranoa bere egun libreaz gozatzen ari zen. Hegaldi luze eta altuak egiten zituen. Gero hegadak mugitzeari utzi eta gozamen izugarria izaten zuen haizearekin jolasean. Noizean behin elikagairen bat aurkitzen zuen behe-behean, bere ikusmen harrigarriarekin. Harrapakinarekin jolasten zuen. Baietz harrapatu, ezetz harrapatu. Eta nahikoa dibertimendu izan ondoren, zast! barrura. Abiada bizian zuzentzen zen harrapakinarengana, eta berdin zuen harrapakinak zuen bizitasuna, eta abiada ere. Normalean lepotik heltzen zituen erabakia hartzen zuenean. Baten batek ihes egin zion inoiz, baina egun txar bakan horietako batean izango zen. Ariketa politik izan ohi ziren jolas ehiza horiek, eta forman mantentzen zuten. Atsegin zitzaion egun libreetan ariketa egitea. Gero gusturago jaten zuen.

Arranoa bere jolasean haizearekin norgehiagokan ere, apur bat urrundu zen bailarako hegaldi eremutik. Haize finaz gozatzen ari zen, begiak itxita. Zurrunbiloren batean sartu eta gora eramaten uzten zen. Zurrunbilotik atera eta beherantz jotzen zuen. Kilimak eragiten zizkioten ariketa haiek. Besteek ur parkean izaten zituzten esperientzia zirrargarri horiek, baina berak, egia esan, ur parkeari ez zion etekinik ateratzen. Bazkidea

zen, nola ez, derrigorrezkoa zen bailara hartan, baina oso gutxitan erabiltzen zuen txartela. Lagunek behartuta besterik ez zen ur parkera abiatzen.

Pirueta batez gozatu ondoren begiak zabaldu zituen arranoak ikuspegi ezin ederragoaz gozatzeko. Begiak irekitzeak baina, sorpresatxoak ematen dizkigu maiz. Eta egun hartan hala gertatu zitzaion arranoari berari ere. Harritu egin zuen urrutian ikusten zen lanbroak. “Zer izango ote da hori?”. Giro sikua zegoen aspaldi hartan bailaratik kanpo, eta ez zen hodeirik ere ikusten. Sorpresa izan zen beraz lanbro, gandu hura begiztatzea. Urruti ikusten zuen, eta gerturatzea erabaki zuen. Kuriosidadea piztu zitzaion, eta ariketa gehiago egiteak ere ez zion kalterik egingo. Ez horixe. Zirrara bereziarekin urdailan, hegoak eragiteari ekin zion.

Gerturatu ahala gandua horiztatzen joan zen, edo hala iruditu zitzaion arranoari behintzat. “Zer demontre...?” Lanbro horizta horrek hautsa zirudien. Haize bolada zakar batek altxatutako hauts piloa. Baina han ez zebilen haize bereziki fuerterik.

Beherago abiatu zen ezer topatuko zuelakoan, harrituta baitzebilen. “Zer da hori baina? Zer dira bulto horiek guztiak?” behera joan ahala, ikusmena zabaltzen zihoakion heinean, entzumena ere bizitu zitzaion. Burrunbada zetorkion behetik. Hautsa ez zuen haizeak altxatzen. Animalia talde handi bat zen. Milaka eta milaka. Ez zihoazen azkar, hala moduz baizik. Denetarik ikus zitekeen talde hartan, baina bereziki hezurak nabar-

mentzen ziren. Hezurak eta azal fin zimurtuak.

Arranoa ez zen gehiago jaitsi ikusiko zuten beldurrez. Txundituta zegoen ikuskizunarekin. Inoiz ez zuen halakorik ikusi. Zurrumuru zenbait iritsi zitzaizkion belarrira inguruko bailarek nozitzen zuten lehor-teaz. Ez zegoela zer jan ez zer edan nahikoa. Zenbaitzuk entzuna zutela Hipoaren bailarako garapen eta ongizateaz. Aditua zuen inoiz zenbaitek bailarako bidaia abiatzea erabaki zutela, nahiz eta zailtasun franko pasa behar izan. Entzunak zituen halakoak, bai. Baina ez zien gauza horiei jaramon handirik egin. Zenbat aldiz ez ote zituen halako historia lazgarriak entzun, ezerezetik sortuak gehienak. Asperdurak eta zer egin berezirik ez izateak sortutako kondaira misterioitsu eta beldurgarriak. Makina bat entzun zituen zenbait gauetan. Iluntasuna baliatuta, zenbat aldiz ez ote zuen etxerako bidea leku guztitara zelatan egin, txokoren batetik edozer gauza aterako zitzaionaren beldurrez.

Halako ikuskizuna aurrean izanda, ohartu zen zurrumuru horiek ez zirela mitologikoak, egiazkoak baizik. Edo, egiazko bihurtu zirela behintzat. Ez zuen inoiz halako itxura hondatuko animaliarik ikusi. Bailararantz zihoazela zirudien. Oraindik bazuten bidea egiteko, eta zeramaten martxan kostako zitzaien iristea. “Apustu horietako asko ez direla oso urrunera iritsiko. Baina erdia iritsita ere zer egingo dute bailaran? Ura eskatuko dute, elikagaia, bizilekua, lana... bailarako oreka apurtuko dute. Bailarak ezingo dio erantzun halako uholde bati.”



Beldurtzen hasi zen arranoa. Zerbait egin behar zen. Hobe zuen berak ez pentsatzea. Hipo nagusiari kontatuko zion dena, eta berak erabakiko zuen zer egin ordura arte bezala. Zailtasunak hobekuntzarako aukera bihurtzen zituen. Beti sortzen zitzaizkion ideia onak. Bailarako garapena ikustea besterik ez zegoen. Hainbeste kostakoa ezin zen orain hilotz hauekin pikutara bota. “Ezinezkoa da. Ezin da. Bailaran ezin da hainbeste animalia onartu.”

Itzulia egin, eta ahal bezain azkar abiatu zen bere bailararantz. “Zergatik aterako ote nintzen nire hegaldi eremutik? Ez nuen horrelako axolagabekeririk egin behar!” Edo bai.

— |

| —

— |

| —



*Ez da morroirik bi nagusi zerbitza ditzakeenik;  
izan ere bata gorroto izango du eta bestea maite,  
edota batari men egingo dio eta bestea begitan har-  
tuko.*

*Ezin zaitezkete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.*

*(Lk 16, 13)*

Ur metagailutik gertu ur araztegia zegoen. Uraren ka-  
litatea ziurtatzeko sortu zuten. Eta araztegian bertan  
laborategi txikitxo bat zegoen, beharrezko trepeta guz-  
tiekin. Ur azterketak egiten zituzten bertan. Noizean  
behin ur lagin bat hartu, eta tentu guztiaz behatu eta  
aztertzen zuten, dena ongi zegoela egiaztatzeko.

Askoren ustez alferrikako lana egiten zen bertan. Ez al  
zuten, bada, betidanik edozein putzu eta urmaeletan  
ura edaten? Ez al ziren, bada, ordura arte edozein ain-  
tziratan bainatzen? Lanpostuak sortzeko baino ez zela  
sortu zioten batzuk. Berez ez zen helburu txarra, araz-  
tegiko langileek sona handikotzat zeukaten-eta bere  
burua. Zer esanik ez laborategikoek. Ikustekoak ziren  
beren bata zuri aratzekin. Ez ote zituzten ura baino,  
batak arazten lantegi xelebre hartan. Laborategikoen

janzkera eta erabiltzen zituzten instrumentuak ikusita, askok parke teknologikoan beharko zutela esaten zieten. Baina beraiek ezetz, beraien lekua metagailuaren ingurua zela.

Ingurukoek ziotena gora-behera, gehiengoek ez zekiten metagailuaren neurriak nolakoak ziren. Ez zekiten zenbat ur metatuta zeukaten lur azpiko metagailu hartan. Eta ez zekiten ere urak zirkulatzen duen bitartean arazorik ez dela sortzen, baina ura geldirik dagoen momentutik mikrobioak lanean hasten direla, eta iris daitekeela puntu bat ura kutsagarri, eta hilgarria bihurtuko dena. Bizi iturri izatetik heriotz iturri izatera igaro daiteke, bai, ura. Ia gauza guztiak bezala.

Hipo nagusiak arrisku horiek guztiak ezagutzen zituen, eta horregatik sortu zuen araztegia, bere laborategi eta guzti. Lana sortu bai, baina metatutako ura ez pozoitzea zen bere helburu nagusia. Metagailuak aurreikusitako neurri guztiak gainditu zituen egunetik abiarazi zuen Hipoak araztegiaren proiektua. Dena zeukan buruan. Baina araztegia muturreko, edo badaezpadako kontrol neurri bat zen. Normalean erabiliko ez zena. Metagailuaren baldintza egokiak ur kontsumoak kontrolatuko zituen. Zenbat eta kontsumo handiagoa, zenbat eta ur zirkulazio gehiago, are eta uraren kalitate hobea. Kontsumoa handitzen zen heinean hazi zitekeen, era berean, metagailua.

Kontsumoa bermatu behar zen nola edo hala. Hori zen lehen legea. Kontsumoa bermatuta, kontsumoa puztuta, metagailuko urak gehiago zirkulatzen zuen, eta ura

kutsatzeko arriskua nabarmen jaisten zen. Horrek bere ifrentzua zeukan ordea: kontsumoa handitzeak metagailuaren hornikuntza handitu beharra zekarren. Bestela akabo inbentoa.

Arazoa zen zerutik geroz eta ur gutxiago bildu zitekeela, euri eskasiaren tamaina zela eta. Horregatik bultzatu nahi zituen Hipoak ura sortzeko bide berriak. Ura sortzeko sistemak asmatzen ziren heinean, gehiago kontsumitu, eta ur kalitatea nola hala bermatu ahal izango zen. Hipoak ur gehiago erabiltzera eraman nahi zuen bailarako biztanleria, zirkulua egoki ixteko, eta metagailuan geroz eta ur gehiago pilatzeko. Ekuazioko edozein aldagaik kale eginez gero gainbehera etor zitekeen guztia.

Errutinazko azterketa batean gertatu zen. Araztegitik ur lagina hartu eta laborategira eraman zuen katuak. Bata zikindu gabe noski. Betaurrekoak jarrita zeramatzan. Baita latexezko eskularruak ere. Egunean bi eskularru pare erabiltzen zituen. Bat goizeko lagina aztertzeko, eta bestea gaueko analisia egiteko. Xiringaren bidez bete zuen probeta. Kontu handiz laborategira eraman zuen. Eta han mikroskopikoan tanta bat jarri zuen.

Lankideekin hitz egiten ari zen bezperako futbol partidaz-edo. Eguneroko martxa berberean zebiltzan.

- Burua sartu izan balu sikiera!
- Ez zegoen zer eginik. Ahaztu. Bigarren mailara goa-

txik.

- Isil hadi! Oraindik hiru partida gelditzen dituk liga amaitzeko, eta salbazioa hiru puntura diagu. Aurkari nahiko samurrak zeuzkeagu gainera.

- Orain arte aurkari xamurrak gainditu ez badizkik, zergatik uste duk hurrengo hiru partidatan lortuko dianik? Zulora! Aurten zulora goatxik. Onartu beharra diagu, ez duk ezer gertatuko. Ongi etorriko zaiek alferrontzi horiei. Ea horrela iraultzatxo bat egin, eta berriro lehen-go puntxa berreskuratzen diaten.

- Nik bai emango diat puntxa, bai. Piztu ezak argia mesedez, ez diat ongi ikusten.

Klik.

- Zer demontre da hau? Ez dut sekula halakorik ikusi...

- Bi H eta O bat dira. H<sub>2</sub>O. Ura.

- Isildu hadi eta etorri hona, kontxo!

- Ea zer aurkitu duen gure Einsteinek... Joño! Kendu, kendu hortik, itzala egiten didak eta. Ba ez diat sekula halako bitxorik ikusi. Ur kalitateko departamentu buruari deitu beharko zioagu hau erakusteko. Behingoz zerbait berria!

- Hi, nik aurkitu diat e!

- Esan genian bion arteko aurkikuntza izango zela. Ez al gintuan horretan gelditu?

- Bion artekoa, bai, baina nik ikusi diat lehenago. Hori bai esan behar zioagu buruari.

- Alproja galanta egina hago.

- Zein duk bere zenbakia?

- Bat zazpi bi. Oraindik ez jakitea ere!

- Ale!  
Bat. Zazpi. Bi.

- Serafin, bai. Ni naiz, Altxor... Laborategira jaitsi al zaitzke mesedez... Ez, zerbait aurkitu dugu ur laginean. Ez gara identifikatzeko gai... Bai... ados... Bai, bost minutu. Orain dator.

- Zer esan du?

- Apur bat larritu dela esango nuke nik. Bost minututan hona etortzeko...

- Ez da ezer larria izango ezta? Pentsa metagailu guztia alperrik galtzen bada... gureak egin du!

- Ez halakorik esan mesedez...

Isiltasuna jabetu zen laborategiaz. Ez zen hitz egiteko girorik. Ahaztuak zeuden futbola eta bigarren maila. Ahaztuta argiak eta itzalak. Norbera bere baitan gorde zen. Hausnarrean. Zer izango ote zen begi aurrean zeukatena?

Ateko danbatekoak atera zituen beraien baitatik.

- Ea ba, erakutsi. Non dago lagina.

- Ez dugu mikroskopiotik mugitu.

- Piztu argia.

- Piztuta dago jauna.

- Kendu paretik orduan.

Begia mikroskopioan paratu zuen nagusiak. Begi bat itxita zeukan, baina bestea ez. Bestea ireki irekia zeukan. Mikrobioa ezagutu asmoz zebilen. Eta baziru-

dien, zenbat eta begi irekiagoa izan azkarrago ezagutuko zuela. Burua altxa zuen bat-batean.

- Zeinek aurkitu du hau?
- Biok jauna.
- Utzi ergelkeriak, zeinek hartu du lagina!
- Nik jauna.
- Nondik hartu duzu lagina preseski. Eta zein xiringarekin. Xiringa garbia al zegoen? Eta ontzia?
- Esterilizatua jauna. Nik ireki dut poltsatsoa laginaren bila joan naizenean. Betiko lekutik hartu dut ura. Araztegi irteeratik.
- Har ezazu beste lagin bat, eta ekarri ahal bezain laster. Hau konfirmatu egin behar da. Lagin batek ez du informazio nahikoa ematen.
- Banoa.

Eskularruak kendu, berriak jarri. Armairutik xiringa berri bat hartu. Eta korrika bizian atera zen Altxor laborategitik. Bihotza danbaka zeraman. Ez zuen inoiz halakorik bizi. Filmetan baino ez zuen halako egoerarik topatu. Ez zegoen horrelako egoeretara ohitua.

- Zer da Jauna?
- Hori E-txoli mikrobia da. Ez da larria, baina alarma moduko bat da. Abisu bat. Ur geldoetan sortzen da. Berehala zabaltzen da, eta beste mikrobio arriskutsuen sorrera eragiten du. Gure araztegia ez dago mikrobio hauei aurre egiteko prestatua. Parke teknologikokoekin hitz egin beharko genuke, mikrobio hau neutralizatzeko osagai kimikorik-edo baduten jakiteko.

- Eta ez badute?

- Ez badute, garatu beharko dute, ezta? Zerbaitetarako ari dira lanean! Bestela ur zirkulazioa handitzen badugu mikrobioaren garapena neutralizatu dezakegu. Ur kontsumoa handitu beharko litzateke. Baina ez dakit garai egokia den horretarako. Lehortea dela eta, Hipoak aurrezteko plana martxan jarrita dauka. Eta gure kontsumoa kontrolatzeko agindu zigun.

Danba!

- Hemen dakart eskatutakoa.

- Beno, lehenengo gauza aurreko lagina ona zela egiaztatzea da. Mikrobio bera azaltzen bazaigu, egiaztatutzat joko dugu aurreneko aurkikuntza, eta berehala parke teknologikoarekin eta Hipo nagusiarekin hitz egin beharko dugu.

Espero bezala, baieztatu egin zuten E-Txoli mikrobioaren presentzia uretan. Laborategiko jendeak oso mekanikoki lan egiten zuen, eta ezin zuen hutsik egin. Egunero-egunero gauza bera, era berberean, aldaketa txikiena, ere, egin gabe.

Serafin, arranoarekin gurutzatu zen Hipoaren bulegora zihoala. Abiada bizian zetorren, buru makur, kezkatua-  
ren itxura guztiarekin. Agurtu ere ez zuen egin arranoak. Ikusi ere ez, esango luke berak. Baina, nahiko arazo larriak zeramatzan esku artean araztegiko buruak





Hipoari kontatzeko, arranoaren xelegekeriekin denbora galtzen hasteko.

Hipoaren jauregira iritsita, idazkariaren atea jo zuen kontu handiz. Honek sartzeko esan zion. Bulegoko besaulkian itxoiteko, Hipoa telefonoz ari omen zen eta.

- ... bailarako armiarma guztiak bildu eta emaezu hurrengo agindua argi eta garbi: sarez josi dezatela bailararen perimetro guztia. Sare altu altuak. Hiru sare. Bai. Bata bestetik hamar metrotara. Ahalik eta sare sendoena egin dezatela. Kemen guztiz lan egin behar dute. Gelditu gabe. Bai. Bai. Ez dakit zenbat denboran iritsiko den hona animalia basati andana hori. Bai. Hemendik ehun bat kilometrotara. Poliki zetozen, baina ez da denborarik galdu behar.

Behin sareak ondo eginak daudela triku guztiei deitu. Bai trikuak. Ez al dakizu pintxo beteta dutela azala? Azkarragoa izan behar da. Bai. Entzun. Trikuak hiru sareen gainean jarriko dira, Inork sarean gora egiteko tentaziorik badu trikuen ziztada jasotzeko. Zenbat triku? Denak, hala behar baldin bada! Kalkula ezazu perimetroa, eta egin bider hiru. Triku bat metro erdiko. Bai. Ezin da zirrikiturik txikiena utzi. Ez.

Lehenengo eta bigarren hesien tartean hienak guardian. Zortzi orduko guardian. Bai. Zenbat hiena ehun metroko? Ez, hainbeste ez. Hiena hauek usaimen eder-rra dute, nik uste 500 metroko bat jartzearekin nahiko izango dela. Bai. Egunak 24 ordu. Hiru txanda egunean. Ba al daude nahiko hiena? Bestela otsoei deitu, horiek

ere lana ongi egingo dute.

Bigarren eta hirugarren hesiaren artean panterak. Bai. Hienak bezain beste. Hiru txanda. Erne uneoro.

Gauerako ipurtargi andana perimetro guztian zehar. Trikuen artean tartekatuak. Bai. Ez dakit zenbat sartzen diren. Dena nik esan behar al dizut. Egin ezazu zuk kalkulua, redio!

Serafinek idazkariari begiratu zion. Honek begirada itzuli zion, eta besagainak altxatu zituen, bera bezain harrituta zegoela adierazteko. Ez zirudien Hipoak egun ona zuenik. Berak eman behar zion berria jaso aurretik horrela bazegoen, nola erantzungo ote zion. Eskuak izerditzen hasi zitzaizkion. Besaulkian postura aldatu zuen, eta mahaian zegoen aldizkari bat hartu zuen esku artean, zerbait egite aldera.

- ... egunez saiak goitik zelatatzen. Hesitik haruntzago ere joan daitezke. Hilotzen bat topatzen badute, jaso dezatela merezitako saria. Horrela inguruko animaliak ikasiko dute bailaran sartuz gero zer topatuko duten. Bai. Bai, gauean txanda aldaketa. Hontzak, eta saguzarrak. Saguzarrak nahiago, baina nahikoak ez badaude hontzak.

Nik uste horrekin hasteko nahiko izango dela. Segur-  
tasuna ziurtatu behar dugu, bailarako biztanleak lasai  
bizitzen segi dezaten.  
Hesitura barnean topatzen den kanpotarra bere bailara-

ra itzulia izango da. Ez dutela zertaz bizi bere bailaran? Eta hemen? Batzuei sartzen uzten badiegu geroz eta animalia gehiago etorriko dira, eta gureak egingo du orduan. Ez dago segurtasuna bermatzerik horrelakoak hemen kontrolik gabe sartzen badira. Zorrotzak izan behar dugu, eta honuntza datozenak konturatu behar dira hemen ez dagoela lekurik beraientzat.

Kartel handitan idatzi. Bai. Kanporatua. Bere bailara-  
ra itzulia. Ezbairik gabe. Hori da. Bailarako segurtasun  
kontseilua. Jar itzazu hesiaren perimetro osoan ehun  
metroko bat. Hori da.

Aizu eta segurtasunean lan egingo dutenei sari ederra  
eman. Ezinbesteko lana egingo dute bailararentzako.  
Hori da. Oso ederki. Bai. Hitz egingo dugu. Aio.

Klink! Eta hasperen luze bat. Boliak erritmikoki mahaia-  
ren gainean jotzean soinua ateratzen zuen. Ta, ta, ta...  
Serafinek Hipoaren beste eskua kopetan irudikatu zuen.  
Kopeta izerdituan. Purua itzaliko zitzaion seguruenik,  
hautsontzian errautsa eta azken ke bufadak.

Idazkaria, eserlekua atzerantz mugituta jaiki egin zen,  
ordenagailu pantailari begiratzeari utzi ostean. Hi-  
poaren bulegoko aterantz abiatu zen. Kax, kax, kax.

- Zer da?

- Serafin hemen duzu zure zain. Sartzeko esango al  
diot.

Suspirio bat, "ea zer dakarren honek orain" esango balu

bezala. Serafinek eskuak galtzetan lehortu, besoak izterretan bermatu eta jaiki egin zen. Aldizkariak denboratxo bat zeraman mahai gainean ordurako. Idazkariak keinu abegikorra egin zion, atea zabaldu bitartean. Eskerrak eman zizkion Serafinek begiradaz.

Burumakur sartu zen bulegoan. Aurpegia goratu zuenerako Hipo nagusiak hankak mahai gainean zituen, eta erdi etzanda zetzan besaulkian. Eskuak gurutzatuta zituen, Entzuteko prest.

- Zer berri On Serafin!

- Ba, zertxobait aurkitu dugula araztegiko laborategian... eta beno... zuri komentatzea pentsatu dut, serioa izan daitekeelako...

- Bota ba!

- Zeraa... baa... mikrobio batzuk topatu ditugu araztegiko ur laginetan.

- Mikrobioak? Eta? Ez al dago ura beti mikrobioz betea?

- Zera... bueno... mikrobio hauek sirena mikrobioak deitzen ditugu, eta ez arrain buztana dutelako preseski. Alarma mikrobioak dira. Zerbait gaizki doala adierazten dute, eta berehala alarmari erantzun ezean, zerbait larria gerta daitekeela aditzera ematen duten mikrobio horietakoak topatu ditugu.

- Zer gertatzen da ba? Zergatik jo dute sirena?

- E-Txoli mikrobio hauek ur geldoetan azaltzen dira. Horrek adierazi nahi duena da, metagailuan ur korrontea, ur zirkulazioa galtzen ari dela. Geroz eta handiagoa da metagailua. Eta nire irudipena da, lehorrea dela eta, biztanleriaren artean sortu den kezka ur kontsumoa

murriztera eraman duela. Kontsumoa murriztean, ura geroz eta geldoago dago, geroz eta denbora gehiago igarotzen du metagailuan, eta horrek arriskua sortzen du.

- Hori ezin dugu inolaz ere onartu. Metagailua kutsatuz gero bailararenak egin du. Hitz egin al duzu ur departamendukoekin?

- Bai, baina zuregana bidali naute.

- Arazoak daudenean denak niregana. Noiz hartu behar dute ardura nire azpikoek? Zer irtenbide ditugu?

- Lehenik eta behin, al bait azkarren, kontsumoa handitu behar da. Ez dakit hori nola egin dezakezun, baina aurkituko duzue era. Ezta?

- Kontsumoa handitu? Bai, bai. Ezinbestekoa. Gertatzen dena da orain gutxi aurrezteko garaia zela adierazi nuela publikoki. Halere lehentasun guztia du metagailuaren hazkuntzak. Aterako ditugu lege berri batzuk, jendea kontsumitzera eramango dutenak.

- Bai, zerbait egin eta azkar, kontsumoa txikituz gero, metagailuaren hazkundera geldituko da, eta ura kutsa daiteke, dena galtzeraino.

Hipoak mahaitik jaitsi hankak, eta lurrera begira gelditu zen. Serafinek ere isilik segitzea erabaki zuen.

- Ez litzateke tontakeria bigarren metagailu bat eraikitzen hastea bada ezpada.

- Hori ondo legoke bai - baietsi zion Serafinek - bestela arrisku larrian segituko genuke eta. Nahiz eta parke teknologikotik berri on bat jaso dudan.

- Berri on bat? Esan azkar mesedez, azken aldian ez dut

halako bakar bat ere aditu eta.

- Produktu kimiko berri bat lortzear dira. Ur geldoetan E-txoli mikrobioen ugalketa mugatzen omen du. Hori ere soluzio bat izan liteke. Baina ugalketa mugatzeak ez du esan nahi, guztiz deuseztatzen duenik. Eta bestalde oraindik ez dituzte produktuaren albo-efektuak ikertu. Denbora bat beharko dute horretarako.

- Albo-efektuak? Metagailua kutsatzen bada orduan bai ez zaigula axolako ez albo ez goi-efekturik. Albo-efektua... Ba ea lortzen duten behingoz. Dei bat egingo diet, gelditu gabe lan egin dezaten. Emango zaie nahi duten saria baina nola edo hala egun batzuen buruan produktua erabilgarri izan behar dute bazpare.

- Zure esku orduan?

- Bai. Mila esker, joan zaitezke. Egun hauetan kontrol zorrotzagoak ezarri araztegian, eta informa nazazu edozer topatzen duzuela ere.

- Ados.

Buelta eman eta aterantz abiatu zen. Karga handia sumatzen zuen Hipoaren bulegoan, baina bere baitan hustuta zegoen. Bota zuen bota beharrekoa. Bulego hartan utzi zuen zeukan pisu guztia. Atetik ateratzean idazkaria agurtu zuen.

- Hau eguna, jainko maitea. Uuf! - entzun du atetik harantzago. Idazkariak ere ez zuen lasaitasun aurpegirik  
- Gazelaa!! Aste honetako bidaia bertan behera uztazu, eta deitu ezazu ez ohiko gobernu kontseilua mesedez. Bihar goizean bertan denak hemen nahi ditut. Dutzak eta Golf-a behingoz ahaztu ditzatela denek.

- Bai, jauna.

Mahai borobilean eserita zeudenek ez zuten aurpegi onik. Ezta Hipo nagusiak ere. Egoera ez zen samurra. Jolasak amaitu zirela zirudien. Denok jaso zuten metagailua kutsatzeko arrisku larriaren berri, eta batek baino gehiagok ez zuen begirik itxi gau osoan. Pelikanoak adibidez. Berak beste puntu bat haratago eramango baitzuen egoeraren larritasuna.

Bazirudien inork ez zituela faltan bota ez usoak ez pelikanoa. Nola ibili behar zuten denek horrelako zerbaitetaz ez ohartzeko! Aspaldi ez bezalako aztoramena zebilen bailaran.

- Harira joango naiz zuzenean - hasi zen Hipoa - denok jaso duzue araztegia egin duten aurkikuntzaren berri.

- Mmm

- Aurrera egiteko bidea: bat: kontsumoa bultzatzeko neurriak. Bi: metagailu berri baten eraikuntza. Hiru: E-txoli mikrobia deuseztatuko duen produktu kimikoa lortzea. Ea! industria eta ingurumen departamentuko sailburua zein da?

- Neu jauna.

- Proposamenak.

- Bai, beno, klasiko bat egin dezakegu. Parke teknologikoan garatu dituzte kontsumo baxuko zenbait etxetresna eta auto berri. Diru laguntzak emango ditugu jendeak dauzkan produktu zaharrak saldu eta produktu berriak erosteko. Produktu berriek ur kontsumo txikiagoa dute, efizienteagoak dira, baina kopuru handiago-

tan salduko direnez orokorrean kontsumoa handituko dugu. Gainera kontuan hartu ekoizte prozesuak eta hondakinen tratamenduak kontsumoan ere izango duela eragina, gure alde noski.

Beste klasikoa erabiltzea ere ondo etorriko zaigu. Behar berriak sortuko ditugu bailarako biztanleak iragar-kiz bonbardatuz, eta behar horiek aseko dituzten beste hainbat produktu berri jarriko ditugu salgai. Ez du huts egingo. I+G departamenduak etengabe ari dira horretan lanean.

Publizitate kanpaina berak kontsumoa izugarria dakar, baita produktu berriak kopuru handitan ekoizten has-teak ere.

Ez nintzateke alde horretatik asko arduratuko. Bereha-la lortuko dugu ur zirkulazio nahi baina handiagoa.

- Ez, hori ez dugu inoiz lortuko - esan zuen irri eginez Hipoak. Industria eta ingurumen kontseilari horrek beti hobetzen zion aldartea. Jeinu bat zen. Denok horrela erantzuten baduzue berehala golf zelaian egongo gara makilei eragiten. Ea ba, bigarren punturako, azpiegitu-ra eta hirigintza sailburua.

- Arazoak ditugu bigarren metagailuaren eraikuntza abiatzeko. Egia esateko arazoak ditugu daukagun me-tagailuaren tamaina handitzen segitzeko ere. Satorrak akituta daude. Ezin dute gehiago. Zahartzen ari dira, geroz eta dedikazio handiagoa eskatzen die zultatze la-nak.

“Kontxo lana erraztu behar dit honek!” pentsatu zuen pelikanoak.

- Geroz eta sakonagora jo behar dute - segitu zuen aze-



riak - Espeziea bera arriskuan dagoela diote. Ez dituzte-  
la umeak ekartzen. Asko jaitsi da jaiotze-tasa satorren  
artean, hain daude bere lanean murgilduta. Geroz eta  
gutxiago dira. Eta geroz eta zaharrago. Handitze lanak  
oso motel doaz.

- Handitze lanak motel doazela?

- Bai jauna.

- Zergatik ez didazu lehenago ohartarazi?

- Ez dut arazorik topatu moteltze horretan. Kontsumoa  
ere moteldu da eta urak metagailuan ez zuen gainezka  
egiten. Zergatik arduratu ba? Nahikoa lan egiten dute  
satorrek.

- Kontsumoa eta hazkundera motelduaz, metagailuak ez  
zuela urez gainezka egiten? Norbaitek azalduko al dit  
hori?

Pelikanoak altxatu zuen hegoa xalo-xalo. Mokoia ireki-  
tzeko indarra ere ez zuen, baina aurretik azeriak bult-  
zadatxo bat eman zionez, hortxe hasi zen hitz egiten.

- Satorrei gertatzen zaien gauza bera gertatu zaie usoei.  
Ezin dute gehiago. Uso gutxi eta zaharrak gelditzen dira.  
Baina satorrak ez bezala usoak errebelatu egin dira. Ez  
dute gehiago metagailuarentzat lan egingo. Gelditzen  
zaien denbora beraiek erabakitzen duten eran erabiliko  
dute.

Bilera gelako tenperaturak gora egin zuen. Kea suma zi-  
tekeen hipoaren papar inguruan. Kea burutik gora ere.  
Sute-alarmak saltatzekotan zeuden. Edozein momen-  
tutan segurtasun dutxak denak blai utziko zituen. Hori

izango zen hoberena agian. Gauza lasaitzeko. Denak hipoari begira zeuden. Zutitu eta atzerantz abiatu zen atzera aurrera urrats azkarrak emanez. Pentsatzen ari zen. Gogor pentsatzen.

- Pikutara satorrak! Pikutara usoak! Agian beraien desagerpena azkartuko dugu. Ordezkatu egingo ditugu. Beste norbaitzuk egingo dute haien lana.

- Barka jauna - berriro ere azeria - baina saiatu gara ordezkooak bilatzen. Alperrik baina. Ez dugu lan hori egin nahi duen inor topatu.

“Hori bai dela ona, to!” pelikanoak bere baitan. “Usoak ere ez dut uste inork ordezkatu nahiko dituenik. Ondorioak ikusita... desesperatu baten batek baino ez luke halako lanik egingo.”

- Zenbaitzuk behartuko ditugu lan hori egitera! - bota zuen hipoak barru-barrutik.

Kontseilariak baina hazita zeuden ordurako.

- Jauna - arartekoak - esklabotza garaiak atzean utzi genituen. Gaur egun gutako norbait behartzen baduzu, iskanbila sor daiteke. Eta hori da gutxien behar duguna garai honetan.

- Zuk esan duzu hitz magikoa! - dir-dir egiten zizkioten begiek hipoari. Argia ikusi zuela zirudien - Ez dugu gutako inor behartuko. Ez dugu inor behartuko azken finean. Hesi kanpoan dauden animalia mordoilo hartatik aterako ditugu langile finak. Horixe egingo dugu!

Kontseilari guztiak bata besteari begira gora eta behera ari ziren buruaz. Ez zen inongo tontakeriarik. Beste behin ere, Hipoak bere beroaldian mahaiian zabaldu zuen proposamena. Ez jauna. Ona zen. Oso ona. Saltatzeko zeuden sute-alarmaak epeldu egin ziren. Kea desagertu zen. Giroa freskoagoa egin zen. Arnasgarriagoa.

- Barne saila bitan banatuko dugu. Txakurrak barne sailburu izaten jarraituko du, eta inmigrazio sailburutza otsoaren esku utziko dugu. Bere ardura izango da bailarara sartzen direnentzat kontrol ezin zorrotzagoa diseinatu eta aurrera eramatea. - bilera amaitu nahi zuen Hipoak - Laburbilduz, beraz, kontsumoa handituko dugu, usoak eta satorrak etorkinekin ordezkatzeko ditugu, eta bigarren metagailua eraikitzeari ekingo diogu.
- Hirugarren txoke-plana falta zaigu.
- Zer?
- Produktu kimiko berri horrena.
- Beno, bai, hori ere aurrera eramango dugu. Baina jada ez diot halako garrantzirik ikusten.

┌

┌

└

└

*Ez zapaldu etorkirak zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton.*

*(Ir 22, 20)*

Azeria bero-bero itzuli zen etxera. Aspalditik zuen metagailuaren ardura bere eskuetan, eta konturatua zen harrezkero Hipoak ez ziola inolako kontrol esturik ezartzen metagailuaren martxari. Kontrol guzti-guztia bere eskutan zuen. Edozer gauza eginda ere Hipoa ez zen jabetuko berak esaten zion arte: ez zekien zenbat ur iristen zen, ezta zenbateraino handitu zen zehazki metagailua. Momenturo metagailuak gordetzen zuen ur kopurua ezezaguna zitzaion Hipoari. Horrek, aspaldian, tentazio handi bat sorrarazten zion bere baitan: bere txaleterako metagailu pribatu bat egitea. Berak zuen terrenoaren azpian zulo handi bat zula zezakeen. Ondoren hodiak bota Hipoaren metagailuraino, eta han zulo txo bat egin. Ez zen zeregin konplikatuegia. Sekretua zen, bere etxeko ur-biltegia nahikoa behean eraikitzea, Hipoaren metagailuan egingo zuen zulo txoa baino beheiago, urak arazo gabe zirkula zezan Hipoaren metagailutik azeriaren jabego pribatura. Ura barra-barra, inoren kontroletik kanpo, nahierara erabiltzeko.

Bai, behin baino gehiagotan etorri zitzaion tentazioa burura, baina beti atzera bota izan zen. Orain, ordea, gauzak aldatu ziren. Hasia zen jada plana aurrera eramateko bideak pentsatzen, eta eginak zituen zenbait gestio. Izan ere, azken gobernu kontseiluan azaleratu ziren arazo guztiak etorkizun hurbil kezkarria iradokitzen zuten. Hipoak, beti bezala, erantzun-plan eraginkorra prestatu zuen, baina bilera hartan entzundako ezkilek ez zuten ezer onik iragartzen. Zeuzkan duda guztiak uxatu zizkioten. Aurrera eramango zuen bere metagailu propioa sortzeko plana, Hipoaren metagailutik bertatik ura lapurtuz. Isilik gordetzeko nahikoa lan erraza zela bazekien, gobernuak geroz eta kontrol txikiagoa ezartzen baitzion metagailuari. Halere gauzak ahalik eta hobekien egin behar ziren, den-dena ezkutan gelditu zedin.

Horregatik zegoen beltzez jantzita gau hartan. Nekez ikusiko zuen inork azeria halaxe jantzita, metro batera gerturatuta ere. Buzo iluna zeraman soinean. Frontal bat buruan. Gerritik zintzilik aihotz bat, eta kantinplo-  
ra urez beteta.

Kanpandorreko erlojuak gaueko hamabiak eman zitue-  
nean, den-dena isil-isilik zegoela egiaztatuta abiatu  
zen etxetik. Kontu handiz, soinu txikiena ere egin gabe.  
Kale ilunenetatik ibili zen, normalean sekula ibiliko ez  
zen haietatik. Farola hondatuak zituzten bazterretatik  
hiriko zoko baztertuenetara iritsi zen, eta handik al-  
dirietara. Bertan lasaixeago ibil zitekeen. Argindarrik  
ez, eta etxeak barreiatuagoak. Ezkutuan ibiltzeko zer

egokiagoa?

Hiriaren muga zabor biltegiak jartzen zuen. Muga zaindua zegoen baina bertako guardiak beti lo kuluxkan egon ohi ziren. Arazo gabe egin zuen aurrera bide zailagoetara. Sastrakek, landaretza eta zuhaitzek traba egiten hasi zitzaizkion, oihanean sartzen ari zenaren seinale. Aihotza erabilgarri gertatuko zitzaion. Frontala pizteko garaia ere iritsi zitzaion.

Ilberria zen, gau iluna. Oihana ere lo zegoela zirudien, baina isilik ez. Oihana ez dago inoiz isilik. Aurrera segitu zuen, baina bat-batean frontala itzali eta makurtu egin zen sastraka baten azpian. “Zer demontre da hori?” Argia ikusi zuen urrutian. “Zein ibiliko ote da hemen ordu hauetan!” Muturtuta, makurtuta eta kontuz segitu zuen zarata ere sumatu zuen arte. Burua altxatu zuen zerbait argituko zion ezer ikusteko esperantzaz. Baina oraindik ez, oraindik ezin asma zeintzuk eta zertan zebiltzan. “Baina zer ari dira egiten hemen, oihan erdian?” Gerturatzeara erabaki zuen, nahiz eta horretarako bere bidetik zerbait urundu behar izan.

Metro batzuk aurreratuta ikusi ahal izan zituen armiar-mak jo eta su lanean ipurtargien laguntzaz. “Bai azkar hasi direla mugako sarexka eraikitzen! Eskerrak ni ere bizkor mugitu naizen, bestela geroz eta zailago izango da muga pasatzea ezarriko dituzten kontrol zorrotzekin.” Pozik eta ikusmina aseta itzuli zen bere bidera azeria. Baita arro ere, bailaran gauza garrantzitsuak zein bizkor eta nolako erabakimenarekin eramaten ziren aurrera egiaztatuta. “Dena honela egiten bada, ziur

egongo gara gurera etorri nahi duten etorkin arrisku-  
tsuetatik.”

Azkar urundu zen, eta bailaratik haratago joan zen. Frontala piztu eta bizi-bizi bidea egin zuen, noizean behin ibilera oztopatzen zizkioten sastrakak baztertuz edo moztuz. Horrela oihaneko soilgune batera iritsi zen. Bertan egin zuen hitzordua. Han ez zen inor ordea. Erlojua begiratu zuen. Ez, oraindik goiz zen. Baina berehala entzun zuen norbait gerturatzen. Kiratsa ere iritsi zitzaion sudurrera.

Bost kilker eskeletiko ziren. Ezpainak urratuta eta apartxo zurixka batez jantziak, aspaldi urik ukitu gabeak. Gorputz aspaldi garbitu gabeak. Hilzorian ziruditen azeriak kantinplora luzatu zien arte.

- Zuek zarete nirekin etorri behar duzuenak? - galdetu zien ezpainak hezeagoak zituztenean.

- Bai - haien buru egiten zuela zirudienak - hemen gauzkazu zure esanetara jauna.

- Goazen ba. Edan azkar etxera argitu aurretik iritsi behar dugu eta. Han etxola bat prestatu dizuet lur azpian. Lehenik eta behin dutxa bat hartuko duzue hezur axaldun horretan daukazuen kraka guztia gainetik kentzeko. Gustura izango zarete bertan. Egunero ura eta janaria jaitziko dizuet. Baina ordainetan zuek gauero 21:00etatik 9:00tara zuloa egiten jardun beharko duzue adostu bezala.

- Bai, jauna.

- Lehenik eta behin metagailua egingo didazue. Hori



bai, zaratarik atera gabe. Inor ez da konturatu behar ezer eraikitzen ari naizela. Zuen zaratekin bizilagunen bat-edo gerturatzeko bazait bertan akabatuko zaituztet. Entzun duzue?

- Bai jauna.

- Zuen kir-kirrak ahaztu itzazue lana guztiz amaituta libre uzten zaituztedanerako. Adostu bezala behin proiektua amaituta bailaran bizitzeko askatasuna emango dizueten dokumentuak emango dizkizuet. Eta hortik aurrera zuek beste ni bat izango zarete. Libre nahi duzuen egiteko.

- Bai jauna.

- Gogoratu, baina, proiektua amaitua egoteak zer esan nahi duen. Lehenengo metagailua egin behar duzue. Metagailua eginda dagoenean, tunela egingo duzue. Tunela beti aldapa gorantz eta gorantz Hipoaren metagailuraino. Kilometro asko dira nire txaletetik Hipoaren metagailura baina zuek bost izanda, ez duzue arazorik izango tunela martxa onean egiteko. Behin han metagailuan zuloa egingo duzue. Nire metagailuan ura ikusten dudanean emango dizkizuet bailaran bizitzeko behar dituzuen paperak. Ados?

Ez zen erantzunik izan. Kantinplorari azken tanta zurupatu ostean arin-arin abiatu ziren bost kilerrak azeriaren atzetik. Eskeleto horiek ederki mugitzen ziren, erakusten zuten itxurak iradoki zezakeenaren kontra. Ezin hobeto moldatzen ziren iluntasunean frontalaren beharrik gabe. Pozik zen azeria. Egun batzutan boskotea ondo elikatu ostean, langile ezin hobeak izango zituen bere enpresarako.

Itzulerako bidea erraz egin zuten, arazorik gabe. Egunsenti aurretik azeriak bere langileentzako lur azpian atondutako etxolan ziren.

- Orain nekatuak izango zarete. Har ezazue atseden denbora batez, baina ohean etzan aurretik mesez garbi itzazue gorputz zikin horiek, bestela txabola honek ukuilu itxura hartuko du eta. Ura hortxe bertan daukazue, komunean. Gorputzak beharren bat eskatzen badizue ere, hor daukazue komuna. Hemengo gela hau izango da zuen bizilekua lanean zabilzaten bitartean. Bi litera eta ohe bat daukazue, zuek banatu zuen artean nahi duzuen bezala. Mahai bat eta bost aulki. Zenbait liburu eta jolas ere badauzkazue lotan edo lanean ez zaudeten tarte apurretan ez aspertzeko. Zerbait gehiago nahi baduzue eskatu ezazue, eta aztertuko dut eskura dezakedan ala ez.

Egunean behin jaitsiko naiz nola zabilzaten ikustera. Janaria ekarriko dut, jateko beharko dituzuen ontzi guztiekin batera. Janaria eta ontzi garbiak utzi, eta zikinak gora eramango ditut. Hemen hobe da zuek harrikoa egiten ez ibiltzea, zarata handia egingo baitzenukete bestela.

Nire gomendioa egunean zehar lo egitea da, bestela gauak oso nekagarriak egingo zaizkizue eta.

Argi gelditu al zaizue dena? Galderarik baduzue?

- Jauna noiz hasiko gara lanean?

- Orain lasai egon egun batzuetan. Nik janaria jaitsiko dizuet. Zuek lasai egon eta jan, indarrak berreskuratzeke. Gorputz mehar horiek bete behar dituzue gano-raz lan egin ahal izateko.

- Eta non da gure lanpostua?

- A! Hori ahaztu zitzaidan! Hemen armairu honen atzean daukazue pasabidea - armairua esku batez mugitu eta zulo bat ageri zen - Hamar bat metro daude zulatuak. Hortik aurrera zuen lana izango da. Eta oso garrantzitsua, zuloan sartzen den azkenak armairua bere tokian jarri behar du pasabidea ezkutatua gera dadin. Bada ez bada, inoiz ezin da bat ezertaz fidatu.

Ea ba, nahikoa da, segi ezazue garbitzera bestela hemen denak kiratsetan itoko gara eta.

Hori esanda atea ireki eta eskaileretan gora abiatu zen azeria. Buzo beltz zikina gainetik kendu nahi zuen. Dutxa eder bat hartu, ondo gosaldtu, jantzi eta lanera txukun-txukun joan behar zuen, egunero bezala. Nekeari aurre egiteko pilula bat hartuko zuen, nola ez, bestela ez zen nor.

Bitartean bost kilkerak bere oheak aukeratu, eta txandaka komunetik pasatzen hasi ziren. Bazuten gogoia, bai, dutxa on bat hartu, eta garbi eta goxo egoteko. Ez sinistekoa zen. Ur zorrotada bat gorputzean, buruan, ahoan. Zabaldu, itxi, zabaldu, itxi, edan, bota, urarekin jolastu. Noiztik halakorik egin gabe? Azkenean lortu zuten. Hainbeste denborako borroka lazarri eta sufrikarioren ostean saria iritsi zitzaien. Eta dutxako ur tanta gezen artean tanta gaziak nahastu ziren Idris -kilkerra bere amaz oroitu zenean. Bere besoetan hil zitzaion amaren azken begirada etorri zitzaion gogora ur zorrotadak gorputza goxatu zion momentuan bertan. Urak, lehortuta zeukan bihotz gogortua busti eta bigun-

du zion. Bihotzak ur guztia xurgatu zion bere baitan belakiak lez, eta gero bihotz xamurtu berria urtzen hasi zen, jariatzen zuen ur horrek gorputza elikatzeaz gain begiak ere elikatzen zituela. Idrisek, indarge, gorputza horman behera erortzen utzi zuen, tanta bat bailitzan, eserita gelditu zen arte, malkotan blai.

Ama bularretatik hustu zen, bost seme alabak elikatuz. Zeukan eta zen guztia eman zuen bere bost kuttuntxoak aurrera atera zitezten. Egoera larri hartan etorkizun bat izan zezaten. Berak erabaki zuen sorlekua utzi eta bidean jartzea senarra hil zitzaionean, lehorreak bestela denak kenduko zizkionaren beldurrez. Senarra bezala. Ezin besterik egin, ezin baitzuen Idris bakarrik bidali, hamabi urtetxo bete berriekin. Entzuna zuen bazela ur eskasiarik gabeko bailara bat. Denontzako nahi adina ur ei zeukan bailara bat. Eta denbora gehiago galdu gabe, harantz abiatuko zen. Talde batekin batera egin zuen martxa, etxea saldu eta eraman beharreko traste apurrak zakutoan bildu ostean.

Hiru ume helduenak oinez zihoazen, eta bi urteko Alem Idris-en bizkarrean, baina bederatzi hilabeteko Xume bizkarretik bularrera eta bularretik bizkarrera zerabilen indarrak ahitzen zitzaizkion arte.

Hamalau ordutako ibilaldiak egiten zituzten, egun guztian janaririk ahoratu gabe. Berehala amaitu zitzaizkien etxetik hartutako elikagaiak, eta bosgarren egunetik aurrera bidean aurkitzen zutenarekin egin behar zuten aurrera. Egun bat ezer probatu gabe. Beste bat. Hu-

rrangoan fruituren bat bosten artean... Bitartean ama bularretik husten. Idris amari adore ematen saiatzen zen etengabe, baina amak Xumeren gorputz geroz eta ñimiñoagoa ikusita ezin zuen gehiago. Barnean izugarri-zko mina sentitzen zuen. Eta ez zen gosea, bera osoki jaten zuen har bat baizik. Umetxoaren aurpegian bi begi baino ez zituen ikusten. Bi begi handi geroz eta betzulo ilun eta hondoratuagoekin. Begiekin batera umetxoaren sabela ere puzten ikusten zuen... Bere inguruan ikusi izan zituen halako umetxoek ez zutela asko irauten, eta bere buruari, bere bularrei egozten zien errua. Bere inguruan ikusten zuenak ere ez zuen gehiago animatzen, denak nabarmenki argaltzen baitzihoazen.

- Jan zuk ama, zuk bigatik jan behar duzu eta - esaten zion Idrisek maitasunez

- Zuek jan, ni moldatuko naiz. Ohituta nago - saiatzen zen behin eta berriro. Ezin zuen jasan bere lau seme alaba helduenak gosetuta ikusita berak jan behar hori. Maite zituen guztiak, apurka-apurka, akabatzen arituko balitz bezala ikusten zuen bere burua. Eta gauetan behin baino gehiagotan herioren jantzia eta sega hartuta alde batetik bestera heriotza zabaltzen ziharduen munstro bat zela amesten zuen, garrasien eta izerdi hotzen artean esnatzen zen arte.

- Ama, Xumegatik egin mesedez. Ez da zuregatik, ez ezazu hori pentsa. Zuk jan behar duzu Xumek ondo jarrai dezan.

Amak azken egunak ohatila batean eman zituen burua erabat joanda. Berekin batera talde osoak aurrera jarraitzen zuen, eta mendi baten magalera iritsita, hel-

burutzat zeukaten bailara agertu zitzaien urrutian lehenengo aldiz begien aurrean. Zoriona eta itxaropena islatu zen taldekide guztien bisai nekatuetan. Egingarria zirudien. Azkenean ez zebiltzan noraezean. Han bertan zeukaten helmuga. Paradisua. Berpizkundera. Berrito ere bizitzen hasteko aukera.

Idrisek ama besoetan hartu zuen. Amak ere ikusi behar zuen hainbeste borroka eskatu zien helmuga. Ikusi behar zuen bere borrokak fruituak izango zituela, bere bost seme-alabak onik aterako zirela. Lortu zuela bere helburua. Ikus zezala bere oinordekoak bizilekutzat hartuko zuten bailararen itxura mardula. Berak emandako bizitza ez zela alferrikakoa izan.

Maitekiro, ahalik eta goxoen hartu zuen Idrisek haustera zihoala zirudien gorpu ahuldua. Ez zion indar fisiko berezirik eskatu aupadak, hain baitzen arina amaz gelditzen zena. Energia guztiak xahutu zituen, ordea, ama ez mintzeko ahaleaginean.

Itxiak zituen amak begiak. Arnasarik apenas hartzen zuen. Bizirik ote zegoen. Eguzki izpi batek aurpegia laztandu zion. Idrisek zerbait xuxurlatu zion belarran. Aurpegiak momentu batez bizia berreskuratu zuen. Begiak kliskatu zituen lipar batez, eta irribarrea marraztu zitzaion zeukan azken ur tanta begitik isuriz agurtu zituenean.

*Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen.  
Pedrori esan zion: "Simon, lotan?  
Ordubete ere ezin izan zara erne egon?"*

*(Mk 14,37)*

Azkar pasa zen atsedean eta berriketarako tartea. Indarrak berreskuratu zituzten, eta lanean hasi ziren. Beraiek ere nahi zuten ahalik eta lasterren amaitu, askatasuna lortu eta beraien senideak lagundu ahal izateko. Baina horretarako jo eta su egin behar zuten lan. Gelditu gabe. Nagusiak uste baina azkarrago egingo zuten. Horretan bat zetozen bostak. Lasaikeri eta erosotasunera ohituta zegoen nagusi alfer hark ez zekien beraiek zein zailduta zeuden, eta zer kemen zuten.

12 ordu behar zutenak, 24 ordu bihurtu ziren. 24 ordu luze pikotxa, aitzurra eta palari eragiten. Zuloa egiten. Txandaka moldatzen ziren. Apenas jaten zuten. Apenas lo egin. Pare bat orduko atsedetak hartzen zituzten. Hasieran. Hasiera gogotsu eta itxaropentsuan. Helburua eta burua garbi dituzunean egiten den moduan. Baina nahia eta ahala ez datoz bat usu. Eta bosteko talde batean bost izaki desberdin daude. Bakoitza bere ezau-

garri eta berezitasunekin. Bere ahulaldi eta indarraldi-ekin. Bere helburu eta itxaropenekin. Historiarekin. Bakoitza bakarra eta errepikaezina. Norberak bere bitxikeriak ditu, eta elkarbizitzak desberdintasun guztiak agerian jartzen ditu. Muturreko egoeretan bereziki.

- Ezin dugu horrela jarraitu. Nik argi apur bat behar dut. Begira zein zurbil gauden. Zenbat denbora daramagu zuloz honetan izerdi patsetan? Nik ezin dut gehiago.

Bi kilker baino ez zeuden atsedenekuan etzanda. Beraien txanda etortzekoa zen, baina batek ez zuen indarrik ez gogorik. Ez zuen beren proiektu horretan sinisten jada.

Bi hilabete zeramatzaten zuloan sartuta lanean gelditu gabe. Ez zen bizimodua hura. Hasieran bai, erraza zen, baina zuloak aurrera egin ahala etsipena zabaltzen joan zen lurrian zabalduko pasabidean zehar. Geroz eta argi gutxiago behar zuten tunelean lan egiteko. Begiak ingurune hartara ohitzen hasi zitzaizkien. Askotan argi izpirik gabe ere lan egiten aritzen ziren iluntasunean egotearen ohituraren ohituraz. Askotan gogorragoa egiten zitzaien argia piztea. Itsutu egiten zituen. Mindu.

- Zertan ari gara bihurtzen? Azaleko kolorea galdu dugu. Argitan itsu bihurtzen ari gara. Pikotxari eragitea baino ez dugu egiten. Lurra zulatu eta mugitu. Zulatu eta mugitu. Zerbait jan, zerbait lo egin eta aurrera. Eta zertarako? Hobe ginen gure lurraldean. Nahiz eta gutxi izan, nahi genuena egiten genuen. Bizi ginen. Hau ez da bizia. Hau heriotza da.



- Orain bai, gogorra da, baina amaitzen dugunean askatasunerako paperak emango dizkigu nagusiak, eta orduan hau guztia irrigarri egingo zaigu. Abentura handi baten moduan kontatuko diogu bailara mardul honetan biziko diren gure biloba zoriontsuei.

- Ez dakit nik egun hori iritsiko ote den...


- Iritsiko ez da ba? Nagusiak esan zigun. Bere metagailura ura eraman bezain pronto kanpoan lasai eta libre bizitzeko behar duguna emango digu.

- Eta gezurra bada? Eta ez bada metagailurik. Eta ez bada urik. Eta honek gu hemen lan eta lan egotea besterik ez badu nahi? Esperimentu bat egiten ari bada.

- Baina zer tontakeriekin zatoz orain? Honek nahi duena bere etxe azpian ur mordoa pilatzea da. Hori ematen badiogu gutaz ez du ezer gehiago jakin nahiko. Behar diren paperak emango dizkigu, hau gobernu kontseiluan baitago. Honek nahi duena lor dezake hari batetik eta bestetik tiraka. Guk orain egin behar duguna da lan egin. Baina jakinda honek epe bat duela. Hilabete gehiago? Beste bi asko jota. Kemena izan behar dugu irauteko, bestela gureak egin du.

- Bi hilabete gehiago? Erraz esaten duzu. Nik ezin dut. Lehertuta daukat gorputz guztia. Minduta ukitu dezakidan edozein puntu. Hemendik gutxira berriro tunelean sartu eta dzanga-dzanga, lurra zulatzera. Nik ez dut nahi gehiago lan egin. Nik ospa egin nahi dut hemendik!

- Baina nola egingo duzu alde? Guztiz kontrolatuta gaudede. Azeria konturatu gabe ihes egitea ezinezkoa da!



Harrapatzen bazaitu bertan akabatuko zaitu!

- Ez nau harrapatuko. Zerbait pentsatuko dut, eta alde egingo dut hemendik. Besteei ere proposatuko diet, eta nahi duenak nirekin egingo du ihes.

- Eta ihes egitea lortuta ere, zer? Zer egin behar duzu? Ezin duzu bailaran paperik gabe ibili. Atxilotu eta kanporatu egingo zaituzte. Kendu ideia zoro hori burutik.

Gure senideak izan behar dituzu gogoan. Gure laguntza-  
ren zain daude kanpoan. Zure seme alabak berriz ikusi  
nahi al dituzu? Etorkizun hobe bat eskaini nahi al diezu?  
Ala zeure baitan baino ez duzu pentsatzen? Bi hilabete  
gehiago lan besterik ez. Asko da, bai. Baina era berean  
gutxi da.

- Beste horrenbeste... Ni zoratzen hasia naiz jada. Nola egongo naiz hemendik bi hilabetera infernu honetan egun bat bai eta bestea ere pasata? Zer izango naiz? Akaso lur zati bat besterik ez naiz bihurtuko. Ez dut ezer ere sentituko, ez pentsatuko. Eldarnioak agian bai, izango ditut. Itsu, gor, mutu. Bizitza zakarretara botatzen ari naiz.

- Bi hilabete besterik ez. Eutsi! Txanda honetan hemen gelditu. Har ezazu arnas gehiago. Etzanda jarraitu. Ni moldatuko naiz.

- Arnasa diozu? Arnasa hartzea bera bihurtu da sufrikario bat hemen. Hemen ez dago zer arnastu kiratsa baikik. Kanpora irten nahi dut! Birikak aire garbiz bete. Lore bat usaindu! Ezin dut gehiago.

- Ea, ba. Har ezazu lo egiteko pilula hau. Nagusiak eman zizkidan bada ez bada indarrak berreskuratzeko arazoak sortzen bazitzaizkigun. Hartu bat, eta gaurkoz

ez lanik egin.

Orduantxe armairua mugitzen hasi zen. Bat bateko zaratak pilula lurrera bota zuen. Iritsi zitzaien lan egiteko ordua. Lankideak egongelan sartzearekin batera pilularen bila makurtu zen kilkerra.

- Zuen txanda. Han dago Agoitz zuen zain. Azkar joan, bestela lo hartuko du eta.

- Ni bakarrik joango naiz. Hau hemen geldituko da indarrak hartzen.

- Zer diozu? Biok joango zarete. Ezin dugu abiada moteldu. Nik ez dut hemen behar baino denbora luzeagoa pasa nahi. Martxa onean goaz, eta hala jarraitu behar dugu.

- Baina ez al duzu ikusten gaizki dagoela?

- Ni ere nago gaizki, eta? Hemen denok nahi dugu askatasuna ahal bezain pronto, eta horretarako ezin dugu geldirik egon.

- Nik hemendik ihes egin nahi dut. Hori esan diot babo honi, baina ez dit uzten. Honi nagusiari ipurdia miatzatzea baino ez zaio gustatzen. Beti izan da nahiko maritxua.

- Zerbait prestatu duzu ala?

- Buruan zerbait darabilt. Edozer gauza zulo honetan sartuta egotea baino hobe. Askatasuna berehalakoan lortzeko aukera. Libre bailaran zehar lasai ibiltzeko. Ez al zaudete gogaituta azeri nazkagarri horrentzako astoen moduan lan egiteaz?

- Bai. Saiatzeak behintzat merezi du!

- Baina zu ere burutik jota al zaude. Honi bezala burua hustu egin al zaizu? Erokeria bat da esaten ari zaretena.

Ez zarete inora helduko.

- Zurekin behintzat ez.

- Begira nik aukera hau eskaini nizuen, eta zuek onartu zenuten.

- Baina ez zenigun esan egun guztia zulo beltz batean sartuta egongo ginenik. Lan egin beharko genuela, bai, baina ez esklabutza.

- Zer beste irtenbide genuen. Egia da gure hoberena Azeri zikinari eskaintzen ari gatzaiarkiola, baina ez dugu beregatik egiten. Nik behintzat neure senideak ditut gogoan. Hemen hilabete batzuk pasa, eta bailaran bizi eta lan egiteko libre naizenean, beraiei laguntza bidaliko diet. Eta hona sartzeko aukera ere lortzeko aukera handiagoa izango dute. Baina bizi berri hori lortzeko orain zenbait denboraz hemen segitu behar dugu. Iraun behar dugu. Esfortzu txiki bat gehiago besterik ez. Las-ter izango dugu ura nagusiaren metagailuan, eta gu kalerara irten ahal izango gara guztiz legalki, paper guztiak soinean ditugula. Eutsi egin behar diogu!

Isiltasuna.

Ez zen hitz gehiagorik entzun denbora batez. Ezpainak itxita, buruari bueltaka. Halaxe gelditu ziren laurak. Bakoitzak punta batean izango zuen hausnarra, baina denak aurrera, etorkizun berri bat zekusaten pantaila txuri batean proiektatuta. Bat emazte eta umeekin zebilen lurrean biraka barrez. Beste batek auto eder bat gidatzen zuen ondoan neska eder bat zuela. Hirugarrena ingurune paradisiako bateko etxe eder baten terrazan eserita liburu bat eskutan. Hamaika amets. Mundua

geldi. Denbora?

Burrunba batek ekarri zituen laurak eternitatetik. Mahaiak eta aulkiak ere dantzatu zituen dardara batek. Armairu mugituaren eta paretaren artean utzi zuten tartetik hauts eta lur bafada bat sartu zen garrasi ito batekin batera.

Bata besteari begira hasi ziren aurpegi larriekin, eta abiada bizian armairua guztiz mugituz zuloan barrena abiatu ziren Agoitzen izena oihukatuz.

Arnasestuka heldu ziren lurrak eta harriek baimena eman zieten tokiraino. Han eskuz eta hankaz harri eta lurra ahal bezain bizkor mugituz Agoitzei dei egiten zioten etengabe. Hor al zaude? Agoitz? Baina erantzunik ez. Lurra eta harriak atera eta atera. Agur nekeak. Agur ametsak. Kaixo denbora. Kaixo larritasuna, eta presa. Ezintasuna. Lau buruetan pelikula bera ematen ari dira itzaltzen dihoan pantaila erraldoian: Agoitz etzanda. Iluntasunak geroz eta tarte gehiago kentzen dio pantailari Agoitz guztiz jan arte. Akabo pelikula. Salako argiak piztu dira.

Lanean jarraitu zuten etsipenez. Negarrez. Non izango da Agoitz? Atsedena hartuko al zuen ja? Lehertuta zegoen bera ere, lanak indarrak eta burua guztiz janak zituena beste guztiak bezala. Eta bakarrik utzi zuten han. Behar baina denbora luzeagoz. Eztabaidak luzatu zituen. Berantetsita lanari ekingo zion arreta guztiz lanean izan gabe. Nekearen nekeaz, egin beharraren egin beharraz, eta beste biren laguntzarik gabe. Beste bik ematen duten segurtasunik gabe. Pikotxarekin jo beharko ez zuen

lekuren batean joko zuen. Beste biak bertan izan balira ez zen gertatuko. Bera ere lanak itota izan ez balitz ez zen gertatuko. Besteek abisatuko zioten hor ez zuela jo behar. Kontuz ibiltzeko alde horretan. Bera ere argiago ibili izan balitz konturatuko zitekeen. Baina ez zen hala izan.

Pikotxa aurkitu zuten lehenengo. Kaskoa ondoren. Eta kaskoan sartuta Agoitzen burua, eta bertan aurpegi espresio gabea. Denbora batez aurpegi ezagun eta era berean ezezagun hori aztertu ostean, lepotik lotuta gorpu hotza. Hilotza. Atera zuten lur azpitik eta besotan eraman zuten prozesioan egongelaraino. Han ohe gainean utzi zuten. Isiltasun izoztu batek jan zuen lur azpiko egoitza iluna.

Azeriak mikrofono itzali bat zuen aurrean. Bere izen abizena zeraman txartel bat bertan bermatua eta lore batzuk aurrerago. Alboan Hipoa zebilen hizketan. Bailarako hotelik luxuzkoenean zeuden. Ekitaldi bereziak egiteko atondutako gela batean. Dotore jantzita. Gorbata paparrean. Giro itogarria. Argi, kamera eta jendeak gelaren tenperatura igo zuten, txaketa eta gorbaten erosotasuna ezbaian jartzeraino. Gehienek ordea tinko eusten zioten. Gizonezko lurrin gogorrek bete zuten gelako eguratsa. Geroz eta kutsatuagoa zegoen aretoa.

Arnas bila begirada atzealdean zegoen ate zabaldura zuzentzen zuen azeriak. Bertatik zapi zuriz apaindu-

tako mahai geroz eta beteagoa ikus zitekeen. Zerbitzari apainak alde batetik bestera plater eta botilak bere lekuan jartzen. Pintxo, jaki eta botila zein baino zein lerdengoak. Aperitifa prest zen ia. Plater beroetako lurrun goxoak gelan sartzeko saiakera egiten zuen, baina indartsuagoa zen barrutik kanpora zihoan emaria. Hala eta guztiz ere ikuspegi hutsak ahoa hertzzen zion. Koktelak. Eskuzabala zen oso Hipoa. Nolako lunch, bazkari eta afaritara gonbidatzen zituen aretokoak. Behin eta berriz. Zein ongi erabiltzen zuen bailaran hainbat eta hainbaten izerdiz bildutakoa. Erlazioak, kontaktuak eta kontratuak egiteko ezin bide hobea zen hura. Janari eta edari ingurua. Baina lehenengo ekitaldiak amaitu behar zuen. Urteko enpresari hoberenarentzako Bizkorra saria.

Bankari, handiki eta agintari geroz eta aspertuagoek enegarrenez ari ziren entzuten bailararen garapenean enpresari ausartek izan zuten eragin ordezkazina. "Gizarte guztiarentzat adibide dira. Eredu. Ezin neurtuzkoa da azeria bezalako jende sakrifikatuak ekarri ditudun onura." Hipoaren hitzok kazetariak baino entzuten ez zituztela zirudien: blok txikietan bolaluma dantza sueltoan.

Saria azeriarentzat zen. Izugarrizko irabaziak lortuak zituen azken ekitaldian. Eraikuntzetarako lurra saltzen hasi zen. Lur ona gainera. Milaka eta milaka tona lur saldu zituen, eta milioikadako mozkinak izan zituen. Inoiz ikusi gabeko igoerarik handiena. Lurra nondik ateratzen zuen misterio bat zen guztiontzat. Horrek ez



zuen garrantzirik ordea. Emaitzak ziren inporta zutenak. Bideak libre. Askatasuna behar dute halako aberastasuna sortzeko gai direnak. Eta azeria, hilabete gutxitan bailara guztiko eskaerak betetzera iritsi zen. Ez zen beste lur saltzailerik gelditzen. Ezagunak egin ziren azeriaren lur zakuak.

Egia esan ongi ateratzen ari zitzaion gauza. Bere etxerako metagailua egitea erabaki zuenetik albo ondorio onuragarriak baino ez zituen izan. Hasiera batean ez zen konturatu bere proiektua gauzatzeko lur kopuru handia bildu beharko zuenik, baina kilkerrek kontua aipatu ziotenean berehala eman zion aterabidea lur horri. Hasieran kilkerrek betetzen zituzten zakuak, baina handik gutxira zakukada kopurua kontuan izanda, ezinezko zen metagailua noizbait beteta nahi bazuen beraien esku uztea lan guztia. Jendea kontratatu zuen lan horretarako. Oraingo honetan bailarako jendea, egun argitan eta denon bistara lan egiteko. Legala.

Espero baino azkarrago eta hobe joan zen gauza. Izugarri azkar lan egiten zuten lur azpikoek, eta lur eskariak ere hala joan ziren handituz. Hilabete batzutan ezin kontaktuzko mozkinak izan zituen. Bailarako handiki guztien laudorioak baino ez zituen jasotzen. Eta herri xehearen inbidia. Goranzko bide urreztatuan zihoan azeria, suziria moduan. Sariak hori baieztatu besterik ez zuen egiten. Baina jende garrantzitsu horren aurrean errekonozimendu hori jasotzea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula.

Pozik zegoen bost kilkerrek egiten ari ziren lanarekin. Berak uste baino finago zebiltzan. Kementsuak ziren. Langile nekaezinak. “Pena beraietako bat galdu izana. Mila bider esan zien segurtasun neurriak inoiz ez ahazteko, baina kasurik ez. Jakina. Beste kultura batekoak dira. Ez daude segurtasunez lan egitera ohituak. Baina hala ikasi zuten ikasgaia. Ordutik kontu handiagoarekin dabiltzala dirudi. Okerrena gorpua non eta nola ezkutatu izan zen. Eskerrak ideia zoro hura izan nuen. Azkenean enpresari ona izateko ideia zoroak behar dira. Eroke-riek, gauzatuz gero, etekin mugagabea ematen dute. Eta hantxe sartu nuen kilker haren gorpua, zenbait lur zakutan zatituta, txiki-txiki. Akaso hotel honetako oinarrietan datza.” Eta bat batean lur sakratu baten gainean zegoela iruditu zitzaion.

Txalok eta sorbaldan ukitu zuen esku batek atera zuen bere baitatik azeria. “Zutitu”, adierazi zion Hipoak begiradarekin, eta irribarre inozo batekin aulkia atzerantz bultzatuta tente jarri zen ezker eskua Hipoari eman eta eskuinarekin jendea agurtzen zuen bitartean. Gorbatahun guztiak zutik eta txaloka zeuden. Foku guztiak berari begira, eta argazki makinak kliska-kliska amaigabeen. Bolalumak geldi.

Ezin jakin txaloen arrazoia. Hitzaldian esandakoarekin bat zetozelako, ekitaldia amaitu zelako, ohitura hutsa... Gauza da txalok bidea ireki zutela ardiak ilaran eta apurka-apurka atetik ateratzen joan eta dastamenaren festa abian jartzeko. On egin bailarako multzo agurgarria!

- Nik uste iristear gaudela. Ekarzu planoa.

Planoa iluntasunak zipriztindutako eskuetan hartu, eta Hipoaren metagailurainoko distantzia aztertzen hasi zen.

- Kontuak ez baditugu gaizki egin 10 bat metro gehiago zulatu eta metagailuan gaude.

- Ea, erakutsi.

Hatzarekin azaltzen joan zitzaion ondokoari guztia. Planoak dar-dar egiten zuen. Baita hatz erakusle izerdituak ere. Nekeak, giro itoak, gau ilun amaigabeek ezin beste eraginik izan. Hala ere, lana amaitzear zutela jakiteak indarrak hauspotzen zizkien.

- Hamar metro! Astebeteko lana! Gezurra dirudi!

- Azkenean, bai.

- Agoitz hemen balego...

Zizareen ibilera sigisagatsua entzun zen momentu batez. Pare bat tanta masailetatik behera lurrera jaus-ten ondoren. Besterik ez. Ezin izan zuten hitzik ebaki begirada galduak elkar topatu zuten arte. Talka txiki moduko hark, biriketarik aire ufadatxo bat aterarazi zuen.

- Lurrazaletik zenbat metrotara gaude?

Berriro ere begiradak planoetara zuzendu ziren.

- Etxola lurrazaletik 20 metrora daukagu. Metagailua etxola azpian dago 115 metro ingurura. Bertatik %1eko maldarekin igotzen joan gara tunelean barrena. Eta 8 kilometro inguruko luzera egin dugu. Beraz, bota: 100 metroko metro bat igotzen joan bagara, zortzi mila eginenez zenbat igo gara?

- Adarra beste bati jo to! Zerbaitegatik galdetu dizut!

- Erraza duk ba! Gero hor goian ibiltzeko buruari gehiago eragin beharko diozu, bestela berriro ere asto lanean jarraitu beharko duzu.

- Ikasiko dut kanpora ateratzen naizenean zer egiten dudan, ez ardura horretaz. Nik zenbat metrora gauden jakin nahi dut.

- Zertarako jakin nahi duzu? Ez zara ihesaren kontuarekin berriz hasiko ezta?

- ...

- Hi, erotuta al hago? Aste bete baino ez zaiguk gelditzen!

- Ez naiz nagusiaz fio. Zenbat metrora gaude? Zenbat metro zulatu behar ditugu gorantz eguzki errainu islatuak ikusteko? Gorantz zulatu, dzanga-dzanga, eta arnasa! Arnas garbia!

- Ahaztu hori. Aste betez lan egingo dugu, eta aske. Gogora ezazu nagusiak nolako errespetuarekin jaso zuen Agoitzen heriotzaren berria. Berak igo zuen, eta lur eman zion hilerrri batean elizkizuna egin ostean. Guk, aske gelditzean, egingo dugun lehen gauza Agoitzengana joatea izango da. Ez al du Agoitzek hori merezi? Ihes egiten baduzu nola jakingo duzu Agoitz non den?

- Aizu. Nik Agoitz gogoan daukat aldi oro. Halako garrantzirik al du gorpua non den jakiteak? Nik berarekin

hitz egin dezaket hemen bertantxe, eta orain.

- Utziko al diozu behingoz zure buruan baino ez pentsatzeari? Zer esango diezu bere emazte eta seme alabei? Zuk esango al diezu ez dakigula non den hobiratua? Zuk ukatuko al diezu bere hilobi aurrean belaunikatzeko aukera? Loreak eskaintzeko lekua? Samina partekatze-ko aldea?

- Beno, beno. Ez zaitezela horrela jarri. Apaiz predikari bat dirudizu. Ez nuen horretan pentsatu. Baina beldur naiz lan hau bukatuta beste lan batetara behartuko gaituela nagusiak. Zerk ziurtatzen dizu zuri nagusiak hitza beteko duela?

- Ziurtatu, ez dit ezerk ziurtatzen. Berak hala esan zuen, eta nik sinistu. Akordioa hori zen: bere metagailua urez beteta egotean gu libre. Oraingoz agindu zigun guztia txukun betetzen ari da. Ala ez al digu egunero jana eta edana ekartzen?

- Hori bai, baina ez dakit... Nik susmo txarra hartzen diot. Agian nire izaeraren kontua izango da. Baina tira, zuk sinisten badiozu, aurrera egin beharko. Ni bai, zutaz fidatzen naiz, ederki ezagutzen zaitudalako. Azeri hori ordea...

- Horixe, ba. Zuk izan fedea nigan, eta hemendik aste betera hor kanpoan ibiliko gara, eta gure senideak bersarkatzera joan ahal izango dugu. Ez al duzu zure anai arrebeekin berriro elkartu nahi?

- Bai. Ez dut beste ezer irrikatzen. Zer moduz egongo ote dira. Anaia txikitxoena dezente haziko zen jada. Oinez ibiliko da seguruenera. Hitzak ere ahoskatuko ditu ziur asko. Auskalo, agian iritsi eta bere izenez deitzen diodanean ez nau ezagutuko! Badut gogoa, bai, nire

senideak besarkatzeko. Amak jakingo al du han goian hemendik gutxira berak hainbeste amestu zuen bizi berriari ekingo diogula! Amatxo...

Eta burua etxeko sutondora joan zitzaion. Goxo. Inon ez bezalako goxotasuna. Mahai berean denak eserita, irri karkaraka. Kontu kontari. Amaren irribarrea, eta aitaren begirada despistatua betaurrekoen atzean. Txikien bihurrikeriak. Hasperen egin zuen. “Berreskuratuko al dugu inoiz giro hori? Lortuko al dugu bizitzeko gutxieneko txoko kuttuntxoren bat? Etxean sentitzearen sensazioa izango al dugu berriz noizbait?”

Pikotxa hartu eta zulatzeri ekin zion. “Atebete. Zazpi egun. Eta kitto. Mesedez, hala izan bedi. Ez daitezela nire susmo txarrak bete. Nire beldurrak inozokeri barrigarri bihur daitezela hemendik zazpi egunetara, mesedez.” Lurrak beste kolpe bat jaso zuen. Oraingo hau itxaropenak emandakoa.

Plateren hotsa entzun zuten eskaileretan behera. Urratsak ere. Eta esku bi erretilua heltzen. Azeria zeterren eguneko janariarekin. Ez zen erraza eskailera haie-tan behera egitea erretilua beteta. Baina hartu zion trukoa azeriak. Iaioa zen, egia esan. Eta itxuraren arabera behintzat, esanekoa. Egunero-egunero jaitsi baitzen janariarekin adostu bezala. Egun bat bera ere ez zuen hutsik egin. Eta hori eskertzekoa zen gutxienez.

Irribarrea zekarren azeriak.

- Hemen daukazue: azken afaria.

Erretilua mahaian jarri zuen, eta bizkarrean zekarren poltsa hartu zuen eskutan. Poliki poliki, era zeremoniatsuan ireki zuen. Eskua bertan sartu eta argirik balego, diz-diz egingo zuten botilaren hotz berdeak erakarritako ur tantek.

- Ospatzekoa da ezta?

Erretiluan kopak zeuden basoak ordeztu. Bostekoa osatzen zuten kopok aspaldi jaisten zituen basoek osatzen zuten kopuru berbera: bost. Bosgarren hau, haatik, ez zuen Agoitzek edango.

- Gaur zuekin topa egin nahi dut - bota zuen azeriak esku bat botila lepoan eta bestea kortxoan estutzen zuela.

Poum! Entzun, eta ke zuria atera zen beira frantsesetik. Botilak gainezka egiten zion aparra kanporatu behar zuen instantean kopak betetzeari ekin zion azeriak. Kopa bakoitza pixkana betetzen joan zen. Aparrak koparen gaina ukitu bezain pronto beste koparen txanda zetorren, eta bostak erdi beteta zeudela bigarren txandan goraino bete zituen. Ezaguna zuen azeriak, inolaz ere, xanpainaren zeremonia.

- Lan bikaina egin duzuelako, eta zuentzako paperak ia lotuak dauzkadalako - bakoitzak kopa bat hartu eta,

altxatu egin zituzten - Dirudenez bihar goizean azken metroak zulatu behar dituzue. Bejondeizuela!

Kopen din-din hotsek apurtu zuten azken hitzak utzi zuen isiltasuna.

- Agoitzengatik.

- Agoitzengatik - errepikatu zuten beste hiru hots urratuek.

Bost kopak hustu egin ziren. Eztulen bat entzun zen. Judasek muxu bana eman zien agurtzeko orduan. Eskaileretan gora galdu ziren bere oin hotsak. Lau kilkerak mahaian eseri eta afaltzeari ekin zioten isiltasunean. Norberak bere maiteak gogoan.

Gauean laurok jai hartuko zuten. Afaldu, hitz egin eta lo egingo zuten. Etxolako azken afari hura elkarrekin egin nahi zuten. Halaxe adierazi zioten bezperaz nagusiari. Elkarrekin afaldu, eta denok lo egingo zutela, hurrengo goizean azken metroak laurak batera egin ahal izateko. Nagusiak ez zuen eragozpenik jarri. Eta bistan zenez, ongi iruditu zitzaion. Detaile polita izan zuen xanpainarekin, baina gehiago gustatu zitzaien askatasunerako paperez azeriak esandakoa.

Janari eta edariekin batera galderak nahastu ziren gela ilun hartako egurats kargatuan: "Aire garbia arnastuko ote dugu bihar? Besarkatuko al ditugu gure maitatuak? Eramango ahal izango diegu ur mordo bat denak berpizteko? Ur zipriztinetan dantza egingo al dugu? Aterako al gara biziraupenaren gurpil estutik?"



Galderak. Galderak. Etorkizunak baino erantzun ezin dituen galderak.

Berriketa luzea izan zuten mahai inguruan janak amaituta eta edariak lagunduta. Hurrengo egunak ekarriko zizkien aukera berriez jardun zuten: bakoitzak zituen ametsetaz, kalera irtetean egingo zuten lehen gauzaz... Baina atzera ere luzatu zuten begirada: han barruan pasatako hilabete luzeez, epe horretan izandako gora behera eta erorialdiez, eztabaida eta ihes egiteko ideia zoroiez. Irribarrearekin ekarri zituzten oroimenak. Garai batean liskar, neke, amorru eta haserreak orain irrigarri azaltzen ziren mahai gainean, lehena orainaren arabera orrazten baitugu.

Bide malkartsua igotzeak merezi izan zuenaren konbentzimenduarekin oheratu ziren laurak.

Iratzargailuak esnatu zituen amets goxotik. Aurpegiak busti, lehortu eta lanerako arropa jarri zuten.

- Prest azken txanparako?
- Goazen!

Oinez abiatu ziren, egunero-egunero bezala lanpostura. Zortzi kilometro luze. Zortzi kilometro eta ehun metro hain zuzen. Pare bat metro zulatzea baino ez zitzaien gelditzen planoak zioenez, nagusiak nahi zuen lana amaitutzat emateko. Tunela hor utzita azken eztanda-

txo bat geldituko litzateke Hipoaren metagailua zulatu eta azeriaren metagailua urez betetzeko. Baina hori nola egingo zen nagusiak soilik zekien. Ez zen beraien ardura. Beraiek zuloa baino ez zuten egin behar: hodi lana egingo zuen tunela metagailuraino eramanez. Bidea isiltasunean egin zuten, noizean behin esaldiren batek urratzen zuen isiltasunean. Bestela oinen doinu arina entzuten zen lurrean tipi-tapa. Begiradak erne beraien eskuak eraikitako tunelean zehar. Sineskaitza zitzairen. Beraiek bakar-bakarrik egin zuten hori guztia? Ezinezkoa zirudien. Baina hala zen. Pausuz pausu, urratsez urrats, egunez egun, hilabetez hilabete lanean ibili ondoren, horra hor emaitza ikusgarria.

Agoitzek bizia galdu zuen puntutik ere igaro ziren. Loreak jarrita zituzten bertan, eta handik pasatzen ziren bakoitzean muxu ematen zioten paretari eskuekin. Handik aurrerako lana polikiago eginda zegoen. Lasaia-go. Eta emaitzan ere nabari zen. Zulaketak luzeago jo zuen, baina laurok bizirik iraun zuten.

- Beno mutilak. Azkeneko aldiz har ditzagun palak eta pikotxak. Gelditzen zaigun metro pareta zulatuko dugu, eta lurra orgatilan bilduko dugu. Lur guztia zuloa amaitzean eramango dugu etxolara. Ados?

Bakoitza bere erremintaren bila makurtu zen. Nabari zen hezetasuna lurrean. Kirtenak heldu zituztenean lokatza itsatsita gelditu zitzairen eskuetan. Nabari zen hezetasuna ere lanabesen egur hanpatuetan. Izerdia ere errazago botatzen zuten. Dudarik gabe, planoak

esateaz gain, giroak ere adierazten zuen metagailua gertu zela. Zailagoa egiten zuen horrek lana. Lurraren trinkotasunak, ere, zulaketa zailtzen zuen. Baina zeuden aldarlean, eman eta eman zebiltzan. Jo eta su, azken metroetako sprint azkarrean. Jo eta jo. Zulatu eta zulatu, pala sartu eta lurra atera. Pala sartu eta lurra atera. Besoa bekokira eraman, eta lehortu.

Lur mendixka ederra osatzen ari zen beraien bizkar aldean. Zaila izango zen lur hori guztia orgatiletan sartzea. Baina sartzen ez zena bertan barreiatuta utziko zuten. Ez zegoen arazorik. Garrantzitsuen urak pasabidea aurkitze zen, eta lur apur batek ez zion inolaz ere bidea oztopatuko. Ederra da, gero, ura nonbaitetik pasa nahi duenean. Ez du ezerk geldituko.

- Aizue, lur hau hemen utziz gero, nagusiak ez du eragozpenik jarriko ezta?
- Zer jakingo du nagusiak hemen dagoenaz? Horrek nahi duena da bere metagailua uraz bete-betea ikusi. Beste guztia bost axola zaio.
- Baina hau hemen utzita ez da arazorik sortuko ezta? Honek ez digu lan luzapenik eragingo ezta?
- Ezetz ba! Inoiz ikusi al duzu ura bortizki ibai batean behera? Ur jauzirik ikusi al duzu?
- Jaio nintzenerako dena zen ur eskasia nire inguruan. Ura beti apal-apal ikusi dut lur idorrek inguratuta, guztiz kikilduta. Ezer esateko ere beldurrez.
- Jakin ezazu ba, urak nahi duenean edozer txikitzeko indarra duela. Oldartzen denean ez da geldituko duenik. Ez lur, ez harri, ez inor. Eta nire kalkuluen arabera,

Hipoaren metagailua betea badago guk zulatu behar dugun puntutik ura izugarrizko bortxaz aterako da. Agian guk egindako tunela zabaldu ere egingo du zenbait puntutan. Ez zaitetz hemen utz dezakegun lur apurraz ardurara mesedez, urak aurkitzen duen guztia eramango baitu bere baitan.

- Hori da! Har ezazu pala eta ekin lanari, geroz eta guxtiago gelditzen zaigu eta!

Zanga, zanga. Kin-kan. Zanga-zanga. Kan-kun. Lurrari etengabe ari zitzaien tartea jaten. Geroz eta indartsuago; geroz eta bizkorrago. Metronomo etengabe azeleratu bat lurrazaletik 35 bat metro azpitik.

Musika erritmikoak pausa bat egin zuen distantziak neurtzeko garaia iritsi zenean. Azeriaren metagailutik zetorren soka ahal bezainbat tenkatu eta:

- Lagunak! Zentimetro batzuk besterik ez zaizkigu gelditzen. Azken txanpa. Har dezagun bakoitzak pikotxa bat eta eman diezaiogun Agoitzi merezi duen omenaldia.

Trainera bateko lemazainak gidatu zuen handik aurrera pikotxen erritmoa. Eup! Emaan!, Aurreraaa! Lau pikotxek batera egiten zuten dantzan. Emaan! Euup!

- Ño, hemen harri bat dagoela dirudi...

Eman gogorrago! Euup! Goazen mutilaak!

- Hemen ere harria dagoela dirudi...

Apur ezazue indar guztiekin! Emaaan!

Kink! Kink!

- Txikitu dezagun harrizarra, zentimetro batzuk baino ez zaizkigu gelditzen eta! Eman daukazuen guztiarekin!

Kink! Kink!

Kink! Kank! Konk! Kraaaasssk!!!!!!

Ura. Ur burrunba. Ur erauntsia. Burrunba. Ekaitza.

Ur masa amaigabea tunelean behera. Munstrotzar zaurituaren beso txikitzailea bere onetik aterata azeriaren metagailuaren bila.

Lehen txorrota bortitza azeriaren metagailuan. Ur maila gorantz. Gainazalean lau gorpu urarekin batera gorantz.

Azeriari amaitu zitzaion lurra lortzeko pagotxa, lur azpiko lanak amaituak ziren eta. Enpresa itxi eta langile legalak kaleratu egin zituen inolako eragozpenik gabe. Metagailua, ordea, goraino beteta zuen. Lau gorpuak bertatik ateratzea ez zitzaion zail gertatu.

— |

| —

— |

| —

---

## 17

Erlojua begiratu duzu: 21:10. Bi orri baino ez zaizkizu falta ipuina amaitzeko, baina ezin duzu arriskatu. Puntu-puntu egon behar duzu atean. Bestela kalean geldi zaitezke. Bi aldiz pentsatu gabe bi orriok hartu eta alde egin duzu, tabernaria agurtuta.

Errepidea gurutzatu, eskuinera metro batzuk egin eta auto baten gainean eseri zara azken orriak irakurtzeko.

Karpeta mahai gainean gelditu da zabalik. Tabernan kea eta jendearen solasak airean.

— |

| —

— |

| —



Denbora bat pasa zen, bai, baina ez hainbeste ere. Azeria ez zen izan adimentsu bakarra. Dezente metagailu ezkutu gehiago eraiki ziren handikien etxe inguruetan. Inork ez zuen beraien berririk. Edo bai. Baina nori inporta?

Guztiak aurrera zerraien oparotasunak bultzatuta, Hi-poaren metagailuko sirena gorria piztu eta biraka hasi zen arte. Inoizko ur mailarik apalena zegoen.

Bailarako metagailuan ez zegoen urik ordura arteko aktibitate joriarekin jarraitzeko. Abiadurak moteldu behar ziren. Ur parkeak itxi; langileak kaleratu. Ur laguntza apurrak desagerrarazi. Inoiz ez bezalako geldialdia atzeman zitekeen hurbiltzen, hain baitzen larria ur eskasia metagailuan. Horra gobernu kontseiluak hartutako lehen neurriak.

Esfortzu guztia metagailua betetzera eman behar zen. Ahalik eta ur gehien behar zen, inoiz baina ur gehiago. Eta horretarako langile merkeak behar ziren. Esfartzua eta sakrifizioa eskatzen zituen garaia iritsi zen. Bigarren neurria hau.

Jaitsi ziren metagailuan behera alarmaren arrazoiak

ikertzera, eta metagailua zuloz josia topatu zuten. Emmental edo Gruyere gazta hustu bat zirudien. Dударik gabe ura zulo horietatik galdu zen. Ezinbestekoa zen zulo horiek guztiak estaltzea nola edo hala. Langile merkeek egingo zuten hori ere. Hirugarren neurria hori.

Nik ezin izan nuen jasan horrenbesteko demasia. Nork sortu zituen zuloak? Nora joan zen ur guztia? Ura ez zen desagertu goizetik gauera. Urteetan pilatutako ura nonbait zegoen. Ez zuen inork bilaketarik egin behar? Ez al zen ur hori berreskuratu behar?

Lurreko baliabide guztiak xahutuak, agortuak. Munduaren gehiengoa behar larrian, bizitzeko gutxienerik gabe. Guztia metagailu zikin horrek, eta metagailu zaleek sortua. Metatzearen metatzeaz, metatzeko irrika ase ezinez gaixotuak. Geroz eta gehiago, geroz eta gehiago. Eta orain metagailuan sarraskijale horiek egin zuloak guk estali? Estali ez, txikitu egin beharko litzateke metagailu hori!

Hipoarengana joan nintzen erotuko ez banintz. Zuzenean, idazkariari ezer esan gabe sartu nintzen bere bulegoan. Bai. Banekien besaulkian ongi berrmatua, purua ahoan topatuko nuela, oinetan masajea hartzen zuela. Bai, banekien bestela ematen bazuen ere Hipoari bost axola zitzaiola bailarako bizilagunen patua. Horregatik ere joan nintzaion sutan, purrustadaka guztia aurpegira botatzera. Behintzat lotsak aldaraziko zuelakoan. Miraria zen hori, ordea.

Esan nion baietz, onurak ekarri zituela metagailuak. Baina onurak gutxi batzuentzako eta denbora gutxirako, lurraren etorkizuna kinka larrian zen eta. Metagailuko ura, gainera, ez zela desagertu, gordeta zegoela beste metagailuetan. Horien bila joan behar zela. Ez zela metagailua konpondu behar. Beste sistema bat asmatu behar zela.

- Baina, ez dago beste sistemarik - izan zen bere erantzun lasaia-. Metagailua ezinbestean konpondu behar dugu. Berriz ere bete. Bestela nola aterako gara aurrera? Enpresak itxiko dira, langileak kaleratuak izango dira. Ezinbestean ur gehiago ekoiztu behar da. Metagailua konpondu eta urez bete. Albait lasterren berreskuratu behar dugu lehengo ur maila sarraskirik gertatzea nahi ez badugu.

- Ez dut ulertzen- atera zitzaidan- Munduko ur iturriak agortzen ari dira, gehienak eguna pasatzeko ur justua daukate eta zuk metagailua konpondu eta bertan ur gehiago nahi duzu. Gehiegi kontsumitzen dugunok gehiago kontsumitzea nahi duzu gainera. Zertarako eta metagailuak beteta jarrai dezan. Baina zertarako metagailua bete, mundua txikitzen eta jendea ur eskasiaz itotzen ari bagara? Zertarako sortu zen metagailua? Zer helbururekin? Ala metagailua bera al da helburua lurra eta jendearen gainetik?

- Begira. Nik bailara hau aurrera ateratzeko ezagutzen dudan sistema bakarra metagailu hau beteta izatea da. Erraza da metagailua eta bere ondorio latz batzuk kritikatzeko, baina zuk zerbait hobea proposatzen badidazu, ez dudarik izan nik onartuko dizudala. Gertatzen da

badakizuela ezinezkoa dela metagailu gabeko sistema-rik sortzea.

Orduan, berak parke teknologikoan esandako hitzak hartu eta errepikatu nizkion:

- (...) *burua horretara eman behar duzue. Nahiz eta gauzatzeko ia ezinezko zerbait bururatu, egingarritzat hartu, eta helburu hori lortzeko bitartekoak pentsatu. Planifikazioa egin eta proiektuak idatzi. Aurrekontuak eta giza baliabideen premia kalkulatu. Nola lor daiteke ideia hori gauzatzea? Zuek gauzagarri balitz bezala lan egin ezazue. Guk zuek eskatzen dituzuen baliabideak emango dizkizuegu. Eta horrela apurka-apurka aurrera egingo dugu eta ikusiko nola helduko garen zuen burutazio ezinezko horren albora.*

*Ezin duzuen egin da, ideia bat besterik gabe ezinezkoztat jo, eta horretan gehiago ez pentsatu, soilik oso zaila iruditzen zaizuelako. Historiak erakutsi baitigu, bailara honetan bereziki, gauzak nahi, benetan nahi direnean egingarriak direla.*

(...)

*Ezinbestekoa da lan talde bat etorkizunean pentsatzen*

*(...) Ezin da joan eguneroko martxak bultzatuta, itsu-itsuan. Lan talde batek epe luzerako ikuspegia izan behar du. Eta epe luzeko ikuspegi hori izanda, helburuak jarri beharko ditu, eta nola ez, helburu horietara heltzeko ideiak mahai gaineratu. Horrelako lan talderik gabe noraezean ibiliko gara.*

Jauna, ba al duzu guztiongan pentsatzen duen sistema bat sortzeko buruari astintzen ari zaion aditu talderik?

Baliabiderik jarri al duzu xahuketarekin amaitu eta guztientzako bizitza duinagoa lortzen saiatuko den sistema asmatzen joateko? Zuk ongi esan zenuen bezala, guztia da egingarria horretara jendea eta baliabideak bideratzen badira. Zure helburuak, ordea, ez doaz hortik ezta?

Horiek izan ziren esan nizkion azken hitzak. Berehala bi gorilek helduta ninduten. Ohartzeke ia, furgoneta baten barruan nengoen.

Ordutik hemen nago. Espetxe batean sartu izan banindu sikiera. Horrek publizitatea ekar lezake, eta kausa baten alde borrokatzeko bidea ere ireki lezake. Baina Hipoa argia da oso, eta badaki zer komeni zaion momentu oro. Horregatik sartu ninduen zahar etxe honetan.

Zulo beltzik ba ote dagoen? Dudarik gabe: zahar etxeak dira. Hemen ez da errealitaterik gehiago. Hemen dena, ez da. Hemen betirako mutu utzi nau Hipoak. Burutik nagoela eta, pilulak jasotzen ditut egunero. Gaixo ei nago. Burua joana. Beste zahar batzuekin ariketak eta irteerak egitera behartzen naute. Baina hemen ez daukat norekin hitz egin. Bakar-bakarrik nago. Ez dago ni askatzeko talderik pankartekin egoitza atarian. Desagertu egin naiz, nau, errealitatetik. Munduko bizitzatik. Bai, zulo beltzak badira. Horietako batean bizi naiz ni.

Bisitak etortzen zaizkit, bai, noizean behin. Hipoaren emaztea etorri izan zait zenbaitetan. Beste batzuk ere. Baina hizketan hasi, eta bisita amaitu arte ez dira isil-

tzen. Nik ezin izaten dut ahorik zabaldu. Beraien barrenak hustera datozela iruditzen zait askotan. Barru barruan duten zama botatzen didatela niri. Apaiz edo psikologo itxura hartuko didate akaso.

Besarkadak ere ematen dizkidate. Besarkada larriak. Beraien besarkada larriekin ito egiten naute ia. Eta ito aurretik nahiago paper zuriak zirriborratzea, eztanda egingo ez badut.

Nire eta nire bisitarien barruak paper zurietan husteak, hara zerk lagundu didan botika lurrinez kutsatutako zulo beltzean gaur arte iristen. Bihar arte ordea ez dut uste helduko naizenik. Ez. Ez dut uste eguberria hemen ospatuko dudarik. Agian eguberria nirea izango da. Ez galdetu zergatik, baina sumatzen dut.

Ez den leku honetan idatzitako paper bidaide hauek ezerezean geldituko dira, baina menturaz zientzialari bati iristen bazaizkio, proposatuko nioke zulo beltzari izenez aldatzeko, hau guztia zuri zuria da eta.

Inork jasoko al du nire zama beste aldean? Besarkatuko al nau Inork maitasunez, ito gabe, muga pasatzen dudanean?

Begirada galdua gelditu zaizu paperaz haratago. Non baino.

Elizako ezkilak kanpaikada bat jo du. Bederatziak eta erdi.

Igaro da egun amaigabea. Amaitu da horrenbeste beldur ematen zizun egun malapartatua. Zuri ere egin dizute konpainia paper zirriboratuok; zulo beltzetik atera diren idatziok. “Agure horrek ez du gutaz aipu bakarra ere egiten. Beretzat ere ez dugu existentziarik sistemak kale gorrira jaurtikiok. Sistemak kale gorrian behar dituen galtzaileak.”

- Gabon- entzun duzu.

Giltzen dantza eta barroter berde metalikozko atetzarraren sarraila ondoren. Atea zabaldu dizute. Kotxe kapotatik altxa zara. Eskutan duzun papera bota duzu, eta haizeak hegan ibili du tarte batez emeki putzu batean pausatu den arte.

Bakarrik zaude. Beste guztiak ez dira lehen deialdira iritsi. Hamarretan etorriko dira seguruenik. Guztiak

helduko al dira? Gaingituko ote dute orratz geldoaren kolpe amaigabeen eskaintza sadikoa?

- Gabon - atera zaizu nola hala burua makurtuta darazazula.

- Ez da beste inor?- bota du enborra kanporantz luzatu eta ezker eskuin begiratzuz hezitzaileak.

“Ez” bat gelditu da airean. Atearen kolpea ondoren.

“Ni ez naiz zientzialaria, baina zulo beltzari ez diot ize-nik aldatuko. Hemen dena beltza da eta.”

Urrats dardaratiz eskaileretan behera egin duzu. Han behean argia ikusten da.



Mila esker  
Inge, Alberto, Bakartxo eta Lizar,  
emandako laguntzagatik.